

Paulo Iztueta Armendariz

Euskal idazleen belaunaldiez

Utriusque Vasconiae

© Paulo Iztueta Armendariz
© Utriusque Vasconiæ
Lehen argitaraldia: Donostia, 2005eko azaroa
ISBN: 84-934066-5-1
Lege-gordailua:
Azala: Paulo Iztueta Armendariz
Irudia: Alfredo Escobar
Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE
Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia.
Tel.: 943-270433
Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239

Paulo Iztueta Armendariz

Euskal idazleen belaunaldiez



Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduriko
KRITIKA LITERARIOA
sailean argitaratzen da

AURKIBIDEA

SARRERA	7
I. BELAUNALDIAREN KONTZEPTUA TRADIZIOA	
SOZIOLOGIKOAN	15
Eskola positibista	16
Eskola historiko-erromantikoa	20
Eskola soziohistorikoa	22
Eskola etnologiko-antropologikoa	32
Teoriatik praktikara	34
II. EUSKAL KULTURAREN BILAKAERA HISTORIKOA	39
III. PERIODIZAZIOA EUSKAL LITERATURAREN	
HISTORIAN	73
Euskal literaturaren historia orokorrak	77
Epealdi eta genero jakin batekoak	95
Bildumak	110
IV. ZENBATGARREN BELAUNALDIA?	123
1800eko belaunaldia	123
1876ko belaunaldia	124
1930eko belaunaldia	129
1936ko belaunaldia	135
1950eko belaunaldia	137
1956ko belaunaldia	139

1960ko belaunaldia	148
1964ko belaunaldia	152
1970eko belaunaldia	155
1976ko belaunaldia	163
1984ko belaunaldia	165
1993ko belaunaldia	171
AZKEN HITZAK	177
BIBLIOGRAFIA	181

Sarrera

Aldika, trumoi haserretuaren antzera, idazle-multzo baten deiadarrak entzuten dira gizartean beren lekua eskatuz. Normalean gazteak izaten dira berritasun zerbaiten ekarle sentitzen direnak eta beren ahotsa entzuna eta aintzakotzat hartua izatea errebindikatzen dutenak.

Euskal kulturaren mundutxoan, azkenaldion, literatur sailetik jalgi da galdera, batzuetan ozenki, besteetan zalantzaz beteta egina: belaunaldi berri baten aurrean ote gaude? Eta hala bagaude, zein ote dira hori baieztatu ahal izateko arrazoiak? Badirudi, asmoetan bederen, euskal letren zohardia izarrez aldatzeko tenorea iritsia dela.

Harritzekoa ere bada belaunaldien kontuak horrelako burrunba ateratzea, kontzeptu hori, kritikak aspalditxotik auzitan jarria, hila edo erdi-hila zelakoan baikeunden. Baina bai zera! Literaturatik haragoko beste sailetan ere, edozein kultur gertakari dela eta, noiznahi agertzen da hitz hori, bereziki hedabideetan, liburuak aurkezten direnean, norbait elkarrizketatzen denean, eta horrelakoetan. Bestalde, hitz horri ematen zaion zentzua ere ez da beti berdina izaten, nork eta non, aldatu egiten baita.

Oraindik orain, eguneroko prentsan¹, Sarrionandiaren *Akordatzan* oroitzapen-liburuaren aurkezpenaren kariatz, izenburuan “belaunaldi oso baten bizipenen isla” zela irakurtzen genuen. *Argia* astekariak Harkaitz Cano, Juan Luis Zabala eta Iban Zaldúa idazleen arteko elkarrietzeta zekarren eta hor, Mikel Asurmendiren galderei erantzunez, egungo euskal literaturaren esparruan belau-naldien arazoaz beren aburuak agertzen zituzten². Elkarrietzeta batean, belau-naldi-aldaketa ematen zela esaten zuen Andres Urrutia euskaltzainburu berriak: “Belaunaldiz aldatu dugun neurrian aldatu ditugu bestelako kontuak ere, euskara kaletarra bihurtu den neurrian gu ere egoera horren lekuko gara”³. Aldatzen dena, beste ezer baino gehiago, adinarena da, euskaltzain berriaren 50 urtetik Jean Haritzelhar euskaltzainburu ohiaren 81 urtera tarte nabaria baitago. Data bereko egunkari berean, Mixel Ezquiagak idatzitako *101 vascos y medio. Bestiario portátil* liburuaren aurkezpena zela medio, honako izenburua irakur zitekeen 54. orrialdean: “*101 vascos y medio, intento por retratar una generación*”. Eta goiko argazkian, adin guztietako pertsonaiak agertzen ziren, berrogei urtetik beherakoak bezala hirurogeita hamarretik gorakoak. Eta kolore guztietakoak. Martin eta Xabier Etxeberria anaien *Itxoidazu Café de Passy-n* eleberriaren aurkezpen-pasarte batean⁴, orobat, “dezepzioak elkartzen dituen belau-naldi bi” irakurtzen da izenburuan, horrekin aditzera emanez “desilusio guztien gainetik aurrera jarraitu beharra” dagoela, aldi berean, errealistak izanez eta ezinezkoa errebindikatuz. Bi belau-naldi hauek Burgosko

¹ *Gara*, 2004-12-2, 59 or.

² *Argia*, 1.968 zk., 2004-11-28, 20-31 or.

³ *Gara*, 2004-12-18, 51 or.

⁴ *Argia*, 1.971 zk., 2004-12-19, 39 or.

epaiaketaren inguruan sortutako mugimendu zabalarekin identifikatzen den Parisko unibertsitate-ikasleek eta orduko gazteen seme-alabek osatzen dituzte. Beraz, hemen ere, adin biologikoa da neurria. Zentzu biologikoan erabiltzen du, orobat, Josu Iztuetak⁵ dioenean, bere aitoren aipamena egitean: “Aitona zenak, duela 70 urte, auzolanean altxatutako hainbat harrizko horma ia eguenero bisitatzen ditut eta horrekin batera irudimena bi belaunaldi atzera bidaltzen dut”.

Beste batzuetan, ordea, zentzu sozialean erabiltzen dute beste batzuek, hala nola Pako Sudupek⁶ 1950eko hamarkadan gertatzen diren tirabirez jarduten duenean. *Euzko-Gogoa* aldizkariak ari dela, belaunaldi berekoen artean bi joera nabarmentzen ditu, batzuk euskara kulturearen aldekoak (Zaitegi, Orixe, Ibinagabeitia) eta beste batzuk, berriz, euskara populistaren aldekoak (Iparraldean *Herri* astekarikoak, Lafitte eta Salaberri, eta Moko-roa eta Etxaniz Hegoaldean).

Zernahiri deitzeko balio du, beraz, belaunaldiaren kontzeptuak. Erabilera egokia ala desegokia izango da, baina belaunaldiaren gaia bizirik dago. Alderdi hauxe jarri nahi dugu mahai-gainean. Eta euskal literaturaren esparruan baduela bere gantxo gogoratu beharrik ere ez daukagu, berrikitan *Argia* astekariak Harkaitz Cano, Juan Luis Zabala eta Iban Zaldúa idazleen arteko elkarrizketa mamitsua baitzekarren eta hor solaskideek, Mikel Asurmendiren galderei erantzunez, egungo euskal literaturaren esparruan belaunaldien arazoak beren aburuak agertzen baitzituzten⁷.

⁵ “Hurbileko geografia. Euskara baserritik azokara”, *Argia*, 1.972-1.973 zk., 2004-12-26, 42 or.

⁶ “Belaunaldi tirabirak 50eko hamarkadan”, *Egan*, 2001-1/2, Donostia, 23 or.

⁷ *Argia*, 1.968 zk., 2004-11-28, 20-31 or.

Gero zehatzago ikusiko den bezala, euskal literaturaren eboluzioa historiatzeko erabili diren kategoriak mendez mendeko edo urtealdiz urtealdiko sailkapenetan oinarrituak izan dira eta oraindik ere, neurri handi batean, irizpide kronologiko berarekin segitzen dugu, kultur gertakariak epealdi jakin baten barruan kokatuz, baina zergatik horrela kokatzen diren arrazoitu gabe. Eta epealdi horien baitako kultur aldaketen prozesua adierazteko, orobat, beste hainbat kontzeptu irakur daitezke historia-ko testu horietan, noiz kultur mugimenduak, noiz literatur korranteak, noiz eskolak, noiz taldeak, noiz lagunarteak, noiz belaunaldiak, *et sequatur*. Inoiz horietako bakoitzaren edukia zehaztu gabe, baina orokorrean horien artean nolabaiteko kidetasun semantikoa agertuz.

Euskal kulturaren sailean, Joan Mari Torreal dai izan da belaunaldiaren kontzeptua modu aski sistematiko batez erabili izan duena, oinarritzat hogeit urteko zikloa hartuz (1997, 159). Baina autore honen baitan ere bada nahasketarik, zeren, belaunaldiarekin batera eta alboan, beste kontzeptu batzuk ere erabiltzen baititu, hala nola hazaldia eta labealdia, beharbeste bakoitzarena gehiegi mugatu gabe. Honek guztiak, noski, belaunaldiaren kontzeptua argitzea eskatzen du eta horretarako ezinbestekoa egiten zaigu tradizio soziologikoan nola ulertua izan den jakitea.

Euskal literaturatik aparte, XIX. mende-bukaerako euskal arteaz jardutean ere belaunaldien kontua agertzen da, zehazki “98ko belaunaldiaz” hitz egiten denean (Kortadi, 1985, 343), hor sartuz korrante desberdinetako autoreak: inpresionistak, modernistak eta sinbolistak. Era berean, ekonomiaren sailean ere, euskal mugimendu kooperatibistaren berri emateko orduan (Gorroño, 1985, 114), belaunaldiaren kontzeptua agertzen da lanaren izenburuan bertan, zeina Jose Maria Arizmendiarrarekin Arrasaten 1943ko urrian hasten den lagun-taldearekin identifikatzen baita.

Honekin esan nahi dena da, belaunaldiaren kontzeptu hau, literaturari buruzko azalpenetik harago, beste sailetan ere aplikatua izan dela eta guk ere, erabilera hori aintzat hartuz, literatura hutsa baino harago zabaltzen den kulturaren esparruari aplikatuta azalduko dugula belaunaldiari buruzkoa, nahiz eta, hemengo jarduna, gehienbat, idatzizko testuari atxikia egon. Honela egitean, edozein motatako sorkuntza –literarioa nahiz pentsamenduzkoa– barne-hartzea lortzen dugu, zenbait kritikariren ikuspegi miopeari baizik ez baitzaio zor, idazleen belaunaldiaz jardutean, kontzeptu hori soilki literaturaren esparrura mugatzeko mania. Hainbaten irizpideak ontzat hartu beharko balira, Axular batek nekez luke sarbiderik EIEEn, nola eta haren saiakerari ez zaion aitortzen literatur prosaren kategoria.

Dena den, gu hemen euskal kulturara mugatuko gara zentzu zabalean eta, hertsiaigoan, euskal literatura deitu ohi zaionera. Gure ikerketa-lana burutzeko, hiru motatako iturriak izan ditugu aurrean, hots, liburuak, artikuluak eta bildumak, hauetan egileak, kultur gertakariak –orobat literarioak– azaltzerakoan, zuzenean edo zeharka, nor gehiago nor gutxiago, belaunaldiaren kontzeptuaz baliatzen baitira.

Sarrera honen bukaeran berriro hasierara gatoz, eta galdezka. Euskal letretan egiazki belaunaldi berri baten aurrean aurkitzen ote gara? Belaunaldiaren kontzeptuak operatiboa izaten segitzen al du hipotesiaren abiapuntuan ezartzen den kultur eta literatur aldaketa horren prozesua adierazteko? Egokia al da, noiz eta gaur, euskal letren baitako belaunaldien zenbatgarrenaz galdetzea?

Galdera horiei erantzuteko, noski, urrats bat baino gehiago dira eman beharrekoak. Guk, oraingoz, lau pausaldi egingo ditugu azterbide honen bidean. Hasteko, belaunaldiaren kontzeptua tradizio soziologikoan nola eraikia izan den eta eskola bakoitzak nola ulertzen duen

aztertuko da. Soziologia eta filosofiatik abiatuz, ibilaldi historiko xumea egingo dugu, kontzeptu hori egun zein neurritan den, edo izan daitekeen, baligarria azterbide gisa kulturaren soziologian eta literaturaren historian. Ondoren, euskal letren tradizioan zein zentzutan erabilia izan den arakatzera pasatuko gara, sostengu teoriko jakin baten gainean oinarrituta, ala inolako aurre-azalpenik gabe, alegia. Eta ekinaldi honetan, bigarren ataLEAN, euskal kulturari buruzko iturri historiografikoetan periodizazioaren arazoa nola landua izan den ikusiko da, bidenabar, belaunaldien erabilera ere jasoz. Hurrengo ataLEAN, periodizazioaren arazoa euskal literaturaren historian nola azaltzen den aztertuko da. Azkenekoan, aurreko ataletan jasoa sailkatuz gero, zenbat belaunaldik errebindicatzen duten beren izateko arrazoia azalduko da. Jakina, gure azalpen honetan, erantzun borobilak baino ugariagoak izango dira galderak eta duda-mudak. Arazo honek oraindik areago ikertzen segitzea merezi duen seinale.

Liburu honetan, belaunaldiaren arazoari lotuta, periodizazioarenak hartzen du garrantzirik gehien. Baina gai hau harrotzean ez dugu geratu nahi izan kultur gertakarien sailkapen kronologikoarekin edota belaunaldien zerrendaketa hutsarekin. Hortik askoz harago, barrurago, jo eta, euskal kulturaren soziologia edota euskal literaturaren historia nola egituratuak, azalduak eta arrazoituak izan diren arakatzera izan da gure jomuga. Agian, testu batetik bestera, edo kultur gertakari berberaren aurrean, errepikapenik agertuko da, baina ez debaldetan, egile desberdinen arteko kontrasteak agerian gera daitezten baizik. Azterbide honek, iturriak argitalpenen ordena kronologikoaren arabera aipatuz etorri ahala, irakurketa pausatuago eta ohartunagoa egitera behartuko gaitu. Ez nahitaez gehiago jakitera, dakigunaz kritikoagoak izatera baizik, kritika baita, inoren gustuko lana ez bada ere, ja-

kintza aurrerarazten asko lagun diezaigukeen tresnarik finenetako bat, egun ahaztuxea daukaguna.

Euskal literaturaren historiatik euskal kulturaren soziologiarako bideari ekin nahi izan diogu, jarraipena beste saio batean izango duen esperantzarekin.

Paulo Iztueta Armendariz

I. Belaunaldiaren kontzaptua tradizio soziologikoan

Belaunaldiaren nozioa aipatzearekin batera, bizitza, heriotza eta giza erreprodukzioa datozkigu gogora. Izan ere, giza espezieak, beti bere mugekin eta bere betikotasunaren egarriarekin borrokan, horiek ditu bere betiko arazo nagusiak. Horregatik, belaunaldiaren kontzeptua, Soziologian lantzen hasi baino lehen ere erabilia izan zen, Greziako literaturan bezala Egiptokoan, Biblian eta semiten literaturako hainbat dokumentutan, orokorrean zentzu biotikoan ulertuta. Giza espezieari dagokionez, berriz, gurasoen eta bere ondorengoen arteko denborartea adieraztera mugatzen da soilki. Erabilera murriztu du, beraz.

Belaunaldiaren fenomenoak zentzu hertsiki soziologikoan hartuta, ordea, XIX. mendeko lehen hamarkadetan hasten da garatzen, modernitateari sorrera ematen dioten orduko giro intelektual eta politikoak eraginda. Geroztik, gogoeta soziologikoan gero eta arreta gehiago eskaini ahala, kontzeptu hori gizarteko errealitate-mota desberdinak aztertzeko erabiliko da, hala nola eraldakuntza sozialak, politikoak, ekonomikoak, edota, berdin, sor-kuntza intelektual eta artistiko berriak, edo literarioak.

Belaunaldi baten zapiak ezkututzen duena, kolektibo baten obrak noiz-nongo jakinetan kokatze hutsa baino harago doan zerbait da. Zer den? Hauxe azaltzea da, hain zuzen, gure gogoeta-gaia.

Goian esan bezala, belaunaldiaren kontzeptua giza bizitzaren errealitateari atxikirik baitator, ezin du bere esanahi osoa hartu ez bada bere testuinguruan, ezin da ulertu haren esanahia ez bada egitasmoko historiko batean kokatzen. Egitasmoko historiko hauek aldatuz etorri dira egile eta garai desberdinen arabera, garai bakoitzak bere arazo bereziak baititu. Horregatik, belaunaldiaren kontzeptuak, beste hainbat kontzepturen antzera, bere eboluzio historikoa izan du eta, XIX. mendetik hona, pentsamendu soziologikoan agertuz eta garatuz etorri diren teoria edo eskola desberdinen arabera, kontzeptu horri buruzko ikuspegi desberdinak landu izan dira. Guk geure ibilbide honetan lau eskola aipatuko ditugu, besteak beste, honako hauek: eskola positibista –hasieran bere erroak bereziki Frantzian dituena, nahiz geroago jarraipena tekno-funtzionalismoak emango dion Estatu Batuetan–; eskola historiko-erromantikoa eta eskola historiko-soziala –biok gehienbat Alemanian landu izan direnak eta zeharka Espainian–, eta, azkenik, eskola etnologiko-antropologikoa, azken hau nagusiki Europan eta Estatu Batuetan ingeles jatorriko tradizioan finkatu eta errotu izan dena.

Belaunaldiaren kontzeptuari buruz jardutean, bada, egiazko genesi baten aurrean aurkitzen gara eta komeni zaigu, gaurko egoera argitzeko, aurrekoen eta gaurkoen ekarpenak ezagutzea.

Eskola positibista

Eskola honen zuhaitzak, arestian esan bezala, bere erroak Frantzian botatzen dituen arren, batez ere, Dromel, Soulavie, Comte eta Mentré-rekin, haren adarrak

Europar zehar ere barreiatuko dira, hala nola Italian Ferrari-rekin, Austrian O. Lorenz-ekin, Ingalaterran J. S. Mill-ekin eta Alemanian G. Rümelin-ekin.

Justin Dromel-ek (1862) "belaunaldi politikoaren" kontzeptua lantzen du, aztergaitzat hartuz politikagintza aktiboan dagoen 25-65 urte-bitarteko gizon-emakume baten epealdia. Abiapuntutzat hartuta eboluzio sozio-historikoaren motorra segidako belaunaldien arteko oposizioan datzala, aldaketan legeak eta erritmoak oinarri demografikoen baitan ezartzen ditu. Politikagintzaren bizi-iraupena bi arotan zatitzen du: bata goranzkoa da, behezko beste, hurrenez hurren, segidako belaunaldiei dagozkienak. Frantziako populazioaren 1856ko datuak hartuta eta, batezbeste, bi belaunaldiak banatzen dituen muga 41 urtekoa dela aurrez emanda, ageri da goranzko belaunaldiak hamasei urte irauten duela, eta hortik aurrera segidako belaunaldia datorkiola bere jokatzeak kritikatu.

Auguste Comte-arentzat (1908), populazio-mugimenduak, hauen hazkunde eta dentsitateak giza espirituaren hobekuntzan duten eraginaren adierazle diren bezala, belaunaldien berrikuntza-erritmoak aurrerapen-erritmoaren neurria ematen du. Gizateriaren bata besteari segidako urratsek gizakien etengabeko eta mailaz mailako berrikuntza suposatzen dute, eta hau belaunaldi bakoitzak hurrengoarengan duen eraginaren ondorioz gertatzen da. Aurrerapenaren erritmoa aldatzen denaren eta irauten duenaren arteko oreka zuzenak markatzen du. Gazteek berrikuntzarako agertzen duten indarrak dakar aurrerapena, helduek, zahartzen doazen heinean, kontserbatorismoa joera erakusten baitute. Comte-ek belaunaldiei eta hauek gizarte-aurrerapenean jokatzen duten egitekoari buruz duen ikuspegia, haren historiaren filosofian eta zientzien teoriarik kokatu behar da. Segidako belaunaldien jarraitasuna azpimarratzen du, eta ikuspegi

hori historiaren filosofian sartzen da, zeinaren arabera armoniaren printzipioa aplikatzen baita pentsamenduaren historiaren, zientzien historiaren eta gizartearen historia orokorraren artean. Belaunaldi baten bizi-etapak gizarte-aurrerapenaren antzekoak –analogoak– zaizkio: haurtzarora feudalitatearekin berdintzen du, gaztaroa iraultzarekin, heldutasuna positibismoarekin. Giza historia giza izaeraren garapenarekin nahasten da. Historia honek zentzu bat du, eta hori aurrerapena da, eta honek nahitaezko lege batzuei obeditzen die. Lege hauek jatorri biologiko eta enbriologikoa dutenak dira.

Harenean zer kritikaturik baden arren, asko dira haren teoritik zenbait elementu jaso eta landu dituztenak, horien artean Simmel eta Durkheim. Azken honen (1993, 45) ere belaunaldien kontzeptua erabiltzen du hezkuntza definitzerakoan, esanez berori “belaunaldi helduek oraindik gizarte-bizitzarako beharreko den heldutasun-maila lortu ez dutenengan duten eragina” dela. Gazteek horrela jasotzen dituzte, belaunez belaun, zaharagoen ondare intelektual eta moralak, gizarteak eskatzen dizkienak bere ingurune espezifikoan txertatuz joan daitezten.

A. A. Cournot-en (1973) historiari buruzko ikuspegiak urrats garrantzitsua suposatzen du metodo historikoaren eboluzioan. Ohartzen da erromatarrentzat, adibidez, mendearen kontzeptua, ez datazio eta kronologia metriko bati, baizik, batez ere, egiazko eten bati dago-kiona dela. Cournot-ek, XIX. mendeko errealitate demografikoa oinarritzat hartuta, hiru belaunaldi bereizten ditu, orduan lauokak ez baitziren ohikoak. Comte-k jarraitasuna aurrerapenean baloratzen duen bezala, Cournot-ek aldatetak azpimarratzen ditu.

François Mentré-k (1920), bere aldetik, belaunaldien hamar urteko ibilaldia proposatzen du. Beraz, hamar urtetik hamar urtera agertuko litzateke belaunaldi

berria eta hogeita hamar urte iraungo luke bakoitzak, zeinaren ondorioz, une jakin batean, belaunaldi bat baino gehiago koexistituko bailirateke. Hogeita hamar urteko iraupena duen epealdi soziala aurkezten du berak, 30-60 urte-bitartekoek osatzen dutena. Famili aroarekin eta familiaren baitan segidako bi belaunaldikoak banatzen dituen tartearekin batera datorren epealdia da. “Belaunaldi historikoaz” ere hitz egiten du, horrekin aditzera emanez sorkuntzako aroak, loraldikoak –gizon-emakume ospetsu ugari sortzen direnekoak, nolabait esateko–; belaunaldi bateko gidariak, heroiak edo profetak dira horiek. Baina badira, horiek ez bezala, antzuak eta, hein batean, sakrifikatuak diren aroak ere. Hauek trantsizioak genituzke, epealdi ilun eta nahasiak, bi belaunaldi historikoen artean bitartekariena egiten dutenak. Aro batzuetan, gizon-emakume handi hauek taldeka agertzen dira, Cournot eta Dilthey-ek ere esan bezala.

G. Ferrari-k (1874), Frantzian bizitako italiar egileak, historiako bi mila urteko epealdia aztertzea hartzen du xedetzat, eta horretarako epeak belaunaldien arabera banatzen ditu. Belaunaldi baten iraupena hogeita hamaika urtera mugatzen du, bere ustez, denbora-tarte hori nahikoa delako egiazko gizarte-aldaketak gerta daitezen. Lau belaunaldi bateratuz osatuko litzateke ziklo historiko bat, ez hiru Cournot-ek egin bezala. Honela, bideak irekiz datozen aitzindarien ondoren, iraultzaileak letozke, gero erreakzionariak eta, azkenik, erabakitzaileak. Lau belaunaldi hauek bateratuta, ondorioz ateratzen da historiaren ehuna ehunda hogeita bost urteko epealdi etengabearen errotan doala hariltzen. Nabarmentzekoa baita puntu hau, zehaztu behar da, autore honen ustez, gizartean ematen diren aldaketak oro –filosofikoak, zientifikoak, literarioak, artistikoak– faktore politikoei darizkienak direla. Politika da, beraz, historiaren trenari eragiten diona.

Autore positibisten kezka, orotara hartuta, mugimendu historikoak neurtzeko obsesioa da, eta horretarako, “historiaren metro” gisa, itsu-itsuan belaunaldiaren kontzeptuaz baliatzen dira. Attias-Donfut egileak (1988, 43) oharrarazten duen bezala, belaunadiatz ematen dituzten definizioetan ahaidetasunezko jatorria eta gizakiak duen bizi-iraupen mugatuaren alderdi biologikoa, alderdi biok bateratu edo nahasten dituzte, edota soilki azken datu horretan oinarritzen dira. Kasurik gehienetan ez dute kontuan hartzen belaunaldi biotikoa eta soziala ez direla gauza bera, edota ez datozela beti batera. Garapen soziohistorikoaren erritmoa gizakiaren adin biologikoaren arabera mugatzen da. Horrela, gizartean gertatzen diren aldaketak oro, nola kulturalak hala sozopolitikoak, faktore biotikoetan oinarrituta interpretatzen dira. Aurrerapenaren neurri-batasuna eta beronen mailak belaunaldien ideian aurkituko dituzte. Aurrerapenari buruzko ikusmolde hori, gainera, lerrobakarrekoa izango da, belaunaldien joan-etorrian garatuz datorrena. Dromel, Soulavie eta Benloew-en ustez, orokorrean, hamabost edo hamasei urteko aldiak adieraz dezake belaunaldi baten iraupena; Gustav Rümelin-ek (1896), aldiz, hogeita hamahiru urtetik hogeita hemeretzi urte-bitarteko iraupena ezarriko du. Bada alderik.

Eskola historiko-erromantikoa

Eskola hau Alemnian sortu zen aurrekoaren garai bertsuan. Esan daiteke ia puntu guztietan frantses positibisten kontrakoa dela. Positibistek uste zutenaren kontra, eskola honetakoak garapen historikoa ez dela lerrobakarrekoa agertzen ahaleginduko dira. Hauentzat belaunaldia modu kualitatibo batez bizi daitekeen zerbait da, barne-denborari dagokion kontzeptutat hartu behar

den zerbait. Belaunaldien eduki historikoa azpimarratuko dute.

Eskola honen buru nagusia Wilhelm Dilthey (1947) da. Honen metodo historikoa gizakia historiarekin harremanean jartzean datza, ideien garapena gizakien arteko harremanen eta beren inguruaren argitan irakurtzean, alegia. Honentzat, giza bizitza eta honi datxekion belaunaldien kontzeptua dira zientzia moral eta politikoan historia eraikitzeko bitarteko teorikoak. Belaunaldiak gizabanakoen garaikidetasuna adierazten du. Hau batetik, baina bestetik, batik bat, belaunaldi bereko partaideak elkartzen dituen kualitatibozko loturan ezartzen du bere arreta, ohartzen baita eragin eta egoera bertsuak batera bizi izan dituztenak elkarrengandik hurbilago daudela. Hauek izango dira, bada, belaunaldi bera osatuko dutenak. Belaunaldi baten produkzio intelektualean eragina duten baldintzek –belaunaldi bat eratzen den unean aurkezten diren horiek, alegia–, parte hartzen dute belaunaldi baten osaketan, berak “kultura intelektualaren aktiboa” deitzen dienak. Baldintza hauen ondotik, beste bigarren batzuk datoz, hala nola ingurunea, gizarte-zirkunstantziak, politikoak eta bestelakoak, bereziki, gertaera intelektual berriak. Baldintza hauen guztien barruan, hauen eraginpean sortu eta eratzen da gizabanakoen multzoa edo talde koherentea, homogeneoa, elkarri atxikiak irauten baitute aurrean dauzkaten gertaera eta aldaketa handien artean.

Beraz, harena laburtuz, belaunaldiaren kontzeptuak bi alderdi barne hartzen ditu: positibisten kasuan bezala, ez bide du adierazten soilki denbora-iraupena edota giza bizitzaren barne-neurria, baita, aldi berean, adin bertsuko gizabanakoek beren heziketa-garaian dituzten eragin eta harremanen multzoa ere. Honela, eskola hone-takoek belaunaldi baten baitan hiru elementu bateratzen dituzte: lehenik, lehen ikuspegi genealogikoaren arabera,

hogeita hamar urteko zikloa ezartzea, bigarrenik, garai-kidetasun eta adinkidetasunaren kontzeptuak areago zehaztea eta, azkenik, belaunaldien arazoa giza bizitzarekin elkartzea.

Hiru alderdi horiek argitzea beren alde doan zerbait da; baina ez dituzte aintzakotzat hartuko ez alderdi biotikoak ez faktore sozialak, hauek ere bere zerikusia dutenak belaunaldien kontzeptuarekin. Maila biotikoa, soziala eta mentala nahastu izana, beraz, beren kontra doan zerbait da. Eskola positibistak sobera nabarmendu zuen bezala belaunaldien fenomenoaren alderdi biotikoa, eskola historiko-erromantikoak bere arreta osoa alderdi historiko-kulturalean ezartzen du, soilki hor. Zentzu batean urrats garrantzitsua ematen badu ere, Jansen-ek (1977, 23-26) dakarrenez, ez da iritsiko belaunaldiak zein testuinguru jakinetan agertzen diren zehaztera, haren ikuspegia gizabanakoen bizitzan edo, gehienez ere, gizabanakoen arteko koexistentzian oinarritua dagoelako, hain zuzen.

Eskola soziohistorikoa

Ikuspegi hau, aurreratuen eta, metodologiaren aldetik, Soziologian sonatuena, XX. mendeko bigarren eta hirugarren hamarkadetan lantzen da. Pentsamendu filosofiko eta soziologikoan aurreko teoria biotikoa zein historikoa gainditu eta, gizartearen, historiaren eta giza bizitzaren azterketari lehentasuna ematen zaionean, orduan bakarrik garatu ahal izango da eskola honen ikuspuntua, Soziologian Mannheim-ekin, eta Filosofian Jose Ortega y Gasset eta honen jarraitzaile Julián Marías-ekin.

Mannheim-ek (1972) belaunaldiaren kontzeptura hurbiltzeko bi joera bereizten ditu: batean positibistak aurkitzen dira, historiaren erritmoak aztertzeko orduan

arazoa ikuspegi kuantitatibora murrizten dutenak, eta bestean erromantiko-historikoak, neurketa matematikoari uko eginez, aintzakotzat soilki barne-denbora hartzen dutenak ikuspegi kualitatiboari lehentasuna emanaz. Honek, bere aldetik, belaunaldien arazoa historizismoan eta ezagutzaren soziologian oinarrituta planteatzen du eta, zentzu honetan, bai F. Mentré bai Ortega-rekin baditu hainbat puntu batera. Baina berak beste bide bat hartzen du, bi puntu hauetan bederen besteengandik urruntzera daramana. Lehenik, erritmo historikoak eta segidako belaunaldienak disoziatu egiten ditu, bere ustez belaunaldiaren errealitatea ez baita historian zehar epealdi erregularren arabera ematen omen diren belaunaldien erritmoaren esanekoa; bigarrenik, belaunaldiaren kontzeptuak, zeina gizarte-aldaketa ulertzeko oinarritzeko baita, gizarte-prozesuak eta fenomeno hori egituratzen duten gizarteko elkarrekintzak ikertzea eskatzen du eta, hala egitean, ildo soziologikoari heltzen dio.

Belaunaldiaren nozioa ulertzeko hurbilketa urratsez urrats egiten du eta, azkenean, lau belaunaldi-multzo bereizten ditu, elkarren osagarri direnak: hasieran soilki potentziala den belaunaldia, “belaunaldi eraginkorra” izatean gauzatzen den azpi-multzo bilakatzen da; eta honek, aldi berean, “belaunaldi-unitateak” sortzen ditu eta hauen baitan, azkenik, “talde konkretuak” aurkitzen dira. Belaunaldi batetik bestera pasatzea gizarte-prozesuek baldintzatzen dute, tartean sartzen direlarik gizarte-aldaketak eta gizarteko elkarrekintzak. Hara nola gertatzen den hori guztia zehaztasunez azaldua. Lehena: Belaunaldi “potentzialekoa” izatea erritmo biologikoan oinarritzen da, iraupena mugatua du eta zahartu egiten da; erro biologiko horretatik, ordea, ezin dira ondorioak atera. Bigarrena: Ezin da hitz egin “belaunaldi eraginkorraz”, belaunaldi bateko partaideen artean lotura bat sortzen den neurrian ez bada. Eta lotura hori sortu,

desestabilizazioak eragindako prozesu dinamikoaren zantzuzko sozial eta intelektualak agertzen direnean sortzen da. Honek esan nahi du beharrezkoa dela aldaketak egotea belaunaldi eraginkor baten lotura sortzaileak gauza daitzezen. Hirugarrena: Belaunaldi eraginkor bakoitzean, hainbat unitate desberdinak eta antagonista kausitzen dira, “belaunaldi-unitateak” deitzen zaienak. Eta unitate hauetako partaideak elkarri lotuak daude funtsean integratzaileak eta gizartean sozializazio-indarren printzipio gidariak diren jarreraren bidez. Nolabait esateko, komunitate espiritual moduko bat osatzen dute eta, nahiz eta lekuz banandurik egon, nolabaiteko kidetasuna erakusten dute beren bizipenetan. Laugarrena: Jarrera integratzaileak –ideologiak–, talde konkretuetan sortzen dira, elkarren eraginpean eta, honela, unitate zabalago baten indar eratzailea izatera iristen dira. Azken batean, aldaketa-prozesua –eta hau da Manneheim-ek lantzen duen oinarritzko kontzeptua–, adin-talde berriak etengabe sortzetik –metatutako kultur ondarearekin “harreman berria” izatetik–, datorrena da. Ideiak, balioak, portaerak belaunaldien bidez aldatuz joaten dira, hots, gizarteko eszenategian partaide berriak sartu eta zaharrak desagertzearen ondorioz. Bi faktore hauek dira gizartearen etengabeko “gaztetzea” ziurtatzen dutenak, kultur transmisioan hautaketa ohartua eta ohargabea egiten dutenak. Garrantzitsuena bere ikuspuntuan, belaunaldi bakoitzak zer-nolako gizarte-posizioa daukan jakin eta zehaztea da.

Espanian José Ortega y Gasset eta Julián Marías dira eskola honetan nagusitzen direnak, bakarka azalduko ditugunak, lehen aipatuaren kasuan arreta berezi batez, eta hau bi arrarazoi hauengatik: batetik, espainiar nazionalismoaren eraikuntzan haren pentsamendua oinarritzkoa delako, eta, bestetik, gure garaikoek haren lanak asko irakurri dituztelako. Horregatik, zuzenean ez bada zeharka, harenak izan du gurean eraginik. Dena

den, jakitekoa da haren pentsamendua zein neurritan den bere-berea, edota oinarrizkoena, neurri handi batean, beste iturri batzuetatik edana duen. Kritikak argitu duenez, “raziobitalismoa” izeneko haren teoria, neurri handi batean, Alemaniako filosofiatik –bereziki, Dilthey eta Heidegger-engandik– jasota landua da. Espainiar nazionalismoaren kasuan, Pruden Gartzia *Argia*-n (2004a) egoki dioen bezala, funtsean Menéndez Pidal-i jarraitzen dio, nahiz egile horrek berak (2004b, 218-452) bere doktore-tesian dakarren bezala, beren desadostasunak badituzten gaztelaniaren sorrerari buruz.

Belaunaldiaren kontzeptua, zeina oinarrizkoa baita historia ulertzeko, batez ere, *En torno a Galileo. Esquema de las crisis* (1982) eta *El tema de nuestro tiempo* (1987) idazlanetan garatzen du. Azken liburu honetan badator artikulu labur bat, “La idea de las generaciones” deitua, zeinetan lehen urratsak ematen baititu kontzeptu horretaz. Bere asmoa da metodo historiko bat sortzea, zeina, aldi berean, onartua izango baita halabeharrez. Iragana eta etorkizuna lotu nahi ditu eta belaunaldiaren kontzeptua, hain zuzen ere, etorkizuna aurreikusteko lantzen du. Bere ustez, etorkizuna aurreikus daiteke, denbora historikoa ziklikoa delako. Ortega-rentzat, belaunaldi bakoitzak bere errepertorio organikoa du, bere bokazio propioa, bere eginkizun historikoa, eta, aldez aurretik finkatutako egitekoa duen aldetik, inperatibo zorrotzaren legera jotzen du. Honi guztiari boluntarismo espiritualista baten usaina dario, “destino-batasuna unibertsalean” esaldi falangista haren oso airekoa. Ez al da, bada, egia Ortega-rengan inspiratu zela J. A. Primo de Rivera? Jakina, hau esatean, hemen Ortega-ren hizkuntza idealistaz ari gara, zeina Espainiako diskurtso liberalkontserbadorean sustraitua baitzegoen.

Beste liburu batean, *En torno a Galileo* izenekoan (1982), Madrilgo Complutense-n 1933an emandako lau

hitzaldi biltzen dira, lehen aldiz 1947an argitaratu zirenak, eta horietako bitan itzultzen da berriro belaunaldiaren kontzeptua aztertu eta sakontzera. Lehen hitzaldian, “La idea de generación” deituan, ageri da belaunaldiaren kontzeptua ez dela haren pentsamendu filosofikoan zerbait isolatua, haren filosofiaren oinarritzko elementua den “bizi-arrazoiarekin” harreman ertsian dagoen zerbait baizik, zeinaren bidez lotura antzeko bat egiten baitu bizitza historikoaren eta kulturaren artean. “Bizi-arrazoia” (*razón vital*) da ezagutzaren giltza, “arrazoi hutsaren”, hots, fisiko-matematikoaren gainetik dagoena. Eta hala da, bizitza bera halaxe delako. Eta nola giza bizitza historikoa den, “bizi-arrazoia” ere historikoa da. Ortega-rentzat, bada, belaunaldia kronologia historikoaren unitatea da. Historiak belaunaldien bidez egiten du aurrera. Belaunaldi bateko gizon-emakumeen arteko kidesuna etorri, forma bera, ikusmolde-sistema bera (*sistema de vigencias*) duen mundu batean bizi beharra izatetik datorrena da. Hemen oinarritzen da, hain zuzen, Ortega-k, belaunaldiaz ari dela, garaikidesunaren eta adinkidesunaren artean ezartzen duen bereizketa. Lehenengoak denbora berean bizi diren guztien errealitatea adierazten du, hor sartuz adin-mota desberdinak, hots, gaztaroa, helduaroa eta zahartzaroa. Bigarrenak, aldiz, adin berekoena adierazten du. Guztiok mundu berean eta aldi berean bizi gara, baina, gertatzez, adinkideen artean bakarrik ematen da adostasuna. Bi horien arteko tenkak dakar, hain zuzen, berak “historiaren oinarritzko anakronismoa” deitzen dion hori, eten hori baita bizitzan aldaketak dakartzana. Beraz, Ortega-ren (1982, 45-46) baitan, belaunaldiak bi ezaugarri hauek ditu: batetik, adin bera izatea (denboradimentsioa) eta, bestetik, bizitzarekin harremanean egoatea (espazio-dimentsioa). Bestalde, gizon-emakumeen bizitza hiru adin-multzotan banatzen du: lehen adin-multzoa 30 urte-bitartekoa da, zeinetan gizakiak mundua zer

den ikasten baitu; bigarren adin-multzoa, 35-45 urte-bitartekoa da, eta hor berak aurkitutakoaren aurka jaikitzen da, ideia berriak asmatzen ditu eta zabaltzen, bere sorkuntzak bere adinkideekin partikatzen; hirugarren adin-multzoa, 45-60 urte-bitartekoa da, eta hor berak sortutako munduari eusten dio, zuzentzen du, gobernatzen eta defendatzen. Beraz, gizaki historikoa bigarren eta hirugarren adin-multzokoei dagokiena da, zeinek 30-60 bitarteko urteak hartzen baititu. Bi adin-multzo hauek batzuek belaunaldi baten barruan sartu izan dituzte, baina, Ortega-ren (1982, 45-50) ustez, oker. Bi etapa desberdin dira, hamabots urtekoa bakoitza, eta berdin gertatzen da zientzian nahiz artean eta politikan.

Ortega-ren jarraitzailea den Julián Marías-ek *El método histórico de las generaciones* liburuan (1970) lantzen du gai hau, geroago *Generaciones y constelaciones* liburuan (1989) eguneratuta berrargitaratu zena. Hau ere, Ortega bezala, belaunaldiaz jardutean, ikuspegi biologista ezeztatuz hasten da. Bere asmoa belaunaldiei buruzko teoria bat eskaintzea da, hura metodo historiko bati dagokion kontzeptu eta printzipio gisa hartuta. Hasierako bere azalpen historikoan, Dilthey, Mentré, Piner, Wechsler, eta beste batzuen teoriak kritikatzten ditu, esanez ez direla gauza izan kontzeptu hori, esparru indibidualetik atera eta sozialean txertatzeko. Bereizketa horretan oinarriten da bere ikuspegia, berak egia aprioristikotzat daukana. Ortega-rentzat bezala Marías-entzat (1989, 164), belaunaldiak ez dira teoria bat, errealitate bat baizik. Dena den, belaunaldien arazoaz luze jarduten badu ere, ez dakar berritasunik. Maisuaren itzala albotik ezin kendu duelako, agian.

Belaunaldiak zer diren esan ondoren, historian zehar nola funtzionatzen duten esplikatzerara pasatzen da eta, hemen, kontzeptu horrek barne-hartzen dituen lau elementu aipatzen ditu (1989, 28-89). 1) Belaunaldiek

gizarteari zein historiari dagozkien egituretan parte hartzen dute. Testuinguru hau da matriza. Honek adina mugatzea dakar, adin bera dutenen noiz-nongoa identifikatzea, belaunaldi jakin baten lekua gizarte-egituretan kokatzea eta belaunaldiaren egitura zertzea. 2) Edozein une historikotan garai berean bizi diren belaunaldien presentzia esplikatuz behar da, eta honek, bidenabar, garaikidetasuna eta adinkidetasuna kontuan hartzea eskatzen du eta horien arteko harremanak aztertzea. 3) Belaunaldiak dira historiari eragiten dioten indar emaileak eta funtsean historikoa den gizartearen egiturak, azken batean, koexistituz eta gainjarriz doazen belaunaldi desberdinen arabera funtzionatzen du. Honela esplikatzen da historian zehar aldaketak, berrikuntzak, jarraitasuna, desjarraitasuna, komunikazioa, inkomunikazioa, krisiak, etab. izatea; 4) Belaunaldi baten iraupenaz kalkulu finko eta zehatzik egitea ezinezkoa den arren, hamabots urteko zikloa unitate aski eragingarria izan daiteke, garapen soziohistorikoan aldagai gisa, giza bizitzaren azterketa estrukturala egin ahal izateko. Une historiko jakin batean hirurogeita hamabost urteko epealdia hartu eta hori hamabots urteko ziklotan zatituz, ondorioz ateratzen da bost belaunaldi koexistitzen direla gizarte-egitura, honela banatuta: haurtzaroa (1-15); gaztaroa (15-30); iniziazioa (30-45); nagusitasuna (45-60); zahartzaroa (60-75). Hauetako bakoitzak dauzka bere ezaugarriak. Iniziazioari dagokion belaunaldia da gorantz doana eta bere aurreko kontserbadurismoarekin gatazkan sartzen dena. Prozesu hau gaztaroan hasten da, baina areagotu egiten da hirugarren bizi-ziklo honetan. Gizartean agintzen dutenak, ordea, laugarren belaunaldikoak dira.

Nolanahi ere, bere ustez (1989, 32-45), belaunaldia eman dadin, hiru baldintza hauek bederen bete behar dira:

Lehenik, denboraldi jakin batekoak izatea. Berez, belaunaldi bateko partaideak garai bertsuak dira,

baina honek ez du esan nahi garai berean bizi diren guztiek belaunaldi bat osatzen dutenik, ez baitira adin berekoak. Gazteak eta helduak koexistitzen dira. Mannheim-ek (1964, 290) ezarri bezala, abiapuntutzat hartuko balitz adinkidetasuna –urte berekoak izatea–, orduan sekulako anabasa sortuko litzateke, urtero-urtero belaunaldi berri bat agertuko bailitzateke, eta horrela *ad infinitum*. Halere, adin biotikoa ezin da ahaztu, azken batean jaiotza baita adina mugatzen duena. Baina hemen nabarmendu nahi dena da –oinarrizko oharra hau–, faktore biotikoetatik ezin dela ondorioz atera belaunaldien fenomenoak. Horregatik, faktore biotikoez gain, datu soziologikoa ere kontuan hartzekoa da, zeinaren arabera koexistitzen diren belaunaldi desberdinen artean aldi berean bizi direnak –garaikideak– eta adin berekoak direnak eta bizitzeko estilo bertsua dutenak –adinkideak– bereizi beharra baitago. Belaunaldi bat, beraz, nahitaez adinkideez osatua dago.

Bigarrenik, testuinguru historiko jakin bati atxekirik egotea. Honek esan nahi du adinkideak testuinguru jakin baten barruan bizi direla. Adinkideak beren inguruko zirkunstantzien sarean sartuta daude eta zirkunstantzia horiek etengabe interpretatzen ari dira. Belaunaldi berri bat agertuko da, hain zuzen, adinkide jakin batzuek, beren zirkunstantziak interpretatzeko orduan, ikuspegi bera edo antzekoa erakusten dutenean edo, bestela esanda, mundu-ikuspegi bertsua daukatenean. Horregatik, adinkideek beren mundua modu partikular eta jakin batez ikusiko dute. Ikuspegi komunak dituzte.

Lehen esan da garai bereko belaunaldiak “gainjarrita” daudela; baina neurri batean bakarrik, zeren, nahiz eta hala egon, sineste absolutu berberak baitituzte eta sakonean beren ikuspegiak ez baitira desberdinak.

Hirugarrenik, bizi-estilo jakin bat izatea. Hau, batik bat, kultura sailean islatzen da, arteetan, berrikuntza

tekniko eta zientifikoetan, eta horrelakoetan. Bizi-estilo hauxe da, hain zuzen, belaunaldi berri baten sorrera gehien zertzen duena.

Baldintza edo elementu hauek osatuz gero, posible da belaunaldiaren kontzeptua definitzea, berak (1989, 45) honela egiten duena: “Belaunaldia da zirkunstantzia berberak bizi dituzten adinkideek garatutako ikuspegienez gizarte-multzo jakina”.

Ikuspegi horiek –bereziki Ortega-renak–, bere kritikak jaso izan dituzte. Ez gutxi eta ez makalak, gainera. Eduardo Mateo Gambarte-k (1996, 65-81) ondoko sei objektio potolo hauek egiten dizkio: 1) Errore bat da pentsatzea historiak belaunaldien bidez egiten duela aurrera, zeren ezin baita ondorioz atera, suposizio faltsua delako, bizitza indibiduala modu indibidualez transmititzen den bezala, bizitza kolektiboa ere modu kolektiboz transmitzen dela. Harremanean jartzen diren bi errealtate horiek –gizon-emakumeen dimentsio indibiduala eta kolektiboa–, ez dira inola ere ez maila berekoak ez homogeenak. 2) Belaunaldien izaera formala dela esatean, orobat, ez dabil zuzen, zeren, gizarte-errealitatearen edukia ahazteak idealismora eramaten baitu, nahiz berak besterik aitortu edo nahi izan. 3) Hizkuntza subjektibista honek balio dezake dibulgazioko artikuluan batean argitaratzeko, baina ez da batere zientifikoa ikasgela batean azaltzeko, eta gutxiago oraindik historiaren ikerketarako oinarri sendoak botatzeko asmoak dauzkan batentzat. Laburki esanda, bizitzari buruzko ikuspegi organista agertzen du belaunaldiaz jardutean, zeinaren arabera, jadanik alde aurretik hala ezarrita, belaunaldi bakoitzak bere egitekoa betetzen baitu. 4) Bestalde, adina “sentitzeko modu bat” dela esanez definitzen du, eta hala egitean adina sentimendua dela esaten ari da, eta hau, noski, erabat irrazionala da. 5) Belaunaldi bat hamabost urte besarkatzen dituen “daten zona” bat dela, dio, eta

denboraldi honetan zehar, giza bizitzak –izan dadila hau indibiduala, bitala, soziala edo historikoa–, nolabaiteko egonkortasun bati eusten diola, eta, bidenabar, denboraldi hori indarrean dauden iritzi, balorazio eta arauak osatzen dutela. Eta belaunaldiz aldatzean, indarrean zegoen iritzi, balorazio eta arauen sistema hori ere aldatu egiten dela. Baina gertatzen dena da, belaunaldiak aldatzen direnean, iritzi, ideia eta asmoak aldatzen direla, bai, baina sinesteen sistemak lehengoan segitzen duela. Hala segitzen du, Ortega-k aldarrikatzen duen ikusmolde-sistema hori azalekoa eta aldakorra den bitartean, sinestena sakona eta irakunkorra delako. Beraz, hemendik ondorioz ateratzen dena da belaunaldien metodoak azalekoari bakarrik begiratzen diola, aldatzen denari bakarrik; hurbilekoa; gizartean sakonekoa dena, balioez eta sinesteez osatua den sistema hori, ordea, azaltzeke geratzen da. 6) Bestalde, belaunaldiak adin-multzoen harira sailkatzeko orduan, ez data jakin bat, baizik data-zona bat hartu behar omen da kontuan. Baina ez da esaten data-zona horren muga zehatzak non dauden. Apriorismo bat predikatzen du, egiaztatzeke metodo objektiborik ez baitu erakusten. Esaten du, baita ere, adin-multzoak zehazteko, ezin dela abiapuntutzat gizabanakoa hartu, horren izaera soziala baizik. Ederki, baina bere metodoa aplikatzerakoan, Descartes-ek 30 urte bete zitueneko urte-muga bilatzen du, zeina baita 1626. urtea. Eta Descartes, noski, izaki indibiduala da, ez soziala, eta horrela jokatzean, bistakoa denez, bere postulatu guztiak hankaz gora doaz.

Orokorrean esan daitekeena da, Ortega-k belaunaldiak zehazteko darabilen metodo hori, Descartes-enganetik abiatuz geroztiko urte-mugatze hori, erabat zientifikoa dela, erabat kapritxosoa eta fideista; data-zonarena, orobat, erabat teorikoa da; belaunaldien definizioa sentimendua bezalako kontzeptu ez-zientifikoan oinarritzen

da. Ortega-k belaunaldiez egindako irakurketa biologizista da, indibidualista, ikuspegi subjektiboa eta pribatuan oinarritzen dena. Azken batean, idealista da, eta hori zentzu bikoitzean ulertuta: batetik, errealitatea ideiatzat hartzen duelako eta, bestetik, ezagutzari buruzkoa egiazta ezin daitekeen ikuspegi batean oinarritzen duelako. Belaunaldiaz erakusten duen idealismoa, besteak beste, errealitateari kanpokoak zaion elementu batean zehazten da; okerra datza, hain zuzen, hura modu orokor batean antolatzen duela eta, gainera, esanahi intrintsekoa ematen diola. Honela jabetzen gara haren belaunaldiari buruzkoa zerbait artifizialki sortua dela, ezarria, kanpokoak, eta ez prozesuari berari barrutik datxekiona.

Eskola etnologiko-antropologikoa

Gizarte-zientzietan belaunaldiaren kontzeptura hurbiltzeko bidean ikuspegi bat baino gehiago daudela ikusiz gatoz. Ikuspegi estatistikoa nagusitzen den lanetan, datu zehatzak –neurgarriak, alegia–, erabiltzen dira, eta sarritan kohortearen kontzeptua agertzen da belaunaldiaren ordez, harekin adieraziz denbora-tarte berean jaiok direnen multzoa. Ikuspegi soziologikoan, ordea, belaunaldiaren kontzeptua ez da ez kuantifikagarria, ez kodifikagarria; aitzitik, badirudi bere ohiko erabilera nagusian, “espiritualtzat” jo daitekeen komunitate bat adierazten duela. Beste modu batera esanda, bizipenak, ideiak, pentsakerak, munduari eta gizarteari buruzko ikuspuntuak, hauek oro, batera izateari deitzen dio horrela. Historia sozialari eta pentsakeren munduari atxikirik dago, batik bat; adinaren noziotik at dago.

Azkenaldion, 1950eko hamarkadatik aurrera, belaunaldien arazoak jakinmin berriak sortu ditu han eta hemen, norabide guztietara hedatzen direnak. XIX. men-

deko eta XX. mende-hasierako eztabaidak itzali bezala egiten dira eta, historiaren arazoa hobeto ezagutzen joan ahala, belaunaldiari buruzko ikuspuntuak ere finduz etorri direla esan behar da. Gaur, lehengo ikuspegi orohartzaileen lekuan, ikerketa-eremu mugatuagoak hartzen dira aztergaitzat, anbizio teorikoak ere apalagoak dira. Terminologiaren aldetik aldaketarik nabariena, belaunaldiaren kontzeptutik adinarenera ematen den lerrakuntzan datza, batez ere, ikerketa enpirikoetan islatzen dena. Iturri etnologikoen, zehazki, adina eta belaunaldiaren nozioak batera, elkarri hertsiki lotuta, azaltzen dituzte. Hala egiten dute, adibidez, Lowie (1936), Radcliffe-Brown (1929), Margaret Mead (1928) eta Balandier-ek (1974). Iturri hauek, esaten denez, adina zein belaunaldiaren nozioak garbitzea omen dakar, beharrezkoa dena, nahasketa handia omen dagoelako nola Historian hala Soziologian. Afrikan egindako ikerketek ematen dute adinari buruzko kontzeptua zehazteko aski argitasun, han komunitate asko baitira adin-moten zein belaunaldimoten inguruan eraikitako sistema-modu desberdinak aurkezten dituztenak. Nolanahi ere, esan beharra dago, bi kontzeptu horiek ez daudela disoziatuta. Orokorrean esanda, belaunaldi-sistemek, batez ere, belaunaldien segida eta ordezkapena erregulatzeko modu bezala funtzionatzen dute. Belaunaldia hemen seme-alabatasunarekin berdintzen da eta horien sailkatze-lanarekin. Adin-moten sistemak, aldiz, xede bera izanik, menarapen-mota iraunkorrak inplikatzten dituzten hierarkiazko maila osagarriak ziurtatzen ditu. Adinak hemen gizartean haurrak, gazteak, helduak eta zaharrak nola antolatuta dauden erakusten du. Paradigma etnologiko-antropologikoan, batik bat, gizarte-antolaketaaren azterketari ematen zaio lehentasuna, bi maila horiek batera hartuz, hots: belaunaldiarena eta adinarena.

Attias-Donfut egileari (1988, 79-158) jarraiki, orokorrean esan dezakeguna da eskola honetan adostasuna ematen dela belaunaldia, adin-mota eta adin-maila kontzeptu-kideak zehazteko orduan. Belaunaldia erabiltzen da zentzu genealogikoan, gurasoei begira; adin-motak, adin-maila betetzen dutenak adierazten ditu eta normalean adin-taldearekin berdintzen da. Eskola honek bere eragina izan du Soziologian eta gaur egun, batzuetan, definizio etnologikoak ere erreferentzia bezala agertzen dira hiztegi soziologikoan, baina ez belaunaldia zentzu genealogikoan soilki erabiltzen denean. Batzuek adin-mota, kohortea eta belaunaldia bereizten dituzte, irizpidetzat urte-tarteak hartuz: adin-motan, batetik aurrerakoa; kohortean, hamarrekoa; belaunaldian, hamabostetik hogeikoa.

Eskola honek kontzeptukide horien zehaztapenean aurrepausoak eman baditu ere, geratzen dira oraindik behar adina argitu gabeko puntuak. Egia da, Etnologiak eredu erakargarria eskaintzen du, gizartea adinaren arabera nola antolatua dagoen azalduz, gazteen eta zaharren munduan murgilduz. Baina aldi berean esan beharra dago, baita ere, Etnologiak –izan dadila hau funtzionalista, formalista edo marxista–, funtsean, ikuspegi estatikoa eta ahistorikoa duela eta ez dela belaunaldiaren kontzeptuaz baliatzen. Historiara joaten bada, gizon-emakumeak gizartean nola antolaturik dauden jakiteko xedearekin joango da.

Teoriatik praktikara

Teoriak hor daude. Eta horien aplikazioak, zer? Metodo horrekin zer da eginik maila enpirikoan?

Belaunaldiaz aritu diren pentsalariak asko eta izen handikoak izan badira ere, teoria horiek beren idazlanetan

aplikatuak agertzen direneko idazlanak gutxi baizik ez dira, gutxi Literaturan eta Artean bezala Historian ere. Guri hurbilenik zaizkigun erreferentziak baino ez ditugu jorratuko, eta hori azaletik.

Frantzian belaunaldiaren kontzeptua Sainte-Beuve-k sartzen du eta M. Henry Peyre-k (1948) bikain asko iruzkintzen gero. Baina Albert Thibaudet (1936) izango da metodo hau erabiltzen lehena eta bakarra, bere azalpean zalutasun eta zabaltasun aski handiz jokatu. Gerroztik, beste batzuek ere erabili izan dute, hauen artean Marcel Girard-ek (1968). Ez baita erraza autore guztiak eskolen arabera sailkatzea, azken honek, Frantziako literatura modernoaren azalpena egiterakoan, literatur belaunaldiaren noziora jotzen du, zeina osatzen baitu zirkunstantzia historiko berberetan produzitzen hasten direnen taldeak Orokorrean, idazle hauek gutxi-gorabehera adin berekoak edo bertukoak dira, idazten hoge eta hoge eta hamar urte bitartean hasten direnak. Baina ez nahitaez, gerta baitaiteke adin bereko idazleak izanda ere, batek besteak baino eragin handiagoa izaten segitzea ondoko belaunaldiengan. Izan ere, autore batzuek aurrea hartzen diote bere garaiari, beste batzuek, aldiz, uko egiten dioten bitartean. Bestalde, kontuan hartu beharrekoa da noiz hiltzen den, gazterik ala zaharturik. Beraz, elementu guztiok kontuan izanda, belaunaldiaz hitz egiten denean, adierazi nahi dena, hauxe da: mota guztietako gizarte-gertakari berberetan parte hartzen duten eta batera antzeko esperientzia intelektualak bizi dituzten idazleen multzoa dela. Gizarte-gertakariak aipatzean, noski, edozein gizarteren funtzionamenduan eragile nagusiak diren faktoreak sartzen dira, nola soziopolitiko eta ekonomikoak hala kulturalak.

Girard-ek bere idazlanean dakarrenez, Frantzia eta Alemaniaren arteko gerrak zedarrizten du belaunaldi baikoitzaren muga, eta eskema hori Frantziaren kasuari

aplikatuta, hor hiru belaunaldi bereizten ditu: a) 1900ean hogeita hamar urte dituztenena, hots, XX. mendeko lehen belaunaldia; b) 1920ko belaunaldia, hogeia eta hogeita hamar urterekin Lehen Mundu-Gerran parte zutenek osatzen dutelako, “suaren belaunaldia” deitua; c) Bigarren Mundu-Gerrako belaunaldia, 1940an hogeia urte zituztenek osatua, “makien belaunaldia” deitua. Hogeia urteko zikloek osatzen dute, beraz, belaunaldi berri baten sorrera, historiako garai jakin bat modu batera edo bestera ezaugarritzen duten gizarte-gertakarien multzo esanguratsu bati atxikirik etorri ohi dena. Gerta liteke, halere, belaunaldi desberdinetako literatur esparru berbera betetzea. Geroago, ordea, liburu horren laugarren argitaraldia egitean, 1968ko belaunaldia aipatzen du, laugarren belaunaldia, 1939-1945eko gerra hura ezagutu ez zutenek osatzen dutenena, baina bere gaztaroa beste gertakari batzuek markatuta utzi dutenena, hala nola Aljeriako gerra, V. Errepublikaren sorrera, SESBren desestalinizazioa, Txinako kultur iraultza, Viet-Nango gerra, etab.

Espainian literatur belaunaldiaz luze aritu den beste autorea, Guillermo de Torre da *Del 98 al Barroco* liburuan (1969) eta “Una generación literaria más amplia” lanean (1984). Honentzat belaunaldiak egiaztagarriak dira literaturaren historian, baina horiek eman daitezen kointzientzia hutsa baino zerbait gehiago behar da. Bestalde, hamabots urteko adin-tartearekin (15, 30 eta 45ekoarekin) sortutakoak oro ez dira belaunaldi historikoak, biologikoak baizik; ez dute arrasto berezirik uzten historian; badira, beraz, belaunaldi hutsak ere. Belaunaldiaren kontzientzia dutenak bakarrik har daitezke halakotzat, hau da, mugimendu bezala gauzatzen hasten direnean, ikuspuntu batzuk baieztatuz eta beste batzuk ezeztatuz. Ageri denez, Torre-k, belaundiaren kontzeptua egoera oso jakin batzuetara bakarrik mugatzean, haren erabilera asko murrizten du. Jaiotze-data ez da erabakigarria; garrantzi-

tsuena historian nabarmentzen hasten deneko urte-data da, obra nagusia sortzen duenekoa, hots: adin espiritualala. Modu zabalago batean esanda: gazte-komunitateak bere ikuspegiak modu kolektibo batez agertzen dituenekoa da, edo liburu baten, edo aldizkari baten, edo manifestu baten bidez. Berarentzat oso belaunaldi gutxi daude: aleman erromantizismoa, frantses erromantizismoa, 98ko belaunaldia, modernismoa Hispanoamerikan, eta ezer gutxi gehiago. Beste gauza bat dira literatur mugimenduak, hauek ez baitute ezein zehaztasun matematikorik eskatzen sortze-datei dagokienez, edo estiloen edo ismoen kontuan. Jokabide aski zuhurra berea.

Baina gaur egun, literatur belaunaldiaren kontzeptuaz dagoen bibliografiari erreparatuta, ohartzen gara Espainiako literaturaren historian belaunaldi-kopurua handia dagoela, urte-data jakinez puztua. Bibliografian ikus daitekeen bezala, lan monografikoetan aipatuak datoz hainbat belaunaldi, hala nola 1898koa, 1914koa, 1927koa, 1936koa, 1950ekoa, 1956koa, 1960koa, 1970ekoa, eta besterik, kasu batzuetan zerrenda luzearekin.

Eta euskal letretan, zer? Azken atalean erantzungo diogu galdera honi. Aurretik periodizazioaz jardutea dagokigu.

II. Euskal kulturaren bilakaera historikoa

Euskal idazleak eta hauen lanak historian kokatu ahal izateko, ezinbestekoa gertatzen da taldeak, eskolak, belaunaldiak, edo direlakoak, aro, epe edo urtealdi edo ziklo baten barruan sailkatzea. Sailkatzeko zein metodo erabiltzen den da kontua, periodizazioak zein irizpideren arabera egiten diren, alegia. Mendez mendez egin daitezke, urtealdiz urtealdi, ziklotik ziklora, edota, baita ere, aroz aro, pentsamendu-korronteen arabera.

Euskal letren inguruan egindako hurbilketa-lanetan alderdi kronologiko hori nola erabilia izan den deskribatzera mugatuko gara. Ez goaz euskal kulturaren eta historiaren gainean metatutako material historiografiko guztia ustiatzera, ez baita hori lan honen xedea¹. Ustez adie-

¹ Gurean ez dira agertuko iturri guztiak, hauek garrantzitsuak izanik ere, adierazgarrienak baizik. Beraz, hainbat eta hainbat idazlan kanpoan geratuko dira, besteak beste, honako hauek: soziolinguistikaren sailean, *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* lan kolektiboa (1979) edota, antzerkian, Antonio Maria Labaienen *Teatro euskérico: Bosquejo histórico del arte dramático* (1965-1966) eta Patri Urkizuren *Euskal teatroaren historia* (1975); bertsolaritzan Antonio Zabalen *Bosquejo de historia del bersolarismo* (1964), Santi Onaindiaren

razgarrienak izan daitezkeenak bakarrik aipatuko dira eta horietan bereiz azalduko, batetik, euskararen historia ikuspegi soziolinguistiko eta soziologikotik eta, bestetik euskal literaturaren historiatik egindakoa. Azalpena argia- goa izan dadin, horregatik bakarrik jokatzen dugu horrela.

1. TXILLARDEGIk, bere *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981* liburuan (1984), izenburuak berak argi asko adierazten duen bezala, garai horretako euskal kulturgintzaren kontrako zapalketaren historia egiten du, gehienbat alderdi soziopolitikotik begiratuta eta euskarazko produkzioa zentzu zabalean hartuta, hor barruan sartuz, zehazki, sailok: “euskal irakaskuntza (ikastola, euskal unibertsitatea), euskal literatura, prentsa eta irrati-telebista: euskera eta administrazioa; euskal kanta eta teatroa; etab.” (1984, 19). Euskal kulturaren zapalketa “euskararen eta euskaraz idatzitako edo mamitutako kultur adarren zapalketa baizik ez dela” (1984, 21) azaldu ondoren, mende-laurden horren luze-zabalean, euskal kulturari dagokionez, hiru “giro” bereizten ditu, hirurak garaian garaiko egoera eta aldaketa politikoei hertsiki atxikirik doazenak eta arotan honela sailkatuta dakartzanak: “1- 1956/1968: euskal mundura belaun berri bat sortzen da, eta hazkunde isilean abiatzen. 2- 1968/1975: borroka politikoa gogortu ala, euskal kulturaren sailean ere azkarketa bera ispilatzen da. 3- 1975/1981: sekulako goraldi labur baten ondoren, batera instituzio-bidea

Gure bertsolariak (1964), Joanito Dorronsoren *Bertsotan 1789-1936* (1981) eta *Bertsotan 1936-1980* (1988), Xabier Amurizaren *Bertsolaritza* (1981), eta geroztik etorri direnak; literaturaren historian, Yon Etxaideren *Hamasei seme Euskalerrri'ko* (1958) eta Mikel Zarateren *Bizkaiko euskal idazleak 1580-1968* (1970). Eta gehiago ere bai, hauen artean ahozko literaturaren gainean egindakoak. Literaturaren historiari dagokionez, bada, hiru genero horiek ez dira aztergaitzat hartzen lan honetan.

mamitzen hiru probintzian (sic), eta laxaketa orokorra”. Funtsean, jakina, bi ‘tempo’ desberdin izaten dira politikaren eta kulturaren munduetan. Eta gurean aldiz, ‘tempo’ bakarra dagoela pentsa daiteke” (1984, 23). Beraz, gurean, kultura zein politika konpas berean dantzatzen etorri diren gizarte-gertakariak dira, nahiz biak izaera desberdinekoak izan.

Aro horietako bakoitzak baditu bere ezaugarriak, azaltzea komeni denak, belaunaldiaren kontzeptua lehenengo epealdiaren testuinguruan bakarrik erabiltzen baita. “Belaun-trukea”, hain zuzen, 1952-56ko epealdian ematen da eta “belaun berriaren plazaraketa”, berriz, 1956-68ko epealdian gauzatzen, “gerra egin zuen belau-nak potto egin” zuenean, hain zuzen (1984, 28). Kri-siaren seinale batetik eta berrikuntzaren mugarri bestetik dira garai honetako zenbait aldaketa eta gertakari: Paris eta Arantzazuko bilerak (1956), “giltzarritzat” dauzkanak, ETaren sorrera (1959), euskal literatura berriaren hasiera Txillardegi eta Arestiren inguruan, ikastolen mugimendua, euskalduntze-alfabetatzearen mugimen-dua Rikardo Arregirekin, euskara batuaren abiada, idazle berrien sarrera euskal letretan, jadanik ezagunak ziren Krutwig eta Gandiagaz gain, Txillardegi, Aresti, Peillen, J. Azurmendi, Davant, M. Lasa, Saizarbitoria, Lete, Rikardo Arregi bezalakoekin, euskal teatro herrikoia- ren pizkundea “Jarrai” taldearekin, euskal kanta berria M. Laboa, X. Lete, B. Lertxundi, L. Iriondo, M. Idirin beza- lako eragileekin. Belaunaldien arteko etena eman, eman zen, baina biek indarrean jarraituko dute eta berrikoei, gainera, latz kostatuko zaie beren bidea irekitzea: “Euskal kulturaren alorrean 1956-en inguruan mamitu zen kri- sialdia gauza nabarmena izanik ere, belaun berriak (edo belaun berriaren brankak berak) kolpez eta brauki aurre- koa ukatu zuela pentsatzea, egiatik urrun litzateke. Oker bera egitea litzateke beste hau: gerra egin zutenen belau-

naldikoak ere, orduantxe agortu eta isildu zirela uste iza-
tea (hor dugu oraindik Euzkerazaintza, eta antzekoak, 25
urte geroago” (1984, 30).

Hauxe da, gure ustez, Txillardegik “etendura: bai eta
ez” esaldiarekin adierazi nahi duena. Eta ez zaio arrazoi-
rik falta, belaunaldi berriko euskaltzaleek, nola kulturaren
alorrean hala politikarenean –*Ekin*-en bezala *Jakin*-en–,
hasieran, 1950-1960 urteetan zehar, aurrekoen ideiak
baitzituzten eredu. Zaitegi eta Orixerenak zehazki. *Egan*
aldizkariak “kolaboratzaile produktuaeren” fama bazuen
ere eta, ondorioz, bere mugak bazituen ere, bera agertzen
da kultura berrira irekia: “... garaiko munduan sartu nahi
zuen: ikusitako filmen kritika, literatur atal berriak,
zientzi gaiak, euskal sukaldaritza bera. Ahalean gaurkota-
sunezko gaiak ikutzen zituen” (1984, 46). *Egan* versus
Euzko-Gogoa? Iluntasuna ezin uxatu. Izan ere, garbi ba-
dago ere belaunaldi berriaren fisionomia gehienik mar-
katzen duen ezaugarria politikoa dela, izen jakinetara
etortzean, ez bide da irizpide hori bera kasu guztietan
hala aplikatua kausitzen. Ondoko pasarte hau irakurrita,
batek ez daki zein ondorio atera: “Joan Etxaide eta
Xalbatore Mitxelena, adinez gazteago izanik ere, eta idaz-
gaiiei buruz zerbait aldatu ere, ez dira belaun berrikoak
(...) 1954-an, dena dela, *Egan* aldizkaria sortu zen Do-
nostian, Mitxelena, Irigarai eta Arrue-ren gidaritzapean.
Eta honek, bai: geroago azalduko dugunez, belaun berria-
ren mezua eman zuen zentsurak apalduz bazen ere”
(1984, 29-30). Zein dira belaunaldi berrikoak, *Egan*-eko
zuzendaritzakoak, ala *Egan* aldizkaria bera, ala biak bate-
ra? Arrue eta konpainia berrikuntzaren adierazle?

Bigarren epealdian (1968-1975) “borroka politikoa
gogortu ala, euskal kulturaren sailean ere azkarketa bera
ispilatzen da” (1984, 23). Urte-data garrantzitsua da
1968koa, jatorri desberdinetako gizarte-gertakariak pila-
tzen baitira. Hasteko, maila politikoan, ez bakarrik

Europar Parisko Maiatzarekin eta Pragako Abuztuko inbasioarekin (1984, 59), baita Euskal Herrian ere “kuntze-urtea” da ordukoa, orduan gertatu baitziren Txabi Etxebarrieta ETAKidearen eta Meliton Manzanas poliziaren heriotzak, “borroka harmatuaren sinboloa batetik, polizi-torturaren sinboloa bestetik” bilakatuko direnak (1984, 59). Maila ideologikoan, orobat, egiazko pentsamendu-krisialdia nagusitzen da 1957. urte-inguruan, horren eragileak izanik arrazoi ekonomikoak, politikoak eta erlijiosoak, hots: euskal kapitalismoaren hazkunde izugarriaren ondorioz euskal burgesiak langileen lepora lortutako negozioak, faxismoak horri eskaini zizkion baldintza sozialak eta, azkenik, Elizak hari emandako bedeinkazioa. Honek guztiak, erreakzioz, “fazismoaren, Elizaren eta kapitalismoaren kontrako joera orokor eta azkar bat” sortuko du Euskal Herrian eta haserre horren adierazle izango da eliz mailako protesta-mugimendua ere: “Krisiak bazter guztiak asaldatu zituen: Derio-ko Apezgaitegien arazoa (1966), eta *Gogor* taldearen jaiotza; ETA-ren erdibiketa: ETA eta EMK, funtsean (*Branka*) aldizkariaren inguruan bildu zen taldea kondatu gabe); eta abar” (1984, 63). Ideologi borroka honen zipriztinak kanta berriaren sailera ere zabaldu ziren. “Oskorri” eta “Ez dok hamairu” ren arteko liskarra horren lekuko. Badira elementu gehiago ere aipatu beharrekoak garai honetako ezaugarrien artean, hala nola etorkinen sarrera, euskal liburugintzaren gorakada, euskaltzaleen militantismoa, Elhuyar (1972) eta UEUren (1973) sorrera. Txillardegi euskal kulturaren zapalketaz ari baita hemen, harritzekoa badirudi ere, ez ditu aipatzen Iparraldean argitaratutako aldizkari bi, *Zabal* eta *Askatasuna*, biak *Branka*-ren antzeko giroan sortuak.

Hirugarren epealdia (1975-1981) postfrankismoari hasiera ematen dionekoa da. Euskal autonomismoa da epealdi hau finkatzen duena, funtsean, elementu poli-

tikoa, egilearen ustez, Nafarroan eta Iparraldean “ezer berri ekarri” ez duena” (1984, 71). Euskal kulturgintzak, “instituzio berrietan barrena eta instituzioetatik kanpora batera” (1984, 71) funtzionatzen du EAEn eta, “sekulako goraldi labur baten ondoren”, gerora “laxaketa orokorra” (1984, 23) nagusituz etorriko da. Lantxo hau 1982an burutu baitzuen egileak, hirugarren epealdiari buruzkoa arras gutxi landuta argitaratu zen. Baina bere laburrean laxaketaren ajea adieraz zezaketen seinaleak aipatuta utzi zituen pasarte honetan: “Ideologiaren arazoak bigarren mailara pasa dira erabat. Eta saiakera politikoa, Azurmendik azpimarratu duenez, hil dela pentsa liteke... Orain oportunitismoa nagusi. Eta kezka nagusia, hau: Erreformen sartu, ala ez sartu? 1975-az geroztik gertatutako frustrazioak direla-ta, pasotismoa gora (...) 1970 inguruko giro militante hura, erabat suntsitu dela esan behar litzateke. Eta kultur munduan oso nabarmen agertzen dela aldakuntza” (1984, 71-72). Instituzionalizazioak kontraesan berriak jarriko ditu agerian euskal kulturaren sail gehienetan: AEK-HABE bikotea, lurralde-zatiketa (EAE, Nafarroa eta Iparraldea), elebitasunaren hizkuntza politika, UZEIren kontrako erasoak, Euskal Herrian Euskaraz mugimendua, etab.

Txillardegiren lantxo honetatik, beraz, bi ondorio nagusi atera ditzakegu kultur gertakariak aroka sailtzeko orduan: bat, irizpidetzat arrazoi politikoa daukala eta kulturaren garapena haren ispiluan irakurtzen duela nagusiki, eta, bi, belaunaldiaren kategoria lehen epealdia ezaugarritzeko orduan bakarrik erabiltzen duela, belaualdi-aldaketa 1952-56an ezarriz.

2. Bernardo ESTORNES LASAREN “Cultura vasca” artikulu luzeak (1986), euskal kulturaren ikuspegi historiko oso eta sistematikoa eskaintzeaz gain, badu beste meritu bat ere aintzakotzat hartu behariko litzatekeena, eta da kulturarena zentzu zabalean hartzen duela, hor

barruan sartuz haren alderdi teknikoa, ekonomikoa, literarioa, zientifikoa eta filosofikoa². Nahiz berak, hemen, alderdi literarioa, zientifikoa eta filosofikoa soilki lantzen dituen, beste sailtako gaiak autonomia osoaz aurkezteko bidea irekita uzten du, hala nola Hizkuntzaz, Soziologiaz, Natur Zientziaz, Historiaz eta Historiaurreaz, Ekonomiaz, Arteaz, Filosofiaz, Zuzenbideaz, Erljioaz, Literaturaz eta, dihardutenetan. Idatzizko testu oro literaturan sartzeko murrizketa-tentazioa bederen egoki gailentzen du. Benetan eskertzekoa irizten diogun ikuspegi horren alboan, ordea, bada harenean ez hain onargarria edo, bederen, eztabaidagarriagoa iruditzen zaigun beste hau, zeina Euskal Herrian edo Euskal Herrikoek erdaraz egindakoa euskal kulturatzat hartzean baitatza:

“La cultura euskérica nace, se elabora y vive utilizando como vehículo la lengua vasca, el euskera, pero no es necesario advertir que, junto a ella, y entreverada con la misma, existe una cultura vasca y en lengua castellana y en lengua francesa, no solamente en cuanto se refiere al conocimiento de la tierra vasca, sino también en lo relativo a literatura y al saber universal. Los solos nombres de los filósofos vascos Zubiri y Zaragüeta, entre los contemporáneos, del P. Vitoria y Azpilicueta, entre los antiguos; de los literatos Pio Baroja, Maeztu y Unamuno, de la generación del 98 y los actuales Gabriel Celaya y Blas de Otero, en el campo de la poesía, bastan para que se consti-

² “Se suele hablar de cultura en sentido estricto, la ‘cultura intelectual’, y en sentido amplio, abarcando toda adquisición humana material, mental y espiritual, obra del hombre. En este último sentido, hay tantos ámbitos culturales como intereses peculiares de una sociedad. Así se puede hablar de cultura técnica, económica, literaria, científica, moral, religiosa, etc. Este artículo se va a ceñir, exclusivamente, a las culturas, literaria, científica y filosófica, pero en lengua vasca” (1986, 352).

tuyan en exponente revelador de esa otra cultura superpuesta a la nativa” (1986, 352).

Aipaturiko alderdi horietako bakoitzak du bere berezitasuna, eta baduelako, hain zuzen ere, horietako bakoitzari periodizazio espezifikoak eskaintzen dizkio. Mugimendu kultural eta literarioari gagozkiola, hiru arotan sailkatzen ditu idazleen emanak eta kultur gertakariak. Lehena 1897-1936koa da, euskal foruak galdu ondokoa; bigarrena, berriz, 1936-1950ekoa, gerrate zibilak baldintzatzen duena. Lehen epealdi horretan egiazko etena ematen da, literaturaren xedetzat, ez ordurarte bezala erlijioa, baizik gainbehera zihoan euskara bera hartzen baita:

“La finalidad de la literatura tradicional era la de propagar las prácticas y devociones particulares, la educación religiosa. Pero la ruptura surge cuando nacen nuevas inquietudes literarias unidas a otra inquietud, cada vez más dramática: la pérdida y la extinción del euskera. Para vivir adecuadamente le haría falta gozar de las condiciones normales de vida de una lengua de nuestros días: escuela, literatura, oficialidad, prestigio público, etcétera. Azkue y Arana se percatan de lo mucho que hay que hacer, y ambos, con preparación dispereja, se lanzan a la empresa (...) El móvil de ambos es el mismo; menos politizado el de Azkue y mucho el de Arana. Ambos proceden del carlismo. Arana ha roto violentamente con él; Azkue, no” (1986, 358).

Euskararen aldeko kultur mugimendua Eusko Pizkundeari lotua dator eta euskal idazleak, ideologi mota eta ikuspegi estetiko desberdinen arabera, talde eta azpitaldeetan banatzen dira. Garaiko euskaltzaileen artean uste izan den baino heterogeneitate gehiago eman izan da: literaturan, erromantizismoa, arrazionalismoa, errealismoa eta, presente zeuden; ideologiaren aldetik, gehiago tradizionalistaren aurrez aurre Emeterio Arrese, Jean Etxepare, Irigarai bezalako liberal banaka batzuk

aurkitzen ziren, eta haiek baino oraindik kontserbado-
reago –euskararen kausa erlijioari atxikiago, alegia–,
integristak; ideologia politikoak, bestalde, karlisten eta
euskal nazionalisten familiak bereizten zituen, baina
horietako bakoitza aldi berean beren azpifamilieta
zatituta zegoen; maila linguistikoan, orobat, joera des-
berdineko euskaltzale-taldeak zeuden: puristak (aranis-
tak), euskara landuaren aldekoak (Lizardi, Lauaxeta,
Yakintza aldizkarikoak), Iparraldeko idazle tradizio-
nalistak (Lafitte, Oxobi...), eta euskara errazago baten al-
dekoak (Gregorio Mujika eta honen *Euskal Esnalea* al-
dizkarikoak. Bereizketa hauek argigarriak dira, zalan-
tzarik gabe, *Orixe eta bere garaia* liburuan (1991)
zehatzago aztertzen ditugunak.

Bernardo Estornes Lasak, zenbait idazleren arteko
kideatasunaz jardutean, ez bide du belaunaldiaren kon-
tzeptua erabiltzen, besteok baizik: taldeak eta azpita-
ldeak, hauek gehienetan, eta behin edo beste, idazle-
multzoa eta idazle-ekipoa, gunea, eta horrelakoak. Bes-
talde, bigarren aroan, zerbait berriren bila saiatzen den
Etxanizen salbuespena eginda, beste gehienak –horien
artean Orixe, Lafitte, Anabitarte, Zaitegi, Gaztelu, Jau-
tarkol–, gerra aurreko ereduaren jarraitzailetzat dauzka.
Gertatzen dena da, jarraitasun horren barruan, adinaren
legera, gerra aurreko idazle-multzo bat (Etxaniz, La-
baien, Orixe, Lopez Mendizabal edo Barbierrek osatua)
bukatzear dagoela eta beste bat hastear, hortxe 1950eko
hamarkada-hasieran, batez ere Zaitegi, Salvatore Mitxe-
lena, Koldo Mitxelena, Berriatua, Iratzederrek eta, orde-
katzen dutena (ez ditu hemen aipatzen *Euzko-Gogoa* eta
Egan aldizkariak, aldizkarien sailean baizik, baina apar-
teko garrantzirik eman gabe), eta 1960az geroztik, beste
batzuek ere bai, hauen artean Krutwig marxista. Beraz,
idazle-taldeen arteko ikuspegi-aldaketa edo “eten” hori
1950eko hamarkadan hasten da eta 1960ko hamarka-

datik aurrera burutzen³. Ez du zehazten, ordea, zertan eta nola gauzaten den eten hori. Nolanahi ere, Txillardegiren antzera, honek ere 1960ko hamarkada-hasieraren bueltan kokatzen du aldaketaren unea, deitu belaunaldi berri baten sorrera, edo idazle-multzo berri batena. Geroztik, frankismoko azken urteetan, euskal kulturari dagokionez, bi joera nabarmenduko ditu, bata euskaraz bakarrik lantzearen aldekoa dena, eta bestea elebiduna izatea hautatzen duena: “En estos últimos años (1960-75 epealdiaz ari da, orduko bibliografía baitator ondoren) ha aumentado el ritmo de publicaciones euskéricas en forma desconocida hasta ahora. Entre la gente media de habla vasca, y en los medios intelectuales hay convicción de que si ha de haber cultura vasca propiamente dicha debe ser en euskera. Al lado de éstos, importantes núcleos se inclinan, quizá la mayoría, por una cultura bilingüe en la que saldrían beneficiadas mutuamente ambas modalidades e integradas en una cultura vasca moderna y ágil” (1986, 361). Noski, egilea hemen bere ikuspegiarekin ados dagoena berrestera dator.

3. Joseba INTXAUSTIk, argitalpen kolektibo batean emandako “El euskara de su mito a la conciencia nacional. Hizkuntzaren kontzientzia eta eskea, historian” izeneko saioan (1985), euskaldunek historian zehar beren hizkuntzari buruzko kontzientzia nolakoa izan den eta zein neurriko gizarte-eskea izan duen aztertzen du, XVI. mendetik hasita. Datu historikoen periodizazioa egiteko darabilen modua askotarikoa da. Batzuetan

³ “A partir de 1960 algunos elementos jóvenes, influenciados por un libro de Krutwig, experimentan una desviación hacia cauces ideológicos desconocidos en el país y de tónica marxista. Desde este momento la corriente literaria ofrece el cauce central propio y esta ruptura que comentamos” (1986, 361).

mendez mendekoa erabiltzen du, zehazki XV. eta XVI. mendeetakoak jasotzerakoan. Geroztiko mendeetan, ordea, gaiaren garapenak hala eskatuta, aroka sailkatzea hobesten du, epealdi zehatzak finkatuz.

“Hegoaldea ere hizkuntzaren bila” izenpean, 1700-1839 epealdia ezartzen du, eta hor, Etxeberri Sarakoaren aipamena egin eta gero, bereziki Larramendi, Agustin Kardaberaz eta Euskal Herriaren Adiskideak aztertzen ditu. Bestalde, aro garaikideari dagokiona lau azpiarotan zatitzen du: 1800-1833koa, Astarloa eta Mongelengandik hasi eta lehen Karlistadaraino luzatzen dena, zeinetan krisiaurreko eztabaida eta kontzientziaz baita jarduna; 1833-1876koa, Iztueta, Iturriaga, Elizanburu, Iparragirre eta Bonaparteren lankideek betetzen dutena, zeinak gerrate hartatik foruak erabat galdu bitarteko epea osatzen baitu; 1877-1936koa, Eusko Pizkundeari dagokiona da, zeinetan taldeak eta ekintzak (Euskal Jaiak), politikari abertzaleak, euskaltzaleak, idazleak eta euskalariak agertzen baitira euskararen alde lanean, hauen artean Kanpion, Sabino Arana eta Aitzol; frankismoari dagokion 1936-1975 epealdia, zeinetan, Txillardegik euskal kulturaren zapalketaz egindako lanean ikusi bezala, kultur mugimenduak eta ekintzak indartuz etorriko baitira.

Euskararen kontzientziari buruzko hurbilketa historiko horretan jasotakoa laburtuz, bada, pauso hauek atzematen ditu: Lehenengoa (1445-1600) Etxeparerekin ematen da, bera baita hizkuntza literatur komunikabidez hartzen duena; bigarrena (1600-1700), Sarako eskola edo taldearekin ematen da, euskaldunak orduan ohartzen baitira beren kultura euskaraz landu behar dutela; hirugarrena (1700-1766), Sinodalen aitorenekin irekitzen da, euskaraz zernahi gai erabil daitekeela aitortzen baitute; laugarrena (1800-1876) Mogelekkin hasten da, herri-hizkuntza eta jakituria bateratzearekin batera; azken urratsa (1876-1886), kontzientzia

nazionalarekin batera, euskara euskal nortasunaren oinarritzat hartzean ematen da.

Lan horretan aro asko aurkitzen dira, baina ez beti batera datozenak gaiaren azalpenean eta bukaerako laburpenean. Nolanahi ere, periodizazioaren arazoari arreta berezia jartzen zaio eta aukerak, asmatuak izan ala ez, pentsatuak eta arrazoituak bederen badira. Pasarte batean, Larramendiz ari dela, “kontzientzia berriaren gidaria” izan zela, dio, eta, euskaraz “deus gutxi idatzi” arren, bere ingurua aldatu egin zuela, “jendea euskalgintzara erakarrariz, eta orduko langileei eta ondoko belaunaldiari ere segurtasun kolektibo eginago bat emanetz” (1985, 375). Noski, hemen belaunaldi biologikoaz ari da garbiki Intxausti, ez berarekin batera sortzen den belaunaldi sozialaz. Lan honetan ez da ezertarako agertzen belaunaldiaren kontzeptua. Soilki, “eskola” edo “taldea”, Sarakoan bezala, edota gerra aurrean Aitzolen inguruan bezala, eta “kultur mugimendua” Eusko Pizkundean bezala.

Lehen saio hori burutu eta, handik bost urtera, dibulgazio-xedearekin argitaratutako *Euskara, euskaldunon hizkuntza* (1990) liburu dotore bezain bikainean, zeinetan datuak zuzeneko iturrietan fidelki oinarrituak jasotzen baitira, euskararen historia egiten da, soziolinguistikoa, sustraiak historiaurretik hartuta. Bi irakurbide parekide eskaintzen dira, bata testu jarraituan datorrena, eta bestea, hainbat irudiren oin-oharrek osatzen dutena. Egoki hautatutako datu jakingarri asko aurki daiteke bertan. Euskararen historia aroka sailkatzean, aurretik lehenengo lau ataletan euskarari buruzko beste hainbat xehetasun eman eta gero, hiru aro nagusitan sailkatuta dakarkigu euskararen gizarte-egoerari buruzkoa. Lehen aro luzea, Aro Modernotik Aro Garaikidera doana da, hots, 1545-1789 epealdia besarkatzen duena, eta hor sartzen ditu XVI. mendeko idazleak (Etxepare eta Leizarra-

ga), apologistak (Garibai, Mariana, Etxabe eta Klaberia), XVII. mendeko erakundeen euskararekiko harremanak (Nafarroa Behereko Foruak, Bizkaiko Batzarrak, Eliz Sinodalak, Dotriñak, Ordena erlijiosoak) eta, idazleei dagokienez, Iparraldean Donibane-Sarako taldea (Donibane-Lohizungo Etxeberri, Axular, Oihenart eta Sarako Etxeberri, eta Hegoaldean, XVIII. mendean, Larramendi eta honen jarraitzaileak, Azkoitiko Zalduntxoak, etab. Bigarren aroa, hau ere aski luzea, Aro Garaikidetik 1936ko gerrate zibilera arte doana da, 1789-1936 epealdia hartzen duena, alegia, eta hemen, Frantziako Iraultzak Iparraldean zein Hegoaldean eragindako ondorio politiko eta linguistikoen berri eman ondoren, bitan zatitzen du aro hori: bata Eusko Pizkunde aurreko euskaltzaletasunari dagokion epea da, 1853-1876 urte-bitartekoa, hemen kokatuz Iparragirre, Abadia jauna, Bonaparte, eta, hertsikiago, Euzko Pizkundeari dagokiona bestea, 1876tik 1936ra doana, hemen elkarteak, aldizkariak eta idazleak atal desberdinetan sartuz. Azkenik, azken 50 urteko epealdia dakar, 1937tik 1987a bitartekoa, hau bitan banatuta: batetik, gerra ondoko urte luzeak (1937-1960), erbesteko lanekin, batez ere, eta, bestetik, 1961-1975 epealdia, hemen kokatuz irakaskuntza, komunikabideak, argitaletxeak, aldizkariak, alfabetatze-euskalduntzeak, euskal literatura, euskalaritza, eta besterik.

Periodizazioari dagokionez, Joseba Intxaustiren lan biak kontrastatzen badira, ohartzen gara bakoitzean arosailkatze autonomia egiten duela, planteatzen duen ikergai espezifikuari ondoren egokitzen zaiona. Halere, badira urte-data jakin batzuk bietan modu bertsuan errepikatzen direnak: 1545, 1876 eta 1936, hurrenez hurren, euskal errenazimenduari, eusko pizkundeari eta gerrate zibilari lotuak.

Eta belaunaldiaz, zer? Han-hemengo zein garai bateko zein besteko euskal idazle eta eragileen arteko harre-

manez ari zaigunean, kontzeptuen erabilera orokorrean aski barreiatua da eta gehienetan ez alde zuzenetik mugatua. Kasu batzuetan, hala nola Leizarragaren, edo Donibane-Sarakoaren, edo Larramendiren ingurukoaz jardutean, “euskaltzale-taldearen” kontzeptua erabiltzen du (1990, 68). Baina, 1520-1560 epealdiaz ari dela, ordukoari “belaunaldia” deitzen dio: “Aurreko belaunaldietako eztabaidak ez ziren atertu...” (1990, 69). Beste pasarte batean, berriz, apaiz-multzo batek osatutako “lan-eskolarena” dakar: “Etxeberri Ziburukoa zuten, dirudienez, bururik jantziarena, eta Pedro Axular, etorriarik onenekoa. Euskaltzale-lagunarte bat ezezik, lan-eskola bat osatu zuten guztien artean. Apaiz-fraideak ziren denak” (1990, 84). “Idazle-multzoa” ere badakar talde bera izendatzeko (1990, 88). Orobat, Garibai eta Mariana apologistez ari den atalean, belaunaldia agertzen da, dioenean: “Belaunaldi luzetarako eztabaidagaiak izango ziren horiek apologisten artean...” (1990, 74). Baita Larramendiz ari denean ere, kontzeptu bera irakurtzen da: “Euskararen alde egin eta idatzi zituenak molde eta balio ezberdinetakoak dira; baina, batzuk zein besteak, haren belaunaldiarentzat eta gero etorri zirentzat zinez eragileak suertatu izan dira” (1990, 92). Bestalde, Eusko Pizkundeari⁴ dagokion aroa mugatzerakoan, kultur mugimenduaz ari da nagusiki, hor kokatuz Euskal Jaiak eta Lore-Jokoak, Oñatiko Batzarra, Euskaltzaindia, geroago Bertso-Lehiaketak, Olerti-Egunak eta Euskararen Egunak. Baina epealdi hori orotara hartuta, “gerrareko belaunaldiaz” espreski hitz egiten du pasarte honetan:

⁴ “Azken Karlistadaren (1876) eta Gerra Zibilaren (1936) artean garatutako euskal mugimendu sozio-kulturalari deitzen zaio Eusko Pizkundera: hirurogei urteko historia da” (1990, 118).

“Gerraurreko belaunaldiak, batez ere olertian eskaini zizkigun literatur balio lortuenak, eta ez, noski, ausaz. Tartean hizkuntzaren salbabiderako teoria osoa bait zegoen. Ahantzi samartuta izan dugun maisu bat dago: Aita Estefania josulaguna, Orixeri hitzaurre bat egina, eta Lauaxeta eta ‘euzko-gogoatarrak’ eskolatu zituen. Horrekin batera, Mokoroa/Ibar-en *Genio y lengua* (1936) eta Aitzol-en kritika dago (egunkarrietan eta *Yakintza*-n argitaratua), eta Lizardiren burubihotz argiak. Belaunaldi honek, bere idazketa ongi landuan, helmuga aitortu bakarra zuen: Euskararen salbamendua” (1990, 143).

Gerra ostean, erbestean gehienbat *Euzko-Gogoa*-rekin identifikatzen den 1937-1950 epealdiaren ondoren, 1961-1975ekoa dator, zeinetan belaunaldi berria sartzen baita aktiboan, ezaugarri hauek dituen: “Lehenengo gerraondokoaren ostean (1937-1960), euskaldungoak gogoberrituta sentitu zuen bere burua. Gerratearen oroitzen larrienak samurtu ziren ordurako; belau gaztea indarrean zetorren, oroitzen gogor edo heroikoetatik ekintza hobeetara pasatzeko asmoz” (1990, 158). Belaunaldi honen obrak dira, besteak beste, Ikastolak, Kanta Berria, eta abar. Literaturaren sailean, hor kokatzen du, *Uhin berri* (1969) izeneko bilduma, belaunaldi berriko poeta-talde baten adierazgarri gisa argitaratua: “1960.eta-ko hamarkada burutzean somatu ziren euskal Literaturan berrikuntzaren zantzuak. Luma gazteak literatur forma modernoagotan ari ziren saioak egiten. J. San Martin-en antologia honek aldakuntza haien zenbait lekuko jaso zuen” (1990, 159). Beste pasarte honetan belaunaldi honen sektore handi baten lumak Seminarioetan trebatuak izan zirela zehazten du: “Hizkuntza idatziaren ofizio hori ikastea zaila izaten da hizkuntza minorizatueta, zeren horrelako gizarteetan hizkuntzari dagokion eskola ukatu egiten bait zaie herritarrei. 1950etik aurrera, Seminarioetan ikasi ahal izan zen idazten, eta gutxi-asko

ikastetxe haietan eskolaturiko gazteriak eman zien luzapena 1960-1975. etako euskal liburugintzari. Uhin berri haren ondokoak, eskola-modu ezberdinagoetakoak izan dira, eta batez ere Ikastolatik irtenak” (1990, 170). Azkenik, hitzaurrean bertan, liburu honek egiten dituen ekarpenez aritzean, belaunaldiarena dakar bigarren ekarpena aipatzean: “Herri eta hiztunngo baten iraun-ahalmena sakonean datorren egiturazko korrante iraunkorra dela. Orain, gure belaunaldian, ikusi egin behar, beraz, gogo argitu hark eta indar sakon honek, elkartuta, geroa irabaz diezaguketan, ala ez” (1990, 10).

Ezingo da esan, honez gero, belaunaldiaren kontzeptua agertzen ez denik, noiz zentzu garbiki biologikoan, noiz soziologikoan, aro jakin bateko idazle edo eragile kolektibo bati atxikia. Erabiltzen du, bai, baina zehaztasun handirik gabe, segun non eta nola, hala. Ezau-garriak eman gabe. Eta belaunaldiaren alboan, nahas-mahas, beste kontzeptukideak, hala nola taldea, eskola eta horrelakoak.

4. Hegoaldean, Joan Mari TORREALDAI da euskal literaturaren soziologia lantzen duenetako bat, bereziki, euskal liburugintzari dagokion sailean. Honen liburu biak, *Euskal idazleak, gaur* (1977) *Euskal idazleak, gaur* (1997), Robert Escarpit Bordeleko unibertsitate-irakasleak formulatutako parametroen barruan lerrokatzeak direla uste dugu, osorik ez bada, neurri handi-handi batean bederen, bai. Aski da aurkibideetara begiratzea bere erudian agertzen diren liburugintzako hiru alderdiok –produkzioa, banaketa eta kontsumoa– nola islatzen diren ikusteko. Edukiak ere, liburu bietan, gehiago du datu-metaketa estatistikotik diskurtso soziologikotik baino. Egileak berak (1997, 37) espreski dakarrenez, nahiago izan du, akademizismoak alde batera utzi eta, zuzenean euskal kulturaren egoera deskribatzera jo.

Ez du tesirik ezarri nahi izan abiapuntuan; inkesten bidez informazioa eta iritziak bildu eta gero, ordea, ondorioetan sailkapen jerarkizatuekin eta balorazioekin aurkitzen gara, eta hauek, azken batean, irakurlearentzat egiazko tesi-itxura hartzen dute. Justu abiapuntuan nahi ez zen zerbaitekin egiten dugu topo helmugan. Eredu funtzionalistaren arabera egindako azterketa kuantitati-boetan ohikoa izaten da prozedura-estilo hau, merkatura begira enkarguzkoetan erabili ohi dena.

Gure oraingo egitekoa ez baita bi liburu horien edukiaz jardutea, horietan periodizazioarena nola agertzen den aztertzea baizik, aurre-ohar ñimiño hauek egin ostean, gatozen gaira. *Euskal idazleak, gaur* liburuak, aurre-oharretan esaten den bezala, hiru irakurbide autonomo eskaintzen ditu eta horietako batean –oin-oharretan koloretan eta gaztelaniaz datorren bigarreanean, hain zuzen–, egiten da euskal literaturaren historia (1545-1975), dibulgazio-mailan, gehienbat Koldo Mitxelena, Luis Villasante eta Santi Onaindiaren liburuetan oinarrituta. Kronologiari dagokionez, mendez mendeko sailkapena dakar eta mende bakoitzak darama bere izenburua: a) XVII: euskarazko literaturaren hasierak; b) XVII: Sara-Donibaneko eskola Euskal Herri kontinentalean; c) XVIII: Larramendiren eskola Euskal Herri penintsularrean; d) XIX. mendeko izarrak; e) XX: Eusko Pizkundea.

Baliteke bigarren irakurbide horren egilea liburuko beste lankideren bat izatea –Joseba Intxausti, agian?–, zeren lehen irakurbide honetan, elkarren arteko loturarik gabe, idazle-taldeak adin-piramidearen arabera sailkatzen baitira. Bigarren zatian ez bezala, hemen, idazleak historian sartu eta taldeka kokatzerakoan, belaunaldiaren kontzeptura jotzen da, metodo gisa jotzen ere, abiapuntutzat idazlearen jaioturtea hartuz. Neurketarako 1914-1974 epealdia hautatzen da, hogeituroteko ziklotan –1914, 1934, 1954 eta 1974. urteei dagozkienetan–,

banatzen dena, pentsatzen baita urte-tarte horrek “hazaldi berri bat plazaratzeko aukera” eskaintzen duela (1977, 75). Egileak liburu honetan azken epealdiko piramideari buruzkoa besterik ez du aztertzen eta emaitza hauek eskaintzen ditu, bere luze osoan transkribatuko ditugunak:

“Urte honetan, 1974ean, gerra aurreko idazle asko bizi da oraindik. Belaunaldi hartako izar handi batzu itzali badira ere (Orixe, Jautarkol, Dassance) eta gainerakoek 70 urtetik gora ukan arren, lanean dihardute, hala nola, J. M. Barandiaran, J. Azpeitia, M. Lekuona, N. Etxaniz, Zeleta, A. Labaien, A. Irigarai, E. Salaberri, M. Ziarsolo.

Gerra aurrean idazle gazte edo hasiberri zirenen, eta gerra osteko lehen literatur ekitaldiko idazkintza gehienbat gidatu dutenen belaunaldia dator hurrengo. Izen ezagun asko hemen: L. Akesolo, F. Artola, B. Aurre-Apraiz, Basarri, I. Berriatua, E. Erkiaga, P. Bordazarre, J. M. Etxaburu, Gaztelu, J. A. Goiria, A. Ibinagabeitia, T. Monzon, P. Muxika, S. Onaindia, P. Narbaitz, J. Oñatibia, Uxola, J. Zaitegi, A. Zatarain, A. Zubikaray, A. Zugasti.

Gerra osteko idazle hazaldia hasten da gero, besteak baino ttikiagoa numeroz, 50-60 urte dituzte 1974ean. Hauetako asko eta asko eredutzat eta eragiletzat hartuak izan dira⁵, eta dira: E. Agirretxe, Iratzeder, J. Etxaide, J. A. Garate, Gereño, J. Harischelhar, J. Kerexeta, F. Krutwig, P. Larzabal, J. A. Loidi, L. Mitxelena, S. Mitxelena, J. San Martin, Martin Ugalde, L. Villasante, P. Xarritton.

Laugarren lekuan ikusiko nituzke, gaur 35 urtetatik 50era dituztenak. Gerrako hazaldiaren eta gazteagoaren artean zubi bezala dira hauk. Berrikun-

⁵ *Egilearen oharra*: “Belaunaldi honetako batzuk egiazko gidariak izan ziren 50eko eta 60ko hamarkadetan, hala nola, Koldo Mitxelena, Txillardegui, Gabriel Aresti, F. Krutwig, Piarres Xarritton” (1997, 398).

tzaren lehen eragileak dira hauetariko asko. Joxe Azurmendik hauei buruz dioenez⁶: ‘Gerra ondoko hutsunean sortuak dira; hots, ez dira literaturara mogimendu literario heldu baten barruan jaiok’. (Interesgarri da ildo berean, Orixek 66 urte zituelarik gaurko idazle ezagunenek zenbat zituzten ohartzea, Azurmendik berak egindako kalkuluetan⁷. Garai honetako idazle zenbait oso ezagunak dira: P. Altuna, Txillardegi, D. Amundarain, J. M. Aranalde, J. Arenaza, G. Aresti, M. Atxaga, X. Azurmendi, I. Beobide, F. Bilbao, L. Dorronsoro, M. E. Erdozainzi, B. Gandiaga, G. Garate, S. Garmendia, J. Gaztañaga, I. Laspiur, J. M. Lekuona, A. Orbegozo, D. Peillen, J. M. Satrustegi, A. Zavala, Eta gazteago: J. L. Davant, R. Kanblong, M. Lasa, L. M. Muxika, J. Intxausti, J. Kalzada, F. Mendizabal, E. Osa, J. L. Lizundia....).

Eta azkenik, barnean bereizketarik egiterik bada-
goen arren, batean hartzen dugu 25-35erako tartea. Hazaldi berria, aurrekoekin hasi eta hementxe lora-
tzen da, fruituak ematen hasten da. Izen ezagun asko
hemen ere: R. Arregi, J. Azurmendi, P. Iztueta, J. A. Letamendia, M. Azurmendi-Intxausti, J. M. Torreal-
day, Mikel Ugalde, J. Apalategi, X. Mendiguren, X. Kintana, D. Landart, Lantziri, L. Haranburu-Altuna,
A. Lasa, A. Lertxundi, X. Lete, A. Sagarna, I. Sara-
sola, R. Saizarbitoria, P. Urkizu, A. Urretabizkaia...”
(1977, 77-79).

Adinaren arabera egindako sailkapen honetan, be-
raz, bost idazle-multzo koexistitzen dira: 1) gerra aurre-
ko idazleak, batzuk jadanik hilak eta biziak aski adinduak;
2) gerra aurrean idazle gazte edo hasiberri izandakoak; 3)
gerra aurrean jaiok izan arren –1974an 50-60 urte bi-
tartekoak–, horietako batzuk eredutzat edo eragiletzat

⁶ *Zer dugu Orixeren kontra*, Jakin, Arantzazu, 1976, 34 or.

⁷ *Ibid.*, 34 or.

hartuak izan direlako, gerra osteko idazletzat hartzen direnak; 4) hauek ere gerra aurrean jaiotakoak direnak, hots, 1974an 35-50 urte-bitarteko adina dutenak, horietako asko “berrikuntzaren lehen eragile” eta “gerrako hazaldiaren eta gazteagoaren atean zubi” bezala hartuak izan direnak; 5) gerra ostean jaiotako “hazaldi berria”, 1974an 25-35 urte-bitarteko adina duena eta jadanik bere emaitzak ematen hasia dagoena.

Adin-piramide horrek erakusten duena da, orokorrean ari gara, gerra osteko belaunaldi bakarra izan –gerra hurbiletik ezagutu ez zuen hura, alegia–, azkeneko hori baizik ez dela izan. Gerratekoan gertatua –eta hau kasurik onenean–, kontatua helduko zaio, ahoz gehiago idatziz baino. Horren aurrekoek, aldiz, modu batera edo bestera, gerraren estigmaterekin munduratuak izango dira eta orduko esperientzia berekin eramango dute ondoko urteetan. Hezur-haragitan bizi izandakoaren eta kontatuaren –edo errepresioaren beldurrez isilduaren– arteko muga garratz hori hor dago eta adin-piramide horrek balio dezake hori agerian jartzeko, gerra osteko euskal kulturaren garapenean kontuan hartzekoa dena, zalantzarik gabe.

Belaunaldien edukia adinaren araberako sailkapen hutsean egiteak, ordea, kultur produkzioaren azterbiderako gabezia nabariak ditu, egilea bera ohartzen den bezala, ez baita erraza “belaunaldiak eta taldeak ongi mugaturik ematea” (1977, 79). Izan ere, gerta daiteke –eta sarritan halaxe gertatzen da–, idazleak adin berekoak izan arren, batzuk idazten geroago hastea edo joeraz beste ekipo batekoak izatea.

Handik 20 urtera argitaratutako *Euskal kultura gaur* bigarren liburuan, juankarlismo-garaiko idazleen azterketa egiterakoan, hemen ere belaunaldiaren eskemaz baliatzen da, oraingoan erabat baliatzen ere, 1974ko adin-piramideari 1996koa erantsiz. Lehen liburuari jarraipena

ematera datorren eta izaera bertasukoa den bigarren liburu honetan, halere, bada berritasun zerbait, eta da, aurrekoan idazleen historia egiten den bezala, oraingo honetan euskarazko liburugintzaren historia egiten dela, euskal produkzioarena zentzu zabalean ulertuta –kulturan, alegia–, ez soilki literarioan. Ondoko bost urtealdi hauen arabera sailkatzen ditu argitalpenak eta, orokorrean, kultur emaitzak:

“Lehen aldia, 1545-1699. 155 urte. Lehen euskal liburuarekin hasi, eta itxi Ipar Euskal Herriko produkzioak indarra galtzean ixten dut. Bigarren aldia, 1700-1875. 176 urte. Hemezortzigarren mendean Hegoaldea indartzen da. Eta bide beretik segitzen du gerora. Aldi hori moztu, ordea, foruen galerarekin egiten dut. Lehen bi aldi hauek Lege Zaharraren garaia osatzen dute. Hirugarren aldia askoz motzagoa da, 60 urtekoa, 1876tik 1935era. Abiapuntua nahiko garbia da eta ez gutxiago bukaera. Eusko Pizkundearen garaia, neoforalismoak eta abertzaletasunak osatua. Laugarren aroak frankismo garaia hartzen du, 40 urte, eta 1936-1975. Hogeina urteko bi alditxo bereizten ditut barruan, 1936-1955 eta 1956-1975. Eta, azkenik, gaurko aldia, Franco hil ondokoa, 20 urte. Zertan esanik ez da, hona iristean bertan geldituko garela, luze eta zabal, urte hauek aztertzen” (1997, 39).

Beraz, bost aldi historikoen barruan, azkeneko bietan hogeina urteko zikloarena aplikatzen du, zeina izango baita bere lanaren muina. Beraz, lehen liburuan bezala hemen ere, hogeia urteko zikloaren irizpideari eusten dio: “Esan dezadan bide batez, hipotesi gisa ez dela interesik gabea, 20 urteko zikloa. Ez dakit belaunaldien erritmoa den ala ez. Nago 20 urteren buruan belaunaldi batek, edo lan-talde nagusi zenbaitek edo, bere ekarpenaren marka ezartzen duela, eta eten handixeago ala txixixea-goarekin baina berritasun-markarekin beste jende bat

plazaratzen dela. Gizarte-baldintzak ere sarritan aldatu ohi dira muga horietan” (1997, 39). Beste pasarte honetan konbikzio bera erakusten du: “Hogei urteko ziklo berri baten azterketari ekiten diogu orain. Ziklo hauxe da hain zuzen liburu honek deskribatu eta kontatu nahi duena. Propioki ziklo gisa hartzen dut epealdi hau” (1997, 159).

Egileak, beraz, frankismoari dagozkion 1936-1975eko urtealdiaren barruan bi belaunaldi ezartzen ditu:

“Frankismoaren aldi hau bitan banatzen dugu, hogei urte alde batera eta hogei bestera. Hogei urteko ziklo kulturalaren hipotesiarekin nabil bueltaka. Kultur hazaldi bat dirudi. Sortu, talde zein proiektua, eta handik hogei urtera badago sarri halako agortze bat, edo jauzi kualitatibo bat aurrera, edo krisialdian sartzen da, ez dakit. Hogei bat urtetan protagonista gisa eszenategia okupatu ondoren, beste ideia, proiektu edo talde batzuei uzten zaiela leku ematen du. Eta hurrengo belaunaldia aurrekoaren lehian eta borrokan abiatzen da bere zikloa betetzera” (1997, 129).

Lehena 1956ko belaunaldia da, frankismoan gerra ostekoek osatzen dutena. Etena ematen ez bada ere, hausturara eramango duen bidearen abiapuntutzat har daiteke data hori. Aldi berriaren zantzuak eta ezaugarrietako batzuk urte horretan suma daitezke: “1956 urtea bereziki markatzekoa iruditzen zaigu” (1997, 129). Egileak, oraingoan 1974koarekin konparatuz eraikitzen duen 1996ko adin-piramidea iruzkintzean, 1956ko belaunaldiaren, hots, 1996an 50-65 urte-bitarteko adina dutenen baitan pare bat “hazaldi” edo “labealdi” bereiz genitzakeela, dio (1997, 396-387). Dena den, esan beharra dago, behin eta berriz aipatzen dituen arren, ez duela ezin zehaztasunik ematen belaunaldi, hazaldi eta labealdien kontzeptuez, hauek “adinarekin zerikusi

zuzena” dutela besterik (1997, 397). Testuingurura begiratuta, badirudi sinonimotzat hartzen dituela.

Belaunaldi hau osatzen dutenen gizarte-jatorria, klerikala da gehienbat: “Lehen labealdiak (zaharrenak) apaizgaitegietan hazi eta hezi dira. Lehen ordukoen artean izenda ditzakegu Jose Maria Satrustegi, Mikel Atxaga, Jose Antonio Arana Martija, Salvador Garmendia, Jose Mari Aranalde, Gotzon Garate, Xipri Arbelbide, Julen Kalzada, Xabier Azurmendi. Bigarren labealdiak aldizkarien mundua desarroilatu zuen. Aldizkaririk garrantzikoena *Jakin* izan zen. Labealdi honetakoak dira Joseba Intxausti, Mikel Lasa, Joxe Azurmendi, Gexan Lantziri, Paulo Iztueta, Xabier Amuriza, Manex Pagola, Jose Angel Irigarai, Pello Zabaleta, Joan Mari Torrealdai, Mikel Azurmendi, Jokin Apalategi, Patxi Ezkiaga” (1997, 398). Beraz, gerora idazle izango zirenak apaizgaitegietan trebatu ziren, bertan argitaratutako barnealdizkarietan, besteak beste, *Gure Izarra*, *Arnas*, *Laiaketan*, *Erein*, *Gogoz* bezalakoetan: “Belaunaldi hori beste zereginetara pasa eta literaturaren eszenatokitik erretiratzean, berriz hutsunea gertatu zen” (1997, 352). Baina belaunaldi honek, aldi berean, badu “bere fase laiko eta kaletarra, aurreko Txillardegi, Koldo Mitxelena, Aresti, Mirande eta beste batzuen ildoari segida ematen diona: Xabier Lete, Ramon Saizarbitoria, Luis Mari Bandres, Joseba Tobar, Baleren Bakaikoa, Xabier Kintana, Ibon Sarasola, Patri Urkizu, Daniel Landart, Arantxa Urretabizkaia, Andoni Sagarna, Amaia Lasa, Joan Mari Irigoien, Mariasun Landa... (1997, 398). Beraz, belaunaldi hauen artekoen artean, jatorri klerikalekoak eta ez-klerikalekoak bereizi beharko dira.

Ba ote dira belaunaldiez hitz egin ahal izateko arrazoiak? Egilearen ustez, bai. Belaunaldi honetakoek badiutuzte hainbat ezaugarri batera dituztenak. Besteak beste, urte-inguru honetan, gertakari soziopolitiko eta kultural

asko pilatzen dira, hala nola Parisko Mundu-Batzarra, Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batzarra, *Jakin* eta *Euskera* aldizkariak, lauak urte horretan bertan gauzatuak, eta hurbilekoetan Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957). Ziklo honetan mota askotako kultur ekintzak bideratzen dira eta, egileak dakarrenez, “herri-gintza” da ekintza horiek gidatzen dituzten talde desberdinei batasuna ematen diena: “Belaunaldiaren kontzeptu orohartzaileak hitz giltzarri bat du: herrigintza. Horren azpian, atal gisa, kabitzen dira politika, gizarte-arazoa, kultura, hezkuntza, hizkuntza, literatura” (1997, 133). Euskal kulturagintza eraberritzeko gizarte-giro horretan parte hartzen duten idazleak, gerra aurreko eta ondorengoekin zubi-lana egiten dutenak aipatzen dira, beste artean, Hegoaldean Patxi Altuna, Txillardegi, Gabriel Aresti, Biktoriano Gandiaga, Joan Mari Lekuona, Joseba Intxausti, eta Iparraldean, Txomin Peillen, Jean Louis Davant, Ramontxo Kanblong, Manex Erdozaintzi. Belaunaldi hau osatzen duten gehienak eliz ikasketak egindakoak dira, edo bederen, prestakuntza gehienbat humanistan hezitakoak (Azurmendi, 1976, 17).

Frankismoak hala behartuta, idazle hauen jarduna militantea da eta, kasu askotan, lege-babesik gabe arituko da lanean eta, goian esan bezala, gizarte-arazo guztiez arduratuko da, hala nola kulturaz, hezkuntzaz, hizkuntzaz, literaturaz eta politikaz.

Nolanahi ere, egileak oharrarazten duenez, esan behar da “1960ko hamarkadaren azken partean eta 1970eko hamarkadaren lehen aldiari gauzatzen dela jarduera desberdinen arteko bereizketa, eta bakoitzak bere bide propioari heltzea. Ez da kolpe batean gertatu, noski. Borroka politikoak ETaren inguruan desarroitzen du bere bidea. Ikastolak federazio gisa elkartzen dira. Hizkuntzaren normalizazioa Euskaltzaindiaren gidaritzapean bideratzen da” (1997, 133). Azken batean, belaunaldi

berri honen xede historikoa “euskarari maila eta esparru guztiak ematean datza: eskolatik unibertsitatera, literaturatik zientziara, tradizioetik korrante berrietara” (1997, 133). Lur argialetxea sortzean, adibidez, xede horixe –liburu-politika planifikatua, alegia–, bideratzea zeukaten gogoan Rikardo Arregik eta ingurukoek, kulturaz eta zientziez dibulgazioko oinarritzko saiakerak, jatorrizkoak nahiz bestelakoak itzulpen edo moldaera modura argitaratuz. Urrats berri honek, egilearen ustez (1997, 137-138), aurreko belaunaldiko sektore batekin hausten du, Ibar batekin edo Aitzolen belaunaldiarekin, adibidez, ez Luis Eleizalderekin. Epealdi honetako liburugintzari dagokion beste ezaugarrietako bat da, gaien sail desberdinetan literatura nagusitzen dela, lehen aldiz, hain zuzen, euskal letren historian. Belaunaldi berriaren emaitzak berantiarak dira eta, giza eta gizarte-zientzien sailean, saio politikoak, soziologikoak, filosofikoak, geografikoak eta historikoak, ordurarte inoiz ez bezala lantzen dira. Egileak produkzio-mota honetaz halako balorazio-moduko bat ere egiten du:

“Liburu teoriko, azterketa, ikerketa, gogoeta, saio (espekulatiboa salbu) eta batez ere dibulgaziozko liburuz hornitzen da sail hau. Belaunaldi berriaren ekarpen berezi-bereziena hementxe islatzen dela esango nuke. Ez dira beti lan biribilak eta beteak, ezta gutxiago ere. Lan berde, gordin eta mikatzik badago tartean, baina esfortzuak merezi izan du. Soziologia eta politikaren eremuetan sailkatu ohi den liburugintza pil-pilean zegoen 1970 inguruko urte haietan. Marxismoa eta sozialismoa indarrean sartu ziren euskal mugimenduetan eta honek ekarri zuen nazio-arazoa eta arazo soziala birplanteatzea, bai ezkerren aldetik eta bai abertzaletasunaren aldetik. Egin diren sasoirik hobereenen artean aipatu behar dira Joxe Azurmendirenak, Paulo Izueta, Jokin Apalategi eta Gotzon Garaterenak (...) Aro osoan 70 bat soziopoli-

tikazko titulu daude. Liburu-mota oso desberdinak: azterketak, dibulgaziozkoak, moldapenak, laburpen moldatuak, klasiko marxisten itzulpenak, etab.” (1997, 151-152).

“Gizarte-mugimenduetan sozialismoa eta marxismoa oso indarrean zeuden garaiak ziren haiek. Dena den, belaunaldi berri honek egiten duen liburu ez dago irakurleria soziologikoari egokitua, minoritarioa baita oso” (1997, 194).

Bigarren belaunaldia, 1976koa da, frankismoaren ostean irekitzen den juankarlismoarekin hasten den ziklo berriari dagokiona, zeina 1996raino luzatzen baita. *Euskal idazleak, gaur* liburuaren xedea, hain zuzen, belaunaldi honi buruzkoa aztertzea izango da, pasarte honetan espreski adierazia datorren bezala eta berriro hemen errepikaturik dakarguna:

“Hogei urteko ziklo berri baten azterketari ekiten diogu orain. Ziklo hauxe da hain zuzen liburu honek deskribatu eta kontatu nahi duena. Propioki ziklo gisa hartzen dut epealdi hau. Urte bat edo beste gorabehera uste dut euskal kulturgintzan aldi bat bukatzeaz dagoela eta bestelako jarduera batzuk indartuko direla. Ez dakit zenbaterainoko garrantzia izan dezaketen. Zer-nolakoak izango diren ere ez dakit, hori jakiteko perspektiba falta zaigu eta, baina zantzu batzuk industria kulturalen eta multimediaren aldetik ikusten ditut. 1976an Euskal idazleak gaur liburuia idatzi nuenean, presentea adina gutxienez, iragana kontatzen ari nintzenaren inpresioa izan nuen, eta esanda utzi nuen bertan. Inpresio berdintsua dut orain, eta esanda utzi nahi dut orain ere, profeta izateko bokaziorik gabe, hala ere. Epealdi hau Francoren heriotzarekin hasten da” (1997, 159).

“Autonomiaren belaunaldia” deitu izan zaion belaunaldi hau 1996an 40 urteren bueltan dabilena da eta bertan, adin-piramidean zaharretik gazteenera, idazle

hauek sartzen dira: “J. M. Elexpuru, Bernardo Atxaga, Jimu [Iturralde], Iñaki Zabaleta, Manu Ertzilla, Koldo Izagirre, Joxerra Gartzia, Xabier Olarra, Edorta Jimenez, Andolin Eguzkitza, R. Etxezarreta, Iñaki Mendiguren, Juan Garzia, Joanes Urkixo, Laura Mintegi, Pello Lizarralde, Pello Añorga, Joxean Sagastizabal, Hasier Etxeberria, Felipe Juaristi, etab.” (1977, 397). Hauek, 1956koak ez bezala, ez Seminarioa, baizik EHU ezagutzen dute eta beren lehen frogak literatur aldizkarietan egiten dituzte (1977, 399).

Belaunaldi honen ezaugarria, dirudienez, literaturari aitortzen zaion autonomian datza gehienbat. Konpromisoa versus autonomia da etenaren arrazoi nagusia. Hala dio J. M. Torrealdai egileak (1997, 426-427): “*Euskal idazleak gaur* libururako inkesta egin nuenean, ea idazleak konprometitu behar zuen galdetu nuen. Idazleen % 58k baietz zioen. Konpromiso horrek pertsonaren mailakoa behar zuen izan, literaturaren mailakoa, idazle-mailakoa. Sartre eta Txillardegia eman zituzten eredutzat, idazletako batzuk. Belaunaldi berria aurrekoaren aurka altxatzen da eta literaturaren autonomia, dinamika propioa errebindikatu eta aldarrikatzen du gogoz eta gogor. 1975ean Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirre bikoteak argitara eman zuten ‘Ez dezagula konposturarik gal, halere’ izan zen abiapuntuko testua. Ideologiaren, politikaren, euskalgintzaren eta gainerako interes guztien morrontzatik libratu nahi zuten literatura. Literaturaren mistika bat hedatu zen urte haietan. Ez da harritzekoa ondoko urteetako iritzien zaparrada eta eztabaiden uholdea. 80ko hamarkada osoan irauten du idazlearen konpromisoari buruzko polemika-giroak (...) Gaur zer? (...) Bi mulzo handientzat gaur plazaratzen ez bada ere, arazo hau ez dago hila: batzuek garbi dute gaur-gaurkoa dela idazlearentzat konpromisoaren gaia. Beste multzoak kezka bezala

bizi du hori. Gazteentzat kezka gehiago da arazo bizia baino”.

Belaunaldi honen ezaugarri nagusia zein den ere esaten da, *Susa*-koen hitza jasoz: “Epealdi honen hasiera-hasieratik belaunaldi berri bat plazaratzen dela esan genezake. Nola izendatu? Ez dakit. Baina agian ez legoke gaizki ‘Autonomiaren belaunaldia’. Autonomoaren horrek garaiari egingo lioke keinu, baina batez ere literaturgintza ulertzeko modua da azpimarratu nahi duena. 1984an, Susan, Gunilla Von Bismark izeneko Susako idazle gazte batek bi belaunaldien distantziak, ironia eta guzti, markatzen ditu (...) Gaur egun, Liburu Urdineko argazki txukunetan agertzen ez ziren izkiriataile trake-tsez osatutako belaunaldi berri bat saiatzen ari da errele-bua jasotzen (...) Belaunaldi berriak bi puntutan egin du aurrekoarekin topo, konpromisoan eta euskara batuan. Idazleak, idazle gisa, nola ulertu behar du bere lana aberriarekiko, herriarekiko, gizartearekiko? Autonomiaren defentsa integrazioaren defentsari kontrajarri izan zaio. Diferentziak ikusteko aski da, kasurako, Txillardegiren eta Bernardo Atxagaren arteko polemikara jotzea (...) Hizkuntzaren normalizazioa edo euskara batuarena da, beste konnotazio-gunea. 56ko belaunaldiak bere-bere gaia du euskara estandar, batu edo modernoaren gaia. Eta buru-belarri langintza horretan sartua segitzen du epealdi honen hasieran. Belaunaldi berriak, berriz, euskara batuaren oinarriak jarrita aurkitu ditu, eta bidea eginago” (1997, 344-345).

Kulturgintzan berritasuna, beraz, industria kulturalak eta multimediek dakarte. Testuinguru honetan kokatu behar da euskarazko argitalgintzaren sektorea. Egilearen ustez, Erein eta Elkar argitaletxeak izango dira garai honetan protagonismoa hartuko dutenak: “1976 ondoren editorialgintzan bete-betean ikusten ditugun batzuk aurreko urtealdian dituzte zainak. Hori da, adi-

bidez, bi nagusien kasua. Erein da bat eta Elkar bestea. Erein marka 1976an agertzen da lehen aldiz, baina Ereineko lagunak Etor-en zebiltzan 1970etik 1972ko krisi bitartean eta geroztik Mensajero-ren Gero-n. Elkar argitaletxea ere sortu 1972an sortu zen Iparraldean, baina oraingo lanean hasi 1977an hasten da Hegoaldean, eta bereziki Jose Mari Sors-ek zuzendaritza hartzen duenean” (1997, 560). Argitaletxe hauetan, orokorrean, enpresa-espirtua nagusitzen da: “Kultur militantziaren urre-garaietan sorturiko editorial eta aldizkariak orduko espiritu hari gorputz juridiko egokia eman beharrean aurkitzen dira orain, krisi latzagoetan erori aurretik” (1997, 561). Hori batetik, eta bestetik, Euskal Editoreen Elkarteak profesionaltasuna aldarrikatzen du, “erresistentzi eta militantzi izpirituari” uko egin gabe (1997, 585), halere. Honela, militantzia eta profesionaltasuna elkartu nahiko dira, baina, beti ere, enpresa-planteamendu garbiaren barruan eta, gainera, sektoreari izaera pribatua emanaz.

Bestalde, aldaketa politikoak ziklo berri baten hasiera dakarrela aditzera ematen duten ezaugarrien artean, besteak beste, hauek leudeke: alderdi politikoaren egunkariak eta aldizkariak; euskararen normalizaziorako erakundeak (UZEI, EIE, AEK, HABE, EHU, EITB) edota haren sustapenerako gizarte-mugimenduak (EKB, EHE) eta horien aldizkariak, aldizkako argitalpen politikoak (*Punto y Hora de Euskal Herria, Garaia; Berriak; Egin eta Deia* egunkariak), ondoren literatur aldizkari berrien loraldia 1978-1989 epealdian zehar (*Pott; Zurgai, Susa, Oh! Euzkadi, Hegalez- Hegal, Maiatz, Antzerti, Hegats*); horiekin batera, irakaskuntzako testuliburu eta ikasmaterialen eta literatur produkzioaren etengabeko gorakada. Baina, batez ere, goiko testuan esaten den bezala, industria kulturalaren eta multimedien protagonismoa merkatu-sarean. Daturik adierazgarrienak izan daitezke, “Bilintx” mengadendaren sorrera 1990eko abenduaren 6an,

kultur industriari aro berri bat markatzen duena: “Megabilintzek, orain, etorkizunari egiten dio aurre, liburu-denda-mota berri bat estrainatuz, eta euskarari ohorezko leku bat eskainiz hor (...) European punta-puntan dabilen formula honekin bideak itxi nahi dizkie kanpotik sartu nahi duten batzuei. Hori bateko. Eta besteko, eta batez ere, medioaren, bitartekoaren, lanabesaren, duintasuna eman nahi zaio euskerari berari (gogoratu Mc Luhan-en ‘the medium is the message’ hura), hau da, dendarik modernoenean ere euskal liburuak baduela lekurik” (1997, 653-654). Bestalde, euskal liburugintzaren politikan garrantzi handia izan dute irakaskuntzarako testuliburuek eta ikasmaterialek eta hauek, bide batez, ilustratzaile eta grafisten belaunaldi berri bat sortzeko bide ematen dute (1977, 267). Kultura akademikoak, bereziki EHUn euskarazko irakaskuntzan eta ikerketan aurrera egin ahala, indar handia hartzen du, gure *Intelligentsia kimatuaren orbela* (1996, 297) liburuan egiaztatzen dugun bezala.

Eta 1976ko belaunaldiaz geroztik, zer? J. M. Torrealdaik planteatzen duen 20 urteko zikloaren arabera, 1996an gertatu beharrekoa zen belaunaldi-aldaketa, baina oraindik gauzatzear dago horrelakorik: “Erreleboak huts egiten digu. Idazleen tradizioa moztu egiten dela ematen du. Urte-sail batean, 15-20 urte, euskal idazleen emankortasuna ziarra daitekeela dirudi. Baina leize handi bat gerta daiteke gero. Gaurko idazlegoaren batez besteko adina 49,7 urtekoa da. Idazlea onenean dagoen adina da hau. Gazteagorik badago, eta dezente. Baina batez besteko adina horren altua da, hain zuzen ere gazteenen multzoak huts egiten duelako” (1997, 399). Egoera paradoxikoa da. Batetik, “publiko bat badago, argitalgintza profesional bat badago, idazle ‘profesional’ andana bat badago”, baina bestetik, “onen-onenean egon beharko zukeen momentua iritsi aurretik, 1956ko belaunaldiko idazlea erretiratu egin da, jubilatuta, idazteari utzi,

edota grinarik gabe, motel-motel jarraitu du”, indarrean segitzen duena 1976ko belaunaldia den bitartean: “Euskal kulturaren 1956ko belaunaldia da justu hori, ez indarrean datorrena, baizik badoana. 1956ko belaunaldiari, edo 1964koari berdin dio, testuinguru politikoa aldatu zaio, bere publikoa zahartu zaio. Euskal literaturaren plaza, gaur bertan, 1976ko belaunaldiarena da” (1997, 399-401).

Itxura guztien arabera, badirudi azken belaunaldi honek 1984koa irentsi egiten duela. Zergatik geratzen den itzalpean? J. M. Torrealdei (1977, 399) huts egiten duen belaunaldiaz mintzatzen da, adinaren arabera egindako sailkapenean idazle-talde horretan honako hauek sartzen dituelarik: batetik, “Pablo Sartre, Mikel Hernandez, Itxaro Borda, Josu Landa, Tere Irastorza, Jon Mikel Arano, Ander Iturriotz, Xabier Etxaniz, Iñaki Aldekoa, Manu Lopez” eta, adin-piramidean jaitsiz, “Javi Cillero, Joseba Etxarri, Karlos Linzasoro, Jon Arretxe, Luis Berrizbeitia, Joseba Gabilondo, Juan Luis Zabala, Pako Aristi, Inazio Mujika, Aitor Arana, Gerardo Markuleta, Xabier Mendiguren Elizegi, Arantxa Iturbe, Harkaitz Cano”. Azken labealdiko hauek oraindik aurreko labealdikoak baino umezurtzago ikusten ditu. Beste leku batean komunikabideetan murgildua dabilen 1990eko belaunaldiaz ari dela, literaturgintzan errelebuarena ez bide du ziurtatua ikusten: “Pentsatzekoa da gaur ere ez ote dagoen hutsune berri bat. Literatur aldizkaritxoak falta dira berriz. Aldizkariak badira, inoizkorik ugarien. Baina denak informatiboak. 90eko belaunaldiak zeregin informatiboetara jo du. Irrati-telebistak direla, Egunkaria dela, prentsa lokala dela. Literatur belaunaldia galdua ote? Non dago errelebua orain? Lubaki Banda aipatu ohi da” (1997, 353).

Ohar osagarri gisa esan dezagun, belaunaldiaren kontzeptua nagusiki adinaren arabera egindako sailkapenean aplikatzen badu ere, ez dela horretara bakarrik

mugatzen. Aroen araberako sailkapenean ere aurkitzen da tarteka, adibidez Aita Larramendiz ari denean: “Sekulako eragina izan zuela Larramendik (1690-1766), ez da dudarik. Larramendiren eskolaz, belaunaldiaz, Larramendiren literatur mugimenduaz mintzatzen dira adituak (...) Jarraitzaile asko izan zituen Larramendik. Hurbilanak Agustin Kardaberaz, Mendiburu...” (1997, 75). Eusko Pizkundea deitu izan zaion 60 urteko aldiak (1876-1935) ari dela, azpiatalaren izenburu gisa 1876ko belaunaldia dakar, Bernardo Estornes Lasari jarraiki, honekin adieraziz data horretan euskal foruak abolitzean sortu zen mugimendu politiko-kulturala, euskaltzalea, funtsean foruzaletasunean oinarritzen dena. Honen berri azken atalean emango dugu, belaunaldien zerrendaz aritzean.

Adinaren araberako sailkapenean –funtsean eta gehienbat horretara mugatzen baitu kontzeptu horri–, iluntasuna da nagusi belaunaldiak izendatu eta zenbaiteko orduan. Adin-piramidearen abiapuntutzat 1974ko urte-data hartuta, bost “hazaldi edo talde” aipatzen zituen (1977, 77-78), lehen azaldu bezala, gerra aurreko idazle-hazaldian bi –1936koak– eta ostekoan beste hiruak –hauek 1956koak, edo 1864koak–; 1996ko adin-piramidean, ordea, 1956koan, pasarte batean, “gutxienez pare bat belaunaldiren” kontua aipatzen du eta beste pasarte honetan, berriz, gaian nahiz idazkeran idazleengan eragin gehien izan duten idazleak izendatzean, 1956ko belaunaldiari dagokionez, hiru hazaldikoak bereizten dira: lehen ordukoak –Txillardegia eta Aresti–, bigarren aldiko bat –Saizarbitoria– eta azken aldiko beste bat –Lertxundi–; 1976ko belaunaldikoan artean, berriz, bi bakarrik, hots, Bernardo Atxaga eta Sarrionandia (1997, 415-416). Hemen zerbait gehiago argitzen da belaunaldi baten baitako hazaldi desberdinen kontua. Nolanahi ere, ez da sistemaz zehazten zenbat belaunaldi koexistitzen diren ez 1974ko adin-piramidean ez

1996koan, gutxiago oraindik zeinek zeini jarraipena ematen dion ere. Baina han eta hemen barreiatuki esanak bilduz, ondoko hauek bederen badakartza: 1936koa, 1956ko bi (edo hiru?) labealdiak –1956koa eta 1964koa, azken hau bere fase laikoarekin–, eta belaunaldi honen ondotik, beste pare bat gutxienez, 1976koa, “autonomiaren belaunaldia” deitua (1997, 397-401) eta 1984koa, berrikitan “tropelekoa” deitu zaiona, biak literaturaren loraldian kokatzen direnak.

Azken batean, ez dakigu zenbat belaunaldirekin geratzen garen, ez dakigu 1984koa eta 1990ekoa aintzat hartu beharrekoak diren ala ez. Era berean, ez dakigu 1876ko belaunaldia ere gerra aurreko eta osteko beste belaunaldien zentzu berean hartu beharrekoa ote den ere.

Egile honen hiztegian nahasketa aski handia nabari da, ez baitira oinarrizko kontzeptuak behar adina bereizten. Batetik, zenbait pasartetan, belaunaldia eta taldea berdintzen direla dirudi edo, bederen, ez direla argi finkatzen bien arteko muga kontzeptualak, ez lehen liburuan (1977, 79) ez bigarreanean (1997, 39). Baina Robert Escarpit-en “ekipoak” ez al du kontzeptu alternatiboa izan nahi ohiko belaunaldiaren aurrean? Epealdi eta zikloarekin ere antzeko zerbait gertatzen da, lehen aipaturako pasarte hartan biak kidekotzat hartzen baitira.

Baina kontzeptuen mailako alderdi hori albora utzita, gerra osteko belaunaldiez ari baita, bera bere hipotesia betetzen delakoan dago, 1956 eta 1976ko belaunaldietan bederen bai. Belaun-trukaketak zikloka erreproduzitzen baitira, hogeiko honek funtzionatzen al du aurreko beste bi ziklo historikoetan –1916 eta 1936koan–, eta ondoko 1996koan ere?

Belaunaldien arteko etena da beste arazoetako bat, noiz ematen den eta noiz ez ezin erabakirik. Zalantzarik ez bide du esatean belaunaldien arteko etenaren historia dela hasieratik 1936ko gerra artekoa, baina urte-muga

honi buruz bere zalantzak ditu: “Jarraitasunik ez dago Leizagarrarengandik Sarako eskolara, eta hemendik Larramendirengana. XIX. mendearen erdialdera Bonapartek dakarren joerak ere ez du zerikusirik aurrekoarekin. Arana Goiriren hizkuntza ideiek ere herri-hizkeraren eta euskara klasikoaren tradizioa errotik ukatzen dute. 1936ko gerrak ez dakit etena edo parentesia dakarren. Gerra osteko belaunaldiak, honek bai, aranismoarekin hautsiz egiten ditu planteamenduak eta, lehen aldiz, tradizio zaharragoarekin lotuz...” (1997, 80). Haragoko beste pasarte batean, ordea, ziurrago mintzatzen da “1936ko gerraren etenaz” (1997, 559); 1976koaren ondokoaz, berriz, “erreleboak huts egiten digu” (1997, 399), dio. Zalantza ez denean, nahasketa da nagusi. Zein neurritan izan daiteke baliagarria kulturgintzak historian zehar izandako aldaketak koherentziaz eta erregularitasunez azaltzeko gauza ez den metodoa? Bestalde, idazleen belaunaldiez baldin bada jarduna, ez diogu zentzu handirik aurkitzen, adibidez, gerra osteko argitaletxeen eboluzioa azaltzeko belaunaldiaren kontzeptuaz baliatzeari (1997, 559).

Izaera eta garai desberdinetako datu estatistikoak metatzen direnean eta horien azalpenerako prozedura halamoduzkoa erabiltzen denean, gerta liteke zifra solteez osaturiko puzzle baten aurrean aurkitzea. Hori bai, grafikoak eta taulak ongi hornituta eta argazkiz dotore jantzita, baina puzzlea. Honelako lanak, jakina, gutziagariak gertatzen dira, batez ere, zifren bila dabiltenentzat.

J. M. Torrealdairen aurkezpen honek bere ondorio nabariak utzi ditu gai honen inguruan aztertzen aritu direnengan eta, zenbaitentzat erreferentzi iturri bilakatu den aldetik –Agurtzane Ortizek (2004, 2020-203), adibidez, haren eskemari orpoz orpo jarraitzen dio–, gogoeta gisa aintzat hartu beharrekoa da, azterbide-mota honetan inplikatuak dauden oinarrizko hainbat puntu

III. Periodizazioa euskal literaturaren historian

Euskal kulturaren historia ikuspegi gehienbat sozio-historikotik edo soziologikotik egin dutenengan sailkapen kronologikoaren arazoa nola tratatua izan den aztertu ondoren, ibilbide bera egitera goaz, baina euskal literaturaren historiak gainbegiratu ki arakaturaz. Historia hauetan belaunaldiaren kontzeptua baino areago, edo bezainbat, periodizazioarena da auzitan dagoena. Jesus Maria Lasagasbaterrek esana utzi du “La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-literaria” izeneko lan aski kritikoa (1983, 240-241), arazo honek oraindik ere erabakitzeke segitzen duela euskal literaturari buruzko historiografian:

“A mi juicio, uno de los puntos más frágiles es el de la periodización, cuestión, por otra parte, sin resolver todavía en nuestra historiografía literaria. La articulación de la historia en períodos no es sólo una hipótesis de trabajo válida, sino la respuesta metodológica a la estructura y mecanismos del desarrollo y la evolución histórica. Como más arriba ha quedado apuntado, los grandes períodos, desde el Medievo a las Vanguardias, que articulan la historia de las grandes literaturas occidentales no son aplicables a la literatura vasca. Por otra parte, está todavía por hacer una

rigurosa reflexión socio-literaria que fundamente y justifique una periodización de la literatura vasca en el contexto socio-histórico de la cultura occidental, que es el nuestro, pero adecuado también a los factores y leyes específicas de su evolución. El resultado, inevitable casi, de esta carencia, es una historia de la literatura invertebrada, reducida a una mera acumulación cronológica de los datos empíricos, una mecánica articulación de la historia literaria por siglos, o una ilegítima extrapolación a la literatura de factores de cambio que, si son pertinentes en el nivel histórico general, no tienen por qué serlo necesariamente también en el literario. Aunque la *Historia de la literatura vasca* de Michelena no cae, como hemos señalado, ni en un extremo ni en otro, sí adolece de una reflexión histórica que permitiera formular hipótesis autónomas de periodización y de articulación de nuestra literatura como proceso histórico”.

Orokorrean kritika aski zorrotzak zuzentzen dizkie euskal literaturaren historiaz arduratu direnei. “Euskal literaturaren azterketa 1960-1990” artikuluan (1990), aurreko lan horretan esandakoak errepikatzen ditu, baina hemen euskaraz jarrita. Koldo Mitxelena bera salbatzen ez bada, gutxiago oraindik haren ondoren etorri direnak. Ia guztiak kultur edo literatur gertakariak aroka edo mendeka azaltzera mugatu dira eta ez bide dute erakusten horiek historiaren argitan irakurri eta ulertu ahal izateko azterbiderik. Luis Villasanteren *Historia de la literatura vasca* (1961) inolako irizpide historiografikorik gabe egina da¹: Ibon Sarasolaren *Euskal literaturaren historia*

¹ “En realidad, el trabajo de Villasante no es propiamente una historia, ya que no hay la más mínima sistematización del material, más allá de su desnuda e impertinente, es decir, no pertinente, yuxtaposición cronológica, y no se avanza tampoco una reflexión sobre el desarrollo de la literatura y los mecanismos o el sentido de su

(1970) da euskal ikuspegi marxistatik begiratuta egin-dako lehena, baina, egiten duen interpretazioa meka-nizista izaki, bere helburua lortu gabe geratzen da². Luis Mari Mujikaren *Historia de la literatura euskérica*-k ere Ibonen aje bera du, literatur eboluzioa azaltzeko giltzarri gisa testuinguru soziohistorikora eta idazlanen deskriba-pen hertsiki literarioa egitera jotzen badu ere, ez helburu bata ez bestea lortzen ditu, datuak metatu besterik ez baitu egiten³. Santi Onaindiak bere bost tomotan eginda-ko historian, orobat, idazleak mendeen edo belaunaldien,

evolución (...) Villasante no ha hecho obra de historiador. Ha puesto simplemente al alcance de los lectores –y también de los historiadores– unos materiales ciertamente importantes, sobre todo en cantidad, pero con él la comprensión del hecho literario vasco en su devenir no ha avanzado nada” (2004, 242).

² “Porque la explicación que se nos da de nuestro devenir literario desde la sociedad y la historia es en la práctica una mecanicista, burda e ideologizada teoría del reflejo, sin una suficiente atención al problema de las mediaciones, ni a eso que ya desde los orígenes del pensamiento marxista –el propio Marx y sobre todo Engels– se ha venido denominando la autonomía del arte (...) Quiere ello decir que la historia social de la literatura vasca sigue estando hoy en la misma situación deficiente y discutible en que quedó tras el primer intento de Ibon Sarasola” (2004, 244-245).

³ “La misma preocupación por considerar el contexto histórico-social como clave de explicación de la evolución literaria se da en la Historia de la literatura euskérica de L. M. Mujika. Se multiplican datos, en algunos casos, pero no se aumenta ni se enriquece el rigor de la lectura social del hecho literario. L. M. Mujika concede también especial importancia en el estudio de los autores a la descripción propiamente literaria de las obras, ejemplificada en ocasiones con el comentario de textos concretos (...) Si a todo esto se añade el deficientísimo castellano en que el libro está escrito, la conclusión a la que se llega es que un trabajo que pretendía, parece, aunar en una única visión de la literatura vasca la explicación de la génesis social y la estructura literaria de las obras, propósito altamente interesante y necesario en el contexto de la historiografía literaria vasca, no ha conseguido ni una ni otra finalidad” (2004, 245).

edo euskalkien arabera sailkatzera mugatzen da⁴. Badira beste historia batzuk, hala nola J. Erzibengoa eta P. Ezkiagarenaren *Euskal Literatura* (1972), Enrike Zabalaren *Euskal Literatura. Alfabetatzeko* (1981), P. Urkizuren *Lengua y Literatura Vasca* (1978), baina hauek, irakas-kuntzarako eginak izaki, ez dauka horietaz iritzirik. Bukatuz, J. M. Lasagasbasterrek ateratzen duen ondorioa da, Koldo Mitxelenak 1960an irekitako bidea oraindik egiteko dagoela edota, egin bada ere, desegoki egina izan dela. Literatur testuari bere autonomia erlatiboa eskainiz eta gizarte-egituren argitan ulertuz⁵, bi alderdi horiek batera hartuta egindako historiarik ez omen da ematen⁶.

⁴ “En los seis volúmenes de que consta el proyecto, Onaindia pretende dar cuenta de todos los autores que han escrito en euskara, desde el siglo XVI hasta hoy (...) La obra cumple bastante bien esa finalidad. Pero nada más. Porque no pasa de ser un elenco cronológico de autores, distribuido por siglos o por generaciones, como es el caso para los escritores del siglo XX, y por regiones lingüísticas o dialectales. No existe prácticamente una reflexión medianamente profunda sobre el devenir y la evolución literaria vasca y la exigua descripción crítica que se hace de las obras adolece de un aparato metodológico moderno y científicamente serio, o no supera en muchas ocasiones el nivel del comentario lingüístico puro. Por otra parte, y a pesar de esa indudable ausencia de estructura verdaderamente histórica y crítica, se nota en la obra de Onaindia una especie de *parti pris* a la hora de incluir y tratar a autores, o en la selección de aquellos que le sirven de eje para distinguir generaciones literarias”. (2004, 246).

⁵ Metodologiaren aldetik nolakoa izan beharko lukeen ere aurrerartzen du: “La historia de la literatura no puede limitarse a ser –y cada vez menos– una mera historia de los textos. Tiene que ser una historia de la vida literaria, en el interior de la vida social. Y la vida literaria vasca no puede ser explicada con rigor si no se parte de la situación diglósica existente y de lo que ello condiciona la práctica –escribir y leer– de la literatura” (2004, 251).

⁶ “Tal vez la impresión que el lector pueda sacar de este rápido paseo por la historiografía literaria vasca sea bastante negativa. Demasiado, quizás. En realidad, el camino abierto por Michelena en el

Egia da, goian esan bezala, euskal literaturaren eboluzioa historiatzeko orduan eskaintzen diren sailkapen kronologikoak ez datozela arrazoituak, ez daudela literatur testuak sortuak izan direneko testuinguru sozialean egoki kokatuak. Eginkizun horretan, Koldo Mitxelenak (1988), Villasante eta besteen antzera, hark ere mendeetan eta urte-epaldietan sailkatzen ditu autoreak, honela banatuz: hasteko XVI. eta XVII. mendeak; gero 1700-1850 urtealdia eta, azkenik; 1850etik gaurko egunak artekoa (1960). Bere hitzaurrean ez du ezein azalpenik ematen sailkapen kronologiko horretaz. Beraz, periodizazioari dagokionez, J. M. Lasagabasterrean besterik irakurtzen bada ere, ez da zaila Koldo Mitxelenaren ekarpena gainditzen, puntu horretan ez baitakar deus berezirik.

Idazlanen periodizazioaz sarrera orokorra egin eta gero, ordu da belaunaldiaren trataerarekin hasteko. Goazen, txango historiografiko honetan, J. M. Lasagabasterren bidea berregitera, belaunaldien gai honek iturri horiek arakatzea eskatzen baitigu. Ibilaldiaren luzea hiru ekinalditan burutuko da. Lehenik, euskal literaturaren historia orokorraz diharduten lanak aztertuko dira, segidan epealdi edo genero jakin bati buruzko saio mugatuak eskaintzen dituztenak eta, azkenik, bilduma desberdinetan datorrena.

Euskal literaturaren historia orokorrak

1. Norekin hasiko eta, ORIXEekin, bere *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra* izeneko liburuxka baita euskal literaturaren historiaz osotasunaren ikuspegiarekin

año 1960 está todavía sin recorrer. O ha sido en todo caso bastante mal recorrido” (2004, 249).

eta euskaraz egindako lehen lana, 1927an argitaratua. Saio honetan, ez belaunaldiarena, baizik “biribilkia edo cicloaren” kontzeptua erabiltzen du. Hiru autore handi dira ziklo horren buruan doazenak: Axular, Larramendi eta Arana. Azken honen gidaritza zalantzarik gabekoa da: “Arana gabe edo Arana’z leku ari izanak eta ari direnak badituzu, baino aren aldekoak naiz aitzikoak, naiz bitartekoak, naiz Arana-kukuak, ua dute eragile nola edo ala” (2002, 73). Ageri denez, euskal lumak baino areago, kultur eragileak dira hor nabarmentzen dituenak. Axular idazlea da salbuespen bakarra. Beraz, etena dakarten idazle nagusien arabera sailkatzen da euskal literaturaren historia.

2. Koldo MITXELENak ere, gaztelaniazko bere *Historia de la literatura vasca*-n (1960), mendeka eta urtealdika sailkatzen ditu euskal idazleak⁷. Bi mende, XVI. eta XVII.a bakarka ematen ditu, eta 1700-1850 eta 1850-1960 epealdiak ere berdin. Orokorrean ez da mintzatzen ez kultur edo literatur mugimenduaz, ez eskolez –oso zeharka ez bada bederen, ezta kultur berpizkundeaz ere, eta inoiz ez belaunaldiez. Era berean, orokorrean, ez bide du inor izendatzen eskola jakin baten buruzagitzat. Txahoren kasuan, adibidez, Iparraldean ez zuela beren inguruan eskolarik sortu esatera mugatzen da soilki (1988a, 95). Geroagoko beste lan batean, ordea, Eugenio Ibarzabalek (1977, 53) euskal kulturaren prozesuaz orokorrean mintza zedila eskatu zionean, lau aro bereizi zituen: lehena Axularrena XVII. mendean, euskal literaturaren gailurtzat daukan *Gero*-rekin; bigarrena, Aita Larramendirena, XVIII. mendean; hirugarrena, Jose Mantero-

⁷ Euskaraz baditu gai honen inguruan egindako beste lan batzuk, batez ere “Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak” eta “Euskal linguistika eta literatura: bide berriak”, biak Deustuko unibertsitatean hitzaldi gisa emanak 1981ean.

larena *Euskalerría* aldizkariarekin; laugarrena, Sabino Arana eta R. M. Azkue bikotearena, zeinari Aitzolena erantsi behar baitzaio, *Euskaltzaleak* elkartearekin batera. Dena den, Koldo Mitxelenarentzat, Eusko Pizkundean zehar, hil eta gero ere, Sabino Aranaren eragina nabarmenduko da gehien: “No obstante, sería injusto medir su influencia en la literatura vasca por la huella de su obra original. El alcance de aquélla es mucho mayor, y se manifiesta no sólo en sus seguidores incondicionales (Luis de Eleizalde, el padre Arriandiaga, en la poesía el padre Ramón de Rentería)⁸ que llegaron a veces a extremar sus tendencias, sino también en los que no lo eran e incluso en los que proclamaron abiertamente su oposición. De Arana-Goiri más que de nadie procede en último término el mayor empuje y ambición de los escritores posteriores” (1988a, 145-146).

3. Luis VILLASANTEk, aurreko autoreak ez bezala, mendez mendeko sailkapenaren barruan, kasu jakin batzuetan, “belaunaldiaren” kontzeptua darabil bere *Historia de la literatura vasca*-n (1961). Zehazki, hauxe dio Aita Larramendiz ari den atalean: “Al tratar de exponer la literatura vasca de este lado del Pirineo en el siglo XVIII, no es posible prescindir del P. Larramendi, figura central, de quien arranca una nueva época, un renacimiento, o, más exactamente, ‘nacimiento’, ya que hasta aquí lo que hemos encontrado en esta parte del país ha sido poco más que nada. Al P. Larramendi fue a la vez apologista, vindicador, gramático, lexicológico, animador y polemista empedernido, todo en una pieza, además de maravilloso escritor castellano desde el punto de vista literario (...) Tras él y tributarios suyos de un modo u otro, surgen

⁸ *Egilearen oharra*: Hay una antología del padre R. de Rentería: *Olerkiak* (Tolosa, 1935).

en la segunda mitad de este siglo y primera del siguiente, una docena de escritores, casi todos eclesiásticos y casi todos guipuzcoanos y vizcaínos, que podemos denominar ‘la generación del P. Larramendi’” (1961, 116). Larramendiz ari dela, beste hainbat pasartetan ere, haren belaunaldiaz ari da, honako honetan bezala: “Los demás escritores vascos que hemos denominado de la generación del P. Larramendi, como todos alcanzaron el siglo XIX y sus obras se publicaron después del 1800...” (1961, 117). Beste pasarte batean, hemen zehatzago, aita Larramendiren belaunaldia 1800-1850 epealdian kokatzen du, horren ezaugarriak emanez: “En ella tenemos unos catorce autores notables por la extensión y calidad de sus obras. Es la generación que se ha dado en llamar del P. Larramendi. Puede mantenerse, si se quiere, este apelativo, ya que ellos son, sin duda, admiradores del ilustre jesuita, y a él son deudores todos, en mayor o menor grado, de su entusiasmo, amor y consagración al vascuence” (1961, 197). Baina gehienetan, aro desberdinetako idazleen ezaugarriak aipatzean, “literatur mugimenduaz” edo “berpizkundeaz” ari da, elkarrekin harremanean dauden idazleak multzoka hartuz, nahiz, taldean duen eraginarengatik, horietatik norbait gailenduko den, Axularrez ari denean bezala: “Este movimiento literario labortano no fue obra de escritores aislados o incomunicados entre sí, sino que, como ya lo notó acertadamente Urquijo, se debió a unos escritores que se relacionaban íntimamente, o sea, fue obra de una sociedad o tertulia de amigos” (1961, 68). Orobat, Larramendiren aroko itzalialdiaren ondoren datozen beste aroak, ez belaunaldiak, baizik “mugimenduak” deitzen die. Honela, hirugarren aroko Lore-Jokoen kasuan bezala, zeinetan Jose Manterola izendatzen baitu buru *Euskalerrria* aldizkariaren inguruan, “literatur mugimendua” du hizpide. Sabino Aranaz ari denean ere, berdin, “mugimendu erre-

formista” aipatzen du (1961, 290), ez belaunaldia, haren purismoari Azkue, Urkixo, Kanpion, Altube, Txomin Agirre, Orixe eta beste hainbaten literatur tradizioa kontrajarrit. Kontraerreforman, izen handia, errotik Sabino Aranari kontrajarria, Azkue da aita Villasanterentzat. Nolanahi ere, beste pasarte batean, “eskola aranista” ere aipatzen da, oraingoan honen kontrako joeran Azkue, Kanpion eta Urkixoren izenak emanaz (1961, 311). Laburtuz, aita Villasantek aita Larramendiren kasuan bakarrik erabiltzen du belaunaldiaren kontzeptua; bestee-tan, “mugimendua”, “eskola” eta horrelakoak agertzen dira. Aranaz edota Azkuez geroztik, bestalde, Villasantek ez du beste kultur mugimendurik izendatzen.

4. Ibon SARASOLAren *Euskal literaturaren historia*-n (1970), aurrekoan ez bezala, euskal idazleak urtealditan sailkatuta aurkezten dira, hiru epealdi bereiziz. Lehenak, luzeenak, 1545-1901ekoa hartzen du, bigarrenak 1901-1964koa eta hirugarrenak, azkenik, 1964-1971koa. Sailkapen honek, zuzenean esaten ez bada ere, badirudi gizarte-aldaketa soziopolitikoak eragindako ideologi etenaren adierazle direla. XX. mendeko euskal literaturaren bilakaera azaltzerakoan, hain zuzen, orduan garbiago ageri da irizpide politikoa izan duela gidari ondoko bi data hauek finkatzean: “Euskal literaturaren bi fetxa nagusiak, 1901 eta 1964, aldez edo moldez gertakizun politiko biri lotzen zaizkie. 1901-eko kasoan, Euzko Alderdi Abertzaleari⁹, 1964-ekoan euskaldungoari buruz sortzen hasten diren idea berriei. Lehen kasoan, Euzko Alderdi Abertzalearen ideologia politikoak, praktikan, ‘Jaungoikoa eta Lege Zarrak’ perpausan gorpuzten den

⁹ *Egilearen oharra*: Euzko Alderdi Abertzalea 1895-ean fundatu zen. *Euzkadi* aldizkariaren lehen numeroa 1901-ean agertu zen.

bloke monolitiko homogeen eta agiri bat osatzen duela esan daiteke. Bigarren kasuan, ezinbestean, ideologia monolitiko bat baino areago, zenbait korrante desberdin aurki daiteke” (1970, 49). Baina liburuaren laugarren partean, zeinetan idazle batzuen eta hauen idazlanen berri ematen baita oso modu eskematiko batez, beste kronologi sailkapen bat ere badator, berak honela burutzen duena: a) XVI. mendea, Etxepare eta Leizarragarekin; b) XVII. mendea, hemen Sarako eskolakoak eta Sarako eskolaz kanpokoak bereiziz; c) 1700-1780 epealdia, hemen, batetik, Iparraldeko lapurtar klasikoek jarraitzaile eta itzultzaileak eta, bestetik, Larramendi eta honen jarraitzaileak kokatuz; d) 1780-1850ekoa, hemen Iparraldekoak, Bizkaikoak eta Gipuzkoak sartuz; e) 1850-1880koa, zeinetan Bonaparte printzearen gidaritzapean biltzen den lankide-talde baten inguruan euskal dialektologiaren oinarriak finkatzen baitira; f) 1880-1900ekoa, Lore-Jokoen garaia hartzen duena, zeinetan literatur genero desberdinak lantzen hasten baitira, hala nola poesia, antzerkia, santuen biografiak, aldizkariak, prosa erlijiozkoa; g) 1901-1936koa, Sabino Arana, Urkixo eta Azkueren inguruan garatzen dena, poesia, antzerkia, nobela, ipuina eta prosa erlijiozkoa zein ez erlijiozkoa landuz; h) 1945-1964koa, zeinetan, gerra aurreko idazle-talde batek “desmoralizazio giro gaizto batean”, gerra aurreko literatur tradizioari “segida” emanez, “tematikaz eta moldez”, idazteari berrekiten baitio eta, poesiaren sailean, Arestiren iritziari jarraiki, hiru eskola bereizten baitira, hots, Lizardirena, Orixerena eta Lauxetarena; azkenik, 1964-1971koa, “gerra aurreko giroa eza-gutu ez zuen aurreko jenerazioari” dagokiona (1970, 81), zeinetan 1954an hasi eta 1964an finkatzen den euskal literatura berriztatzen baita, euskara kultur hizkuntza bihurtuz eta euskaldungoa nekazal eta erlijiozko pentsamoldetik askatu eta ikuspegi berriak sortuz eta, literatur

moldeari dagokionez, aurreko eskolekin hautsiz nola poesian hala beste generoetan.

Bestalde, Ibon Sarasolak, obrak eta idazleak aurkezterakoan, batean eskolak, bestean taldeak, honakoan mugimenduak, harakoan korronteak eta ideologiak, eta horrelako kontzeptuak erabiltzen ditu, gehiegi edo, hobeto esan, deus zehaztu gabe. Lehen aroan, adibidez, “Sarako taldea” (1970, 17, 100) deitzen dio Axularren inguruan ziharduenari, honela deitua zenbait idazlek elkarrekin harremanak zituztelako, hain zuzen. Baina bigarren aroaz diharduen beste pasarte batean, oso bestelako zentzuan erabiltzen du taldearena (1970, 54), hemen EAJko euskaltzaleei atxikia baitator. Bigarren aroari, ordea, funtsean “mugimenduaren” kategoria aplikatzen dio, euskaltzaleen inguruan gauzatzen dena XIX. mende-bukaeran. Hasieran joera desberdinez osatua zen mugimendu euskaltzale hau, berak esatera, homogeneizatu egingo da, sabinismoaren eraginez: “Julio Urkijok eta R. M. Azkuek proposatzen zuten soluziobide gehiago edo gutiago moderatuari, Arana-Goiriren joera guztiz garbizalea nagusitu zitzaion” (1970, 50). Era berean, 1936ko gerra aurreko euskal literaturaren gorabidea “mugimendu kulturalari” zor zaion zerbait da, (1970, 69), baina ez da eten ideologikorik ematen, nagusitzen dena klerikalismoa baita. Hegoaldean, abertzaletasuna sortu aurretik, “mugimendu literarioaren eragilea” (1970, 105) aita Larramendi izango da. Hemen belau-naldiaz baita jarduna, behin edo beste badarabil kontzeptu hau, baina, berriro esan, esplizituki batere zehaztu gabe, nahiz azalpenen harian agertzen diren zenbait ezau-garri, besteak beste, ideologia katolikoa –funtsean klerikala, erruralismoa, azientizismoa eta, orokorrean, literaturaren hizkuntzarekiko menpekotasuna. Zehazki, ordea, gerra aurreko eta ondorengo idazleen artean jarraitasuna ematen dela adierazteko erabiltzen da: “Jenera-

zino hau kontinuitatearen jenerazinoa da. Jenerazio honetako idazlerik ohartuenak, intuizioz bederen, konturaten dira honetaz, eta ondorioz, literatura mota guztiak (balio duten ala ez pentsatu gabe) lantzen ahalegintzen dira” (1970, 70); beste pasarte honetan, berriz, idazletalde hori talde “bentzutu” bati dagokiona dela esateko: “Garaiko poesia jenerazino bentzutu baten poesia da” (1970, 72). Beraz, laburtuz, 1936ko belaunaldiaz jardutean, “kontinuitatearen” belaunaldia batetik eta, bestetik, “bentzutuarena” izatea dira horien ezaugarriak. Orobat, 1936ko idazleak ez ezik, 1964koak ere belaunaldiaren kategorian sartzen ditu: “XX.gn. mende Erdiko Euskal Herri erreala ez zuela zer ikusirik euskaldungoari nagusitzen zitzaion ideologia ofizialarekin, haren ‘urte haroa’, hots, gerra aurreko giroa ezagutu ez zuen aurreko jenerazinoak ikusi zuen. Hura ohartu zen lehenik euskal problemari eman nahi zitzaion irtenbideak errealitateari buruz zuen desegokitasunaz” (1970, 81). Belaunaldiaren kontzeptua, bada, 1936ko zein 1964ko idazleen kasuan bakarrik erabiltzen du, diferentzia honekin: 1936koan ez zela etenik eman belaunaldikoen artean, baina bai 1964an. Eskolaren kategoria Sarakoari aplikatzeko bakarrik erabiltzen du.

Edozein modutan, belaunaldiaren kontzeptua Sarasolaren liburu honetan aski lausoa da, mugatu gabekoa, eta bakarkako pasarte asko irakurri behar da, hangoa hemengoarekin lotuz, ondorioetan zerbait garbi atera atera ahal izateko.

5. Santi ONAINDIAK sei tomoz osatutako *Euskal literatura* izeneko bilduman (1972-1990), bere aurreko gehien antzera, mendez mendeko sailkapen kronologikoa egiten du, XVI. mendetik hasita, eskualde guztietako idazleak azpisailkatuta emanez, hala nola, bere hitzak erabiliz, gipuzkoarrak, bizkaitarrak, Bidasoaz han-

dikoak, arabarrak eta nafarrak. II. bilduman dakarren bezala, jakitun da egilea, edozein motatako sailkapena egiten delarik ere –gizaldien zein eskolen zein belaunaldien zein joeren arabera, alegia–, ez dela egiteko erraza, zeren haren hiztegiaren kontzeptu horiek guztiak agertzen baitira. Nolanahi ere, mende bakoitzaren hasieran egiten duen laburpenean, buruzagi bat edo beste izendatzen ditu eta hauen ondoan jarraitzaileak, berak “izar txikiak” deitzen dienak. Honela, XVI. mendean Etxepare eta Leizarraga izango dira euskal literaturari lehen oinarriak ezarriko dizkietenak; XVII. mendean (I, 1972, 77), Axular eta Axularren inguruko taldea edo eskola aipatzen ditu (I, 1972, 119); XVIII. mendea aita Larramendiren “belaunaldiari” dagokiona da, kultur eragile gisa halakotzat hartu beharrekoa¹⁰, zeinaren argiak itzaltzeke jarraituko baitu XIX. mendean zehar aski aurrera egin arte¹¹; aita Larramendiren kasuan bezala, XIX. mende-bukaeratik hasita, Sabino Aranarekin abiatzen den belaunaldiaz ari da, zeinetan bi talde bereizten baititu, batetik, Arana, Azkue eta Kanpion eta, bestetik Unamuno, Baroja eta Maeztu¹², guztien gainetik Sabino

¹⁰ “Oraintsu arte, XX’garren gizaldirarte noski, Gipuzkoa’ko ta Bizkaiko idazlerik urtenenak ari zor diote geien bat. Naiz neurritzak ondu, naiz eliz liburuak antolatu, aren irakatsiak zituzten aurrean” (I, 1972, 190).

¹¹ “Bai, oraindio etzaigu itzali gizaseme ura, Bizkaiko idazlerik landu, jantzi ta bizkorrenak, emeritzagarren gizaldikoak diot, aren ildotik ibilli zitzaizkigun” (II, 1973, 17).

¹² “Egoera onek bultz-eraginda bota zigun Arana-Goiri’k S.O.S. ikaragarria: ‘Ilten dago euzkera!’. Ta etzan su gabeko etxean jausi deadar ura: izan zuen oiartzuna. Gizaseme errimek osaturiko belaunaldi berri bat sortu zan, edota-ta jaiki zan oiartzunaren otsari erantzunik. Ordukoak dira, adibidez, bi talde auek: Arana Goiri, Azkue ta Kanpion batetik eta Unamuno. P. Baroja ta R. Maeztu bestetik, beste askoren artean. Seirok argi ta langilleak” (III, 1974, 9).

Aranaren eragina gailentzen delarik¹³; XX. mendeko bigarren hamarkada-bukaeratik 1936ko gerratea hasi arteko epealdian, Jokin Zaitegiri jarraiki, Aitzolen aroa edo belaunaldia ezartzen du¹⁴. Geroztik zer? Sei tomo argitaratu zituen, eta zazpigarrena, antza, prestatua zeukan, horrekin amaituko zuela baitio (VI, 1990, 13 or.). Azken honen berririk ez dugu, baina seigarrenean, zeinetan gerrate aurrean jaiotako idazleen zerrenda luzea eskaintzen baita, ez da berritasuna lekarkeen deus berezirik sortzen.

Beraz, Aitzolen aldiak ez du etenik gerra ostean. Agintzen duen zazpigarren tomoan ote dator? Santi Onaindiak, beraz: bat, taldea zein eskola sinonimotzat dauzka Axularren kasuan; bi, belaunaldiaren kontzeptua darabil Larramendiren zein Sabinoren zein Aitzolen aroz hitz egiterakoan; hiru, kontzeptu horien edukia ez da zertzen.

6. Luis Mari MUJIKAk, orobat, bere euskal literaturaren historian kanta zaharren azalpena egin eta gero, mendez mende aurkezten ditu idazleak eta idazlanak *Historia de la literatura euskérica-n* (1979), mende bakoi-tzean Iparraldekoak eta Hegoaldekoak bereiz emanez. Normalean, autoreak literatur korronteen arabera sailkatzen ditu. Aurkibidean aurki daitekeen ismoen zerrenda luze-luzea da: errenazimendua edo berpizkundea, kontzeptismoa, kreazionismoa, utilitarismo erlijioso, hizkuntz apologismoa, nazionalismoa, lirismoa, erromanti-

¹³ “Sabino Arana Goiri dugu beste aldetik euskerea gaizkatu ziguna. Politika izan zan bere arazo apartekoa; bere erria bizirik atera nai izan zuen” (III, 1974, 11).

¹⁴ “Auxe dugu Aitzol'en belaunaldia. Gudu aurreko zazpi bat urtean, berak batez ere, sustatu, bizkor-azi ta aurrera eraman zigun orduko gora-naiezko mogimendu guztia, *El Día*, *Euzkadi* egunerokoak eta *Yakintza* aldizkariaren bitartez. Aren inguruan babestu giñan ainbat eta ainbat idazle ta euskaltzale. Merezi du, beraz, tolosarrak dalako aroaren erregetza” (IV, 1975, 13).

zismoa, erruralismoa, errealismoa, apologismoa, etnozentrismoa, popularismoa, kostunbrismoa, aranismoa, exogenismoa, puritanismoa, mistizismoa, eta gehiago. Eskola-konturik ez dakar, ezta idazle-talderenik ere. Belaunaldiaren kontzeptua, bai, ordea, zeina osatzen baitute 1930eko hamarkadan nabarmendu ziren poeta gutxi batzuek, zehazki Loramendi, Lauaxeta, Lizardi eta Orixek¹⁵. Beste pasarte honetan antzeko esaldia errepikatzen du, garai hartan berpizkunde poetikoak ezagutu zuen gorakada azpimarratzeko asmoz, izen berak emanez eta bakoitzari buruzko balorazioak eginez¹⁶. Geroztik, gerra ostean alegia, izan ote da beste belaunaldirik? Bere idatzietatik ezin da erantzun zehatzik atera, gerra osteko euskal poesiaren garapenaz ari delarik, data bat baino gehiago ematen baititu: “Algunos de ellos (gerra aurreko

¹⁵ “El siglo XX conocerá, por otra parte, la generación literaria más rica y cualitativa de toda la historia de la literatura culta vasca hasta el año 1936. Tal generación lo componen poetas eminentes como Loramendi, Lauaxeta, Lizardi, Orixe. Estos poetas (con algunas taciturnidades y altibajos en algunos momentos) levantarán el euskara a una altura estética de gran calidad” (1979, 321).

¹⁶ “El siglo XX conoce un auténtico renacimiento o ‘berpizkundera’ poético hacia la década de los años 30. Creemos que no es exagerado llamar ‘berpizkundera’ al nuevo empuje literario, que representa la generación de poetas de los años 30 por su gran calidad y aportación; tales poetas son Loramendi, Lauaxeta, Lizardi y Orixe (1979, 352). Loramendiz: “Este es el poeta de menos relevancia de los cuatro indicados en la generación del 30” (1979, 353). Lauaxetaz: “Lauaxeta a pesar de sus grandes lagunas estéticas, es el poeta culto más *creador* que ha dado el dialecto vizcaíno” (1979, 355). Lizardiz: “Nos encontramos, sin duda, ante la voz más creativa, intensa y lírica de nuestra poesía culta de antes de la guerra” (1979, 362). Honi egozten dio “krezianismo estetikoaren” ezauzgarria. Orixez: “Orixe pertenece, por otra parte, a la generación de poetas renovadores del 30. Entre los poetas de esa generación, Orixe es sin duda, el que más conocimiento, contacto y simpatía siente por la *tradición* literaria clásica vasca” (1978, 381).

lau horiez ari da) suponen cierta inserción de nuestra literatura en los módulos de la estética de Europa, si bien, tal inserción no será universal y definitiva sino en años más cercanos a nosotros, como en la generación de la poesía de los años 64, 68 y 75 (poesía social, poesía simbolista, poesía de cultivo surrealista, marginalista, etc. Al mismo tiempo, se da una profundización del idioma en una línea más científica” (1978, 321-322). Poesi mota desberdin horien arabera, hiru belaunaldi ematen direla esan nahi ote du horrek? Ez dakigu, bere liburuia Orixerekin bukatzen baita. Azken puntu hori argitzeko ordutik honako poesiaz jardun beharko luke beste saio batean. Kontua da, Luis Mari Mujikak, belaunaldi gisa aintzakotzat hartzen duen bakarra –gerra aurrekoen artean, jakina–, 1930eko belau-naldia dela. Gera gaitezen, oraingoz, honekin.

7. Jon KORTAZARREk gaztelaniazko lehen historian (1990) eta berdin euskarazko txikian (1997), Jesus Maria Lasagabasterrek (1983) euskal literaturaren historiografiaz egindako ohar kritikoak bere egiten ditu eta, irakurketa extraliterarioak –biografikoak, soziologikoak eta filosofikoak– alde batera utziz gero, literatur testua bere baitan aztertzeo erabakia hartzen du, oinarritzat Europako literatur mugimenduak hartu eta euskarazkoa horien barruan kokatuz. Bera izango da J. M. Lasagabaster maisuaren irizpideak praktikara eramango dituen. Beraz, bere egitekoa xede estetikoarekin idatzitako obrak eta hauen egileak aztertzea izango da, hauek gehienbat, baina horregatik beste alderdi haiek ahaztu gabe, lehen liburuari egiten dion hitzaurrean dioen bezala¹⁷. Literatur korronteen argitan irakurtzen eta baloratzen

¹⁷ “Para ello se tomó como punto de arranque el análisis de los autores, y de los libros que publicaron con una intención estética y se orillaron, aunque no se olvidaron, otros conceptos (...) Personal-

dira obrak. Lehen historian, Txomin Agirrerren nobela kostunbristatik hasi eta 1955-1985 epealdiko poesia garaikiderainoko ibilaldia egiten da, tartean prosa errealista, poesia posterromantikoa, lirika postsinbolista eta prosa modernoaren urratsak segituz. Gaztelaniazko honen euskarazko moldaera den bigarren liburuan (1997) sailkapen bikoitza erabiltzen du: batetik, mendez mendekoa, bi ataletan banatuta dakarrena, lehenengoan ahozko literatura (XVI-XIX) jorratuz, eta bigarrengoan, idatzizko literatura (XVI-XIX); bestetik, generoen araberakoa lehen atalean, eta literatur korronteen arabekoa bigarrenean, hemen erranazimentu, barroko, klasisismo, neoklasizismo eta erromantizismoaren eskemak aplikatuz. Sailkapen klasikoa, beraz.

Geroztiko *Euskal literatura XX. mendean* liburuan (2000, 9-10), aurreko argitalpenean erabilitako irizpideari jarraiki, euskal literatura Europako literaturaren argitan interpretatzen da. Hitzaurre horretan bertan, belaunaldiaren kontzeptua ere agertzen da, zehazki 1956ko belaunaldiaz diharduenean: “Gizarte modernoa lortzeko borrokak literatura berritza ekarri zuen 1936ko gerra aurreko urteetan. Gerra ondorengo lehenengo literatura-lanak, 56ko krisiaren belaunaldia deiturikoarenak, ideologia aldetik beste aldarri batzuk darabiltza gogoan, hain zuzen ere, abertzaletasun erradikal gisara defini daitekeena” (2000, 11). Beraz, hor, ideologi mailan bi belaunaldi bezala kontrajartzen dira: gerra aurrekoa, modernismoaren bila abiatzen dena, eta ondorengoa, hau

mente, y creo que las páginas que siguen lo prueban, pienso que no hay posibilidad de explicarla sin hacer referencia a los movimientos europeos, de manera que la bibliografía crítica publicada sobre literatura europea –a riesgo de ser excesivamente claro destacaré a la española y a la francesa– ayuda a comprender la evolución de las letras vascas” (1990, 7-8).

abertzaletasunari lotua. Beste pasarte batean, XX. mendea bi arotan banatzen du: “mendearen lehen herena (36ko gerra hastear zela) eta hortik aurrerakoa, gaur egun arte. Aurreko eta ondorengo ezberdinak dira, baina hori ez da soilik gertatu arrazoi historiko batengatik edo Ibon Sarasolak dioen bezala, gerra ondorenean bi abertzaletasun (bata ofiziala eta bestea erradikalagoa) daudelako, baizik eta errepublika-garaian literatura-sistema nolabait finkatzea lortu zelako” (2000, 13).

Euskal literaturaren eboluzioa azaltzeko, eskema hirukoitza aurkezten du egileak, hots: estetikoak, etikoa eta politikoa (1990, 11; 2000, 14). Lehenengo taulak literatur mugimenduei begiratzen die, hor sartuz kostunbrismoa, sinbolismoa, modernismoa, poesia filosofikoa, eta besterik; bigarrenak pentsamendu-korronteak ditu aurrean, hala nola kristau-ortodoxia, kristautasuna, existentzialismoa, nietzchiar nihilismoa, paganismo berria, eta besterik; hirugarrenak, mugimendu politikoak, hala nola hasierako nazionalismoa, nazionalismo demokratikoa, errotiko nazionalismoa, etab. Honela, Esteban Urkiaga adibidez, estetikaz sinbolista izanen da (modernoak), etikaz kristau existentzialista eta politikaz abertzale demokratikoa; alderantziz, Jon Mirandek, estetikaren aldetik poesia filosofikoa egiten du, baina bere jarrera etikoan nihilista eta paganoa da, eta politikan, berriz, errotiko nazionalista

Berriro belaunaldiaren kontzeptura etorrita, gerra ondorengo lehenengo aroaz idazterakoan darabil kontzeptu hori, sarrerakoan: “Gerra ondorengo lehenengo belaunaldia erbestean jardun zuen belaunaldia dugu. Euskal literatura-ekoizpena, argitalpen-metodoa hautatzerakoan ezberdina izan zen. Erbestean liburuak nahiz aldizkariak, bi-biak dira garrantzi berekoak eta literatur-arloa sostengatzeko eta eraberritzeko balio izugarria izan zuten” (2000, 118). Hemen *Ekin* argialetxea eta *Euzko-Gogoak* aldizkaria aipatzen ditu. Aldizkari honetaz hauxe dio: “Jokin

Zaitetik 1950ean Guatemalan *Euzko Gogo*a aldizkaria sortu zuen, euskarazko hedabide izateko eta bi literatura-belaunaldien arteko zubia eraikitzeko: gerra aurretik argitaratzen zuen belaunaldiaren eta gerora *Egan* aldizkarian esku hartu zuen belaunaldi modernoaren arteko zubigintzarako” (2000, 118). Beste pasarte batean, *Egan* aldizkariaren kasuan ere, badakar belaunaldiarena, baina kasu honetan bi literatur talde elkartzen direla esateko:

“Nik neuk uste dut ezin garela mintzatu *Egan* literatura-belaunaldiaz, besteak beste, aldizkari horretan bi literatura-taldek bat egin zutelako: euskal tradiziozko literatura –eta onar bekigu orrialde hauetan argituko dugun sailkapena behin-behinekoa izatealandu zutenak eta, handik gutxira, poesia sozialaren edo existentzialismoaren bidetik tradizio hori antzaldatu eta literatura berrian eta modernoan oin hartu zutenak. Gutxienez bi talde zirela, batean zaharragoak eta bestean gazteagoak, ageri-agerian dago aldizkariaren emanaldiei behatuz gero. Pentsa daiteke, halere, zedarria finkatzen duena pentsaera dela eta ez adina. Idazle-talde batek (Etxaide, Erkiaga) ez zuen askorik argitaratu beste hedabide batzuetan eta besteak (Txillardeggi, Aresti, Lasa) berriz, beste adierazpide batzuk aldarrikatu zituen. Arazo hau argitzeko bada galdera bat –erantzunak baino areago– lagungarri izan daitekeena. *Egan* aldizkariak hastapenean bazuen Espainiako 50eko belaunaldiaren pareko izan zitekeen literatura-mota baten laguntza. Konparazio hori egin daiteke samindura adierazpidetzat hartuta, etikaren garrantzia aintzat hartuta? Geroago sinbolismorako joera agertu zen: Mirande eta Aresti; joera soziala: Aresti; joera estetizista: Lasa, Sarasola, Haritzabal... Ez dakit bidezko den hain termino orokorrak erabiliz mintzatzea, baina uste dut *Egan* aldizkarian hasiera-hasieratik bazegoela oso gune trinkoa (Irigarai, Arrue eta Mitxelena, Etxaide eta Erkiagarekin batera) eta gune horren baitako lankidetzak oso egonkorra

izan zela. Esango nuke gune horri 50eko literatura-taldea dei geniezaiokeela. ‘Asmo berri’ manifestuak taldearen aurkezpena egiteko balio dezake. Lehenagotik ere aldizkaria euskalduna zen, baina orduan sendotu ziren jokabidearen oinarriak” (2000, 129-130).

Jon Kortazarrentzat, *Euzko-Gogoa* eta *Egan*-en artean, bada diferentziarik, modernotasuna bigarrenari bakarrik egozten baitio; hala izan ala ez, guri azpimarratzea dagokiguna da, kasu bietan belaunaldien kontzeptua erabiltzen duela, *Euzko-Gogoa*-ren kasuan literatur belaunaldia eman zela baieztatzeko eta *Egan*-en kasuan, al-diz, bi literatur talde. Nolanahi ere, hau ere esan behar da, Jon Kortazarrek, normalean, literaturaren eboluzioa azaltzerakoan, beste kontzeptu hauek erabiltzen ditu, lehen esan bezala estetikari, etikoari eta politikari atxikirik doazen mugimenduak, jarrerak, taldeak. Eta zentzu honetan, garrantzi berezia ematen dio 50eko literatur mugimenduari, bereziki *Egan*-en inguruan sortzen denari. Bernardo Atxagaz ari denean, berriro taldearena dakar: “*Pott* bandaren inguruan elkartu zen taldeak euskarazko kontakizun labur nahiz luzeen eremua irauli zuen” (2000, 197). Beste kasuetan, poetez ari denean, estetikaren irizpidea darabil nagusiki, dioenean: 1970eko hamarkadako mitorik handiena, literaturaren autonomia-rendela (2000, 216), 1980ko poemagintza ekletizismoa-rendela (2000, 215), eta Sarrionaindiarena dialektikarena (2000, 219), 80ko hamarkadako mugimenduan “espe-rientzia-poesia” nagusitzen dela (2000, 224). Besteka esanda, literatur joerez (erruralismo beltzaz, errealismo sinbolikoaz, literatura hiritarraz, etab.) dihardu Jon Kortazarrek.

Azkenik, 1990. urtetik 2000. urtea artekoaz ari dela, idazle batzuen arteko egonezina-rendea aipatzen du pasarte honetan, belaunaldien arteko arazo gisa aurkezten dena eta huts egindako 1984ko belaunaldiarekin zerikusia izan dezakeena:

“Saizarbitoriak adibidez, idatzi du euskal idazleen arteko desberdintasunak agertu direla gure artean. Interes desberdinak ageri dira, nahiz eta, beste batzuetan gogoratu den bezala, euskal idazleek belaunaldien artean egiten dituzten banaketak ez diren beste lurraldeetan egiten direnak bezain gogorrak. Belaunaldien arteko elkarrizketa, inoiz miresmena ere badena, proposatu da, gure errealitate urriak ez duelako ematen banaketarako toki handiegirik. Kanonizazio joera honek beste eragin batzuk ere izan ditu. Adibidez, narratzaileen artean nabari da noizbait kexa xume bat: kritikak ez dituela ongi tratatzen. Eta inoiz Xabier Mendigurenek deituriko 64ko belaunaldiak ez omen du lortu behar eta merezi bezain besteko oihartzuna: Aingeru Epaltza, Edorta Jimenez, Xabier Mendiguren bera, Pako Aristi... zaila da izen hauen inguruan monografiak aurkitzea, erraza bada ere prentsa artikulu dossier zabala egitea. Ez dakit ez ote garen itsutu, eta beti jotzen omen den izen berak aipatzera: Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Joseba Sarrionaindia, Koldo Izagirre. Eskola eta ikastetxeetako irakurketek zerikusia dute buruaren barnean egiten den irudi horretan (...) Eskolak pisu handia du, eta haur eta gazteentzako idatzitako literaturak pisu handia hartu du euskal literaturaren esparruan. Genero literaturak ere bere pisua izan du. Irakurketa errazak egin dira, non-nahi irakurtzeko testuak” (2000, 255-256).

Jon Kortazarrek erabiltzen du, bai, belaunaldien kontzeptua, baina zehaztu gabe; usuago darabil taldearena; bestalde, literatur joerez mintzatzen da, gehienbat kontzeptu hori zentzu estetikoan ulertuta, egileen obrak baloratu edo ezaugarritzeko orduan.

Euzko-Gogoa aldizkariarekin jarraituz, Martin Ugaldek (1985, 453) dio belaunaldien arteko zubi izateko bokazioa agertu zuela, bai 1950ean, baita, eta bereziki, azken aroan ere. Beste pasarte batean, berrikuntzaren eragiletzat

ere bera dauka: “Hasiera eman zaio, beraz, Ameriketako eta Ipar eta Hego Euskal Herriko euskaldunen arteko elkarrizketari, hain beharrezko zen komunikazioari, eta hemendik, laster, baita ere berrikuntzaren seilua duen mugimendu literarioari ere. *Euzko-Gogoak* sorrarazten du, bada, 1950ean, berrikuntza hau” (1985, 452).

8. Jon Kortazarren eskema berari jarraituz interpretatzen du euskal literaturan historia Iñaki ALDEKOAk (2004) ere, aldaketa handirik gabe, alderdi estetikoari dagokionez bederen. Europan zehar ematen diren literatura ereduak eta pentsamendu-mugimenduak aplikatzen dira euskal literaturan, kronologiaren aldetik honela sailkatuta: humanismoa eta errenazimentua, erreforma eta kontraerreforma, XVIII. mendea eta Erregimen Zaharren krisia (1700-1833), Euskal Herriaren modernizazioa, filologi ikerketen loraldia, kostunbrismoa nobelan, Errepublikako belaunaldi poetikoa, frankismo-garaiko modernitatea nobelan eta poesian, trantsizioko (1975-2000) euskal literatura. Belaunaldiaren kontzeptua, horrela izenburuan jarrita, behin bakarrik erabiltzen da eta orduan Errepublikako poetena adierazteko. Aitzol dauka orduko gidaritzat, “el artífice de un período fundamental de la poesía vasca” (2004, 131). Euskal literaturaren ekarri historikoa euskaraz ez dakien irakurle jantziari ematea baitu xede egileak, kalitatezko sorkuntza eskaintzen duten obrak hautatzeko irizpideak finkatu eta aplikatzean, sarri askotan –eta nabarmenki–, arbitrarie-tate eta erredukzionismoan erortzen da, nor sartu nor ez, nor aupatu nor ez, hori guztia bere gustuak bakarrik erabakitzen baitu, eta ez testuak berak, nahiz berak hala aldarrikatzen duen bere irizpideetan. Horrelako murrizketak gertatzen dira balorazioak, iradokizunak eta iruzkinak testu-sostengurik gabe eta obra bera zein testu-ingurutan kokatzen den kontuan hartu gabe egiten dire-

nean. Kritikoa, hautazkoa eta, oroz gain, akademikoa izan nahi duen historia honi ere txapela handiegia geratzen zaion sentipena dugu.

9. Patri URKIZUren zuzendaritzapean egindako *Historia de la literatura vasca* talde-lanean (2000), mendez mendeko sailkapen kronologikoa erabiltzen da literatur generoak azaltzeko orduan, honela banatuta: XIV. eta XV. mendeak batera, eta horien ondoko beste mende guztiak bakarka. Horrelako talde-lan batean guztien irizpideak bateratzea zailagoa delako edo, dena den, euskal literaturaren historia ez da antolatzen hor literatur korronteen ikuspegitik begiratuta.

Epealdi eta genero jakin batekoak

Badira, azalpen honen hasieran iragarri bezala, literatur sorkuntza, orokorrean ordez, genero jakin bat aztertzen duten argitalpenak eta, horren barruan, nork epe jakin bati mugatuta, nork guztira zabaldua. Guztiek batera dute, ordea, zentzu batean edo bestean partzialak direla.

1. Jesus Maria LASAGABASTER irakasleak, “Euskal-nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak” lanean (1981), euskal nobelaren historia egiten du, aldez aurretik esanez euskal nobelak badituela bere berezitasunak. Berankorra¹⁸ eta atipikoa¹⁹, hots, beste literaturen

¹⁸ “Europako literatur nagusienei dagokienez, hemeretzigarren mendea da nobelarena, batez ere: errealismoak eta naturalismoak, mundu-ikuskera postromantiko eta burgesaren literatur-adierazpenak direnez, literatur historian sekula agertu ez den nobelen eta nobelarien loraldi mirezgarria sorrerazi dute. Euskaraz, berriz, ez dugu nobelarik, praktikoki, hogeigarren mende arte” (2002, 74).

¹⁹ “Izan ere, ezin ahaz dezakegu euskal-literatura gehienetan hizkuntza indartzeko eta zabaltzeko sortu dela; askotan, euskal-textu

nobelarekin konparaezina izatean zehazten dira horiek. Metodoari buruz ere zehazten du berak literaturaren historia soziala egitea duela xede, ez literaturaren soziologia²⁰. Bestalde, literaturaren autonomia errebindikatzen du. Aurre-ohar horiek egin eta gero, ikergaiak diharduen bigarren zatian, euskal nobelaren historia egiten du, kronologiaren aldetik honela banatuta: a) euskal nobelaren lehenengo aldia (1897-1957), zeinetan “ohiturazko nobelaren nagusitasuna” ematen baita; b) euskal nobela modernoaren sorrera, 1957an Txillardegirekin hasten dena, zeinaren ezaugarriak hiru hauek baitira, hots: gasetetasuna, unibertsitarioak (Txillardegi, Mirande, Saizarbitoria) eta hiri-kulturakoak izatea. Haren ezaugarri nabarienak sekularitasuna eta ideologi aniztasuna aldarrikatzea eta, erresistentzia politikoaz gain, euskal nortasunaren aldeko defentsa egitea izango lirateke. Bere azken ondorioa hau da: “Baldin nobelak bere sustraia euskal nortasunean finkatu nahi badu, euskara, ezinbestekoa bada ere, ez da nahikoa izango; hizkuntzari dagokionaz gainera, eta edozein lantegi artistikotan egiturazko esperimentoari, giza-izaeraren bere-berezko problematikari, eta edonongo eta edonoizko gizonaren gorabeherei eman behar zaien tokiari uko egin gabe, nobelak, gure izaera kolektiboa agertzeko era poetikoa, historikoa baino, mitikoa, dokumentala baino areago, izan

askoren sorbidea eta helburua linguistikoa da, literarioa baino askoz gehiago. Eta elementu hori gogoan eduki beharko dugu, euskal-literaturaren historia literarioa (hitz hori azpimarratuko nuke nik), egin nahi baldin badugu” (2002, 77).

²⁰ “Horrezaz gain, ‘gizarte-historia’ deitzen dugu, ez ‘soziologia’ soil-soilki. Gure azterketa literaturari, literatura den neurrian, egokitu nahi zaio; lan literarioa, ez soziologikoa, egitea dugu helburua, nahiz eta literatur-textua bere gizarte-textuinguruan begiratu behar izan; baina ez literatura bere osagaien artean gezatzeko” (2002, 76).

beharko du, benetan” (2002, 98). Antzeko ideiak, berberak ez esatearren, agertzen ditu 1986ko “Introducción a la narrativa vasca actual” lanean (1986), zeinetan, euskal nobela modernoaz ari dela, bere ezaugarririk nabariena lirikotasunean ezartzen baitu: “La novela vasca no es en modo alguna crónica de la realidad y de la experiencia colectiva. No lo fue la novela costumbrista por su idealismo, ni lo está siendo la novela actual por su intimismo. Parece como si los narradores tuvieran miedo a enfrentarse con la realidad histórico-social, pasada o presente, o a narrar desde la aséptica distancia de un narrador externo y objetivo. Y apenas se atraven a contar, más allá de la experiencia personal mejor o peor disfrazada, con una fuerte tendencia a instalar el foco narrativo en la conciencia misma del personaje, con una resistencia instintiva casi a romper esas amarras expresivas que los sujetan líricamente a la realidad y a la palabra” (2002, 117-118).

Egileak iritzi hauek jaulkitzen dituenean, ez du testu-aipurik egiten bere esanak egiaztatzeko. Esanak gaude zein zorrotz hartzen dituen aipatua dugun “La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica” lanean, hain zuzen, euskal literaturaren historiariek periodizazioaz idatzitakoak eta ez goaz ezer errepikatzerara, ez bada gogoratzerara, bere ustez, ez dela ezer aurreratu Koldo Mitxelenez geroztik, asko esatea dena.

Literaturaren historia egiteak ezinbestez dakar materiala –egileak eta hauen idazlanak, alegia–, aroka sailkatzea. Baina nola sailkatu? Hor kontuak. Egileak “La literatura vasca entre 1700 y 1876” lanean (1984) dakarrenez, euskararen eta honen erabilera landuaren kontzientzia hartu, 1700-1876 epealdian hartzen da, gramatikariak, hizkuntzalariek eta apologistek egiten duten lanari esker. Baina egileak “Literatura y vida literaria” lanean (1985) dioen bezala, euskal literatura modernitatean sartu, XX. bigarren menderdian sartzen da, 1950-70

urte-bitartean, ez lehenago, eta honen ezaugarri nagusia da orduan erakundetzen dela literatura gizarte-bizitza barruan kultur jarduera autonomo bezala, bere xede, funtzionamendu eta legeak dituen jarduera gisa, alegia. Beraz, zentzu hertsian, orduan ematen da etena hiru mailetan: “Esto quiere decir que, desde una perspectiva histórica, lo que mejor puede definir la orientación que inspira y sostiene la literatura vasca a partir aproximadamente de los años 50 es la ruptura. Ruptura en el nivel de lo literario propiamente dicho –las formas y técnicas de expresión poética y narrativa, por ejemplo–, ruptura en los universos representados, ruptura, en fin, en la concepción misma de la literatura y en su función, dentro de un trabajo de recuperación nacional y cultural” (1985, 427).

Eten horren adierazleak dira narratiban Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969), eta poesian Aresitiren *Harri eta Herri* (1964). Garai honetako idazleei “heterodoxoen” belaunaldia deitzen die: “Es una generación posterior –escritores que ‘no han hecho’ la guerra, o que no lo han vivido desde una conciencia madura de jóvenes o adultos, la que sintoniza, con notable lucidez, con la situación histórica, socio-política y cultural que está viviendo Euskal Herria y trata, desde una nueva conciencia de la realidad, de redescubrir el compromiso del escritor y la función de la literatura (1985, 429). Berak, 1960ko belaunaldia hartzen du oinarritzat pasarte honetan, zeinaren ezaugarri nagusia mundu-ikuspegi eta alternatiba politiko berriak izatean baitatza: “Es en el interior de alternativas totales, que van desde las visiones del mundo hasta las estrategias de resistencia políticas, donde hay que situar esa ruptura con la tradición que supone, en la década de los 60 la nueva literatura” (1985, 429). Eta horrekin batera, baita ere, irakurleria berria,

argitaletxe berriak, kritika literarioaren sustapena, literatur sariketak, etab. Gerrate zibilak ez du suposatzen literatur sorkuntzan etena, parentesi bat baizik ez da, nahiz bestelakoa esan izan den gehienetan: “Ya es convención unánime de los historiadores situar en la guerra civil de 1936-1939 un punto decisivo de articulación de nuestro devenir no ya histórico general, sino cultural e incluso artístico y literario (...) La guerra interrumpe de hecho una actividad literaria, no demasiado boyante por otra parte (...) La guerra no está ni como tema, ni como experiencia límite que provoca ineludiblemente una revisión radical del estatuto mismo de la literatura y de la función del escritor en la sociedad...” (1985, 428).

Esan dezagun, bukatzeko, egile honek ez duela belaunaldiaren kontzeptua erabiltzen. Sarakoari “eskola” deitzea ere desegokia iruditzen zaio, hangoen kezkek gehiago baitziren pastoralak eta linguistikoak hertsiki literarioak baino (1984, 29).

2. Karlos OTEGIk, “Euskal sorketa literarioa (1939-1984)” saioan (1985), gerra zibilaz ondoko literatura hiru epealdieta sailkatzen du.

Lehena 1939-1957koa da, literatura aberriaren iraupenerako ahalegin gisa hartzen denekoa, zeinaren ezau-garria honela deskribatzen baitu egileak: “Beraz, 1939 inguruan, berrogeitamargarren hamarkadaren bukaera aldera itxi daitekeen aldia irekitzen da euskal literaturan, oro har, 1930eko belaunaldiak jorratu dituen moldeak isladatu eta militar, politiko eta kulturalki oinperatuta dagoen Euskal Herrian iraupen helburuz isilpeko literatura lantzen dueneko aldia” (1985, 434). Laburpen gisa emandako beste pasarte batean, hauxe dio: “1939-1957ko aldi hau ez da homoginoa, ezta kontinuitate hutsa ere, gutxiago erabateko haustura, euskal literaturaren bi ziklo zabalen artean zangalatraba dagoen aldia baizik. Alde batetik, XIX. mendearen bigarren erdiko lore-jokoekin

hasi eta 1930eko belaunaldiarekin gailurrera iristen den zikloa progresiboki itxiz doa; bestetik, euskal literatura modernoaren zikloa, zeinean aurrekoan gauzaturiko bi generoek, poesia landua eta narratiba, hain zuzen, garapen literario eta tratamendu aniztasun azpimarragarria lortuko bait dute, irekitzen hasten da ezari-ezarian” (1985, 437). Epealdi hau beraz, gerra urrekoek osatzen dute. Nolanahi ere, gerrak literatur etenik suposatzen ez badu ere, “literatura tradizionala gatazkan” sartzen da 1949-1957 epealdian zehar, Federiko Krutwig eta Jon Miranderen joera antikonformista eta heterodoxoarekin.

Bigarrena 1957-1975 epealdikoa da, “literatura, gizonaren eta herriaren aldeko ekintza” gisa hartzen denekoa: “1957 inguruan, euskal bizitza soziokulturalaren esparruan, tankera inkonformista eta berrizalea duen belaunaldi gazte bat, industriad, biztanlegoz, ideologiaz eta bizimoldez bilakatzen ari den Euskal Herrian egosia, jalgitzen da kementsuki kalera. Belaunaldi honek eta hurrengoek piskanaka ekintzaren protagonismoa hartuz eta euskal gunea gizarte modernoaren aurrerapenari egokitzen saiatuz, azalki eta ia-ia uniforme den euskal gizartea behar-beharrezko pluralismoz inarrosi eta pitzatzten dute” (1985, 437). Epealdi honetan, aipatzen diren izenak, hauexek dira: narratiban, Txillardegik “existentzialismoaren ildotik”; poesian, Krutwigek eta Mirandek irekitako korrontean sar daitezkeen Otsalar, Mikel Lasa eta Joxe Azurmendi, Gabriel Aresti; antzerkian Xalbador Garmendia, etab. Epealdi honen barruan, beste bi azpi-sailkapen kronologiko egiten ditu. Lehena 1964-1969 epealdiari dagokiona da, zeinetan “gizarteko protesta” gauzatzen baita, ezaugarri hauek dituen: “Aldaketa kultural nabarmenaren barruan, pertsonaren autonomiarekiko jabetze sakonagoa, erlijio munduaren sekularizazio azkarra, ideologia sozialista-marxisten txertaketa, konpromezu sozio-politikoaren erradikaltzea eta pedagogia

eta psikologia modernoen ekarpen askatzaileen bereganatzea, Baionako biltzarrea (1964), non irakasle eta idazle talde batek ortografi batasunerako gutxieneko arau batzu betetzeari ontzat ematen dion, eta Arestiren *Harri eta Herri-ren* (1964) argitarapena dira joera ideologiko, linguistiko eta literario tradizionalekin burutzen ari den hausketa orokorraren seinaleak” (1985, 438). Beste pasarte batean, Arestik irekitako korrontearen bidean, Joan San Martinek argitaratutako *Uhin berri* (1969) poesi bilduma kokatzen du, zeinetan garai horretako poeta batzuk sartzen baitira: “Arestiren lan literario gailenaren inguruan ‘Uhin berria’ deritzan mugimendu poetikoa osatzen da, idaztankeraz heterogeno baina gizartean ageri diren bidegabekerien salaketan eta gizonaren zerbitzuan dagoen gizarte baten eskakizunean ados. J. S. Martinek idazle berrien sustatzaile iraunkorra, *Uhin berri-n* (1969), poeta hauen erakuskari bat biltzen du” (1985, 439). Beti ere epealdi honen barruan, bada bigarren azpi-aro bat, 1969-1975 epealdiari dagokiona da, hain zuzen, zeinetan “egitura formala lantzen” baita, narratibari Saizarbitoria eta Andu Lertxundirekin; poesiarik, Gandiaga, Lete, Xabier Azurmendi, Zulaika, Mikel Arregi, Mikel Azurmendi, Arantxa Urretabizkaia, Martin Iturbe, Hartzabal, Luis Mari Mujika, Juan Mari Lekuonarekin; antzerkian, Daniel Landart eta Haranbururekin; saiakeran, Begiarmenen *Sei idazle plazara* (1974) eta Eusebio Osaren *Pedagogia eta gizartea* (1972) saiakerekin.

Hirugarren epealdia 1975-1984koa da, literatura, adierazpide autonomo gisa hartzen denekoa. Aldarrikapen hau B. Atxagaren “Hautsi da Anphora” esaldian adierazten da eta egileak honela azaltzen du: “Berriztapenik garrantzitsuena, agian, oraindik ausarkiago, erabaki sendoagoz, soilki literaturarekin behartuta dagoen literatura askea bilatzen duten idazleen kalera-tzetik dator. 1975ean, B. Atxagak eta K. Izagirrek sor-

turiko *Panpina ustela* ale literario marjinalen, agertzen dira jadanik idaztanka berri, autonomo, lotsagabe samar eta apurtzaile baten zantzuak. Idazle hauentzat literatur lana ez da ‘literaturaz kanpoko xederen morroi’ ‘zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa eta berezia’. Literatura ez da, orain, gizartea iraultzeko mailua edo tresna ideologiko hezitzailea, ezta, aurreko aldiko idazlan askotan oraindik soma daitekeen bezala, bereziki euskal kulturagintza jasotzeko helburuz buruturiko ekintza ere, ‘zerbait aldatzekotz sentsibilitatea aldatzen bait du eta ez besterik’. Literatura ‘espresabide da lehen lehenik’, gozamina eta jario naturala, ‘eta ondorioz komunikabide’” (1985, 442). Ondoren literatur mugimendu hau bi taldetan nola banatzen den esaten da: bata Bilbon “Pott” taldearen inguruan biltzen dena da, ideologiak baino gehiago kidetasun literarioak elkarganetzen dituena, eta bestea “Ustela” taldea Donostian, “nagusiki euskal errealitateari atxekitako eta euskara hutsezko literatura” egitea hautatzen duena (1985, 442). Idazle-talde honetan kokatzen ditu autore hauek, beti ere poesian: J. Sarrionandia, J. Cazenave, A. Azkue, J. I. Lasa, J. L. Ota-mendi, A. Lasa, T. Irastortza, M. Ertzilla, etab. Eta beste zenbait joera poetikoren artean, besteok ere bai, hala nola A. Irigarai, I. Zabaleta, A. Irigoien, P. Urkizu, I. Borda, Erdozaintzi, K. Santisteban, P. Iztueta, M. Zarate, X. Amuriza, J. A. Arrieta, eta gehiago (1985, 444-445). Beren iritzi literarioak zabaltzeko, talde literarioek argitaratzen dituzten aldizkariak ugaltzen dira orain, hala nola *Panpina ustela* (1975), *Zorion ustela* (1976) eta *Mermelada ustela* (1976) eta, koaderno hauen ondoren, 1978-1980 urteetan ‘Pott’ saileko sei aleak, eta 1980. urte-inguruan hiru aldizkari: *Oh! Euzkadi* –hau hamaisegarren zenbakiraino iritsia–, *Xaguxarra* eta *Susa* (1985, 447).

3. Josu LANDAren *Gerraondoko poesiaren historia* liburuxoa (1983), izenak berak dioen bezala, epe mugatu

bati dagokiona da. Eztabaidarako egiazki aproposa. Honen bost ataletan banatzen du gerra ondoko euskal poesiaren historia, bakoitzari bere epealdia ezarriz. Aurkibidean honela emanak datoz epeak: lehenengoa, 1945-50ekoa: isilpeko suspertzearen lehen aztarnak; bigarrena, 1950-64koa: euskal poesiaren berpizkundera eta aldizkarien protagonismoa; hirugarrena, 1964-74koa: haustura poetikoaren burupena, Gabriel Aresti eta Lur editorialarekin; laugarrena, 1974koa: krisi sakonetik sortutako belaunaldia eta abar. Liburuaren azken partean, ordea, zenbait poetari buruzko orrialde solteak eskaintzen dira, horietan poeta batzuen aipamen laburrak egiten dituelarik. Orotara, 12 poeta dira hautatzen dituenak: Orixe, Jon Mirande, Biktoriano Gandiaga, Juan Mari Lekuona, Mikel Lasa, Nemesio Etxaniz, Ibon Sarasola, Hartzabal, Xabier Lete, Joseba Zulaika, Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirre. Hitzaurrean abisatzen duen bezala, egon behar dutenak bakarrik daude, ez bat gehiago ez bat gutxiago: “Historiatxo honetan falta dira izen batzu, baina zabarkeriaz edota olbidoz batere ez. Inor ez bada ageri hala eritzi diodalako izango da eta ez beste arrazoiengatik” (1983, 8). Aipu bibliografikorik gabeko saio honetan, egileak bere esanak Juan San Martin, Ibon Sarasola eta Joxe Azurmendiren iturrietan oinarritzen ditu eta Bernardo Atxaga eta Jon Kortazarrekin izandako elkarrizketetan. Gerra osteko poesiaren eboluzioari dagokionez, bada, bost aro bereizten ditu: 1936koa, 1945-50ekoa, 1950-64koa, 1964-74koa eta 1974koa. Komeni da bakoitzari buruzkoa zertxobait xehatzea, epeak zehaztasunez sailkatzen dituelako eta sistematizazio-modu hau belaunaldien ulerpenerako lagungarri gerta dakigukeelako.

Hasteko, 1936ko aroari dagokionez, bere tesia bikoitza da: lehenik, 1936ko gerra aurrean Aitzol eta Orixe izan zirela euforiazko giroari eragin zioten motoreak, lehena kultur eragile eta bigarrena literatur kritikari gisa,

eta Orixe izan zela Lizardi “postu gorenetera igo” eta Lauaxeta, aldiz, “txoko ilunetara baztertu” zuena; bigarrenik, euforia hori faltsua izan zela, batetik, orduko literatur mugimendua ideologia abertzalean oinarritua egonki, poesiari zegokion autonomia aitortu ez zitzaio-lako, eta, bestetik, beste lekuetan indarrean zeuden literatur ereduak oro ahantziak izan zirelako, azken puntu honetan “sostengurik tinkoena” (1983, 18) Orixeren klasisismo hertsia izaki. Beraz, gerra aurreko poesigintzak ez bide zuen lortu ez eten ideologikorik ez estetikorik: “Garbi dago, beraz, gerraurreko berpizkunde poetiko hura gehiago izan zela euskal patriotismo euforikoak sostengatutako terminoa, poesi heldutasun batek eragindakoa baino. Eta jakina, aberriaren beharrezarekin batera, poesiarena dator segidan” (1983, 23). Lizardi edo Lauaxeta baten ereduak eskaini zezaketen horretarako bidea, baina baten kasuan heriotzak eta bestearenean gerrak ezinduko dute eboluzio hori.

Gerra ostean, 1945-50 epealdian zehar, gerra aurreko molde eta ikuspegiak mantenduko dira: Orixe bizirik da, baina aren argia erbestean itzalita dago²¹; Lizardi hila, baina mito “puztuegi” bihurtua oroimen kolektiboan (1983, 23). Epealdi honetan isilpeko susperraldia-
ren lehen aztarnak ematen dira –hori bai, etenik gabe–,

²¹ “Dударик ez da, gerrak suntsitu egin zuen Orixe. Hura bezain gizon emankor eta buruargi batek –bizitzaren parentesi batetan bailegoen–, ez zuen ia artikulualerik publikatu 1936-50 tartean, eta bera izanik, gerraurrean artikulutan nahiz liburutan gehien plazaratutako idazleetakoko bat” (1983, 24). Egia lehen bezainbat ez zuela idatzi gerra oste hurbil hartan, baina ez zen idatzi gabe egon erbestean. Aski da *Gernika* eta *Euzko Enda* aldizkarietan –hauetan batez ere–, idatzi zituen artikuluko sonatuak irakurtzea ez zegoela erabat lo ohartzeko. Misala ere orduan itzuli zuen. Poesia solte batzuk ere baditu orduan onduak Betharran eta Bidarraiko egonaldian.

eta horien adierazgarri dira Telesforo Monzon, Jokin Zaitegi eta Salvatore Mitxelenaren poesiak (1983, 25-32).

Hirugarren aroan (1950-64) euskal poesiaren berpizkundea eta aldizkarien protagonismoa ematen dira, *Euzko Gogo*a eta *Egan* aldizkariekin, biak talkan, zeinetan Orixek erbestean betetzen duen egitekoa barruan Koldo Mitxelenak betetzen baitu (1983, 45). Epealdi honetan, oraindik 1960. urte-hasieran ere, gerra aurreko eskola zaharra nagusitzen da poesian: “Erizpide kualitatiboei kasu eginez gero, dudarik ez dago eskola zahar horrek nagusitasun osoa mantendu zuela 50ko hamarkada osoaz. 1960an ere, olerki gehienak molde poetiko horien arauera eginikoak ziren” (1983, 45). Dena den, berrikuntza baten lehen oihartzunak entzuten hasiak ziren ekialdeko filosofiatik edota nihilismotik asko zuten Krutwig eta Miranderen ahots poetikoen bidez eta, nahiz eta hauen eragina artean arras minoritarioa izan, horiek izango dira 1960ko hamarkadan egiazko etena eragingo dutenak: “Baina zorionez, dinamika poetikoaren pisua eta norabidea ez da erizpide kualitatiboez zuzentzen, eta 1960rako berrikuntza eta haustura baten atzetik zebiltzanak –nahiz eta kualitatiboki minoritarioak izan– hartua zeukatzen euskal poesiaren ia errelebo osoa” (1983, 46).

Nolanahi ere, 1950eko hamarkadan abian hasten den etena burutu, 1964-74 epealdi honetan burutzen da, poesi mailan, Gabriel Aresti eta Lur argitaletxearen obraz. Haren *Harri eta Herri* poema-liburuaren argitalpena, euskal poesia eta euskal literatura azpi-azpitik irauli zuen hura, izanen da etenaren data erabakigarria, arrazoi honengatik: “1964 urtea da eta data horretan lortu du euskal liburu batek ordurarte beste ezeinek lortu ez zuena: irakurria, komentatua, laudatua eta arbuatua izatea” (1983, 56). Beraz, nahiz berrikuntzarako norabidea jadanik 1950eko hamarkadan bideratua izan, data horretan, ez lehenago, gauzatzen da. Arestiren gerizpean,

beste izen batzuk ere –poema asko edo gutxi idatzi–, nabarmentzen hasten dira, hara nola Joan San Martin, Joxe Azurmendi, Mikel Lasa batenak; orobat, Lur argitaletxearen eta *Zeruko Argia*-ko “Gazte naiz” sailaren inguruan, Rikardo Arregi buru, beste idazle-andana bat azaltzen da, hala nola Ibon Sarasola, Xabier Lete, Ramon Saizarbitoria, Xabier Kintana, Amaia Lasa, Antton Santamaria, Rafa Egiguren eta Joxemi Zumalabe, Gabriel Aresti eta Rikardo Arregi ahaztu gabe, noski (1983, 61). Epealdi honen bukaera-aldera, 1972an, beste bi poeta agertuko dira, Arantxa Urretabizkaia eta Mikel Azurmendi, eta hauek izango dira 1964ko belaunaldiari koroa ezarriko diotenak: “Nire ustez bi poeta horien poemetan belaunaldi horrek poesi moldetan eman zuen gauzarik onena sistematizatu eta borobildu zen” (1983, 63). Beraz, eta gure kasura etorritik, Josu Landak epealdi honi aplikatzen dio “belaunaldiaren” kontzeptua, gerra osteko lehenengo belaunaldiari.

Azkenik, frankismo-bukaeran, 1974an, agertzen da gerra ondoko bigarren belaunaldia, krisi sakon baten ondotik jalgitzen dena: “1974 urtea benetako mugarri bezala har dezakegu euskal poesia eta euskal literaturaren historia pasaberrian. Urte horretan ikaragarritzko inportantzia izan duen aro bati ematen zaio bukaera, eta krisi labur baino sakon batetik sortuz, belaunaldi gazte eta kreatibo bati pasatzen zaio –edo beraiek hartzen dute, hobe esanda– lasterketaren testigua” (1983, 67). Krisiaren lekukoak, batetik, Arestiren heriotza eta Lur argitaletxearen desagerpena dira, batez ere, haren itzalean ibilitakoak isiltasunera edo bigarren mailara pasatuko direlarik; eta bestetik, belaunaldi berri baten adierazle, beren iraupen laburrean oihartzun handia izango duten literatur aldizkariak agertzen dira, hara nola *Panpiña ustela* (1975), *Mermelada ustela* (1976), *Zorion ustela* (1976), *Oh! Euzkadi* (1979) eta *Pott* (1978). Aldizkari

horietan idazten dutenek hartuko dute orain protagonismoa, bereziki, Bilbo aldean, *Pott*-ekoeak, J. M. Iturralde, J. Sarrionandia, Jon Juaristi, Ruper Ordorika, Manu Ertzila eta Bernardo Atxagarekin, eta Donostia aldean, Ramon Saizarbitoria eta Koldo Izagirrekin. Talde bakoitzak bere argitaletxea izango du aldamenean: “Pott liburutegia” Bilbon eta “Ustela Saila” argitaletxea Donostian. Belaunaldi honen ezaugarri nagusia, literaturari bere baitako autonomia aitortu izana litzateke: “Aurrera jo aurretik garbi utzi nahi dugu ez dela inondik sujeritu nahi izan 1974 urtea arte literatur ekintzaren autonomia pentsamoldez ukatua izan zenik. Izan ere, giroak behar-tutako jokabidea izan zen Aresti baten obra markatu zuena, ezinbestekoa. Froga gisa, ikusi besterik ez dago girotik aparte idatzitako obra handiak nola izan ziren kupida gabe ahantziak eta zokoratuak (*Maldan beheara* esate batera). Horregatik 1974ko erreleboa ez dugu uste lehenago gertatzerik egon zenik, eta Aresti bat hamar urte lehenago egokitzerik posible izan arren, ezin berdina esan azkeneko belaunaldi honetaz” (1983, 71). Hor du bere sorrera “autonomiaren belaunaldia” deitu izan zaionak. Bernardo Atxagaren *Ziutateaz* eta Koldo Izagirrereren *Itsaso ahantzia* izango dira literaturaren heterodoxian zehar belaunaldi honen norakoa markatuko dutenak (1983, 72), aurreko belaunaldiarekiko etena ekarriko dutenak. Dena den, Bilbo eta Donostiako taldeen artean ere baziren desadostasun nabariak, beraien arteko zatiketa eragin zutenak. Egileak bi hauek aipatzen ditu: bata, ideologia politikoari dagokiona da, Donostiakoak ezker abertzalearen ingurukoak izaki eta Bilbokoak, aldiz, “izugarri heterogeneoak”; bestea, berriz, irizpide linguistikoari dagokiona, Donostiakoak literatura euskara hutsean lantzearen aldekoak izaki eta Bilbokoak, aldiz, erdaraz idatzitakoa euskal literaturatzat hartzearen aldekoagoak (1983, 75-76).

Geroko historiari erreparatuta, ordea, zaila da egiazko arrazoiak horiek izan ziren ala ez egiaztatzea, edo horiek zein neurritan, zeren talde bateko zein besteko partaide horiek gero bakoitzak bere aukera politiko eta ideologikoa egiten baitu, zenbaiten kasuan, arras desberdina eta are kontrakoa ere bai. Horregatik orduko ustezko arrazoi horiez gain, beste batzuk aurkitzen ere saiatu beharko da.

Saio labur honi, L. M. Mujikak kritika aski zorrotza egin zion *Egin* egunkarian (1983-09-20), besteak beste, esanez fenomeno literarioak epaitzeko irizpide soziologikoak edo extraliterarioak erabiltzen zituela, honetan Joan San Martin eta Ibon Sarasolaren bideari jarraiki, eta, ondorioz, akzidentalismoan eta arbitrarisismoan erortzen zela: “Textuetara ez bagoaz akzidentalismoaren eta ‘arbitrarismoaren’ erreinuan sartzen gara”. Horregatik, jokabide hau ez zaio egokia iruditzen, kalitatezko obrak ignoratzen dituen bitartean, 50 edo 100 poema orri soilki idatzi dituztenak goratu egiten baititu.

4. Gotzon GARATEren *Euskal elaberrien kondaira* liburua (2001), izenak berak dakarrenez, euskal nobelen historia egitera mugatzen da. Orotara hartuta, lau alditan sailkatzen du: 1) Hasieratik 1946ra artekoak; 2) 1946-1957ra bitartekoak; 3) 1957-69ra artekoak; 4) 1969tik aurrerakoak (2001, 31). Beste autore gehienek iritzitik aldentuz, bigarren aldi honi bere nortasuna aitortzen dio: “Nire ustez, badu aldi horrek sail berria osatzeko berezkotasunik nahikoa. Tomas Agirrek 1937an *Uztaro* idatzi zuenetik, *Juañixio* (1946) agertu arte, ez zen eleberririk idatzi. Tarte horretan Euskal Herrian bai politikan (gerra zibila) eta bai literaturan ere aldaketa sakonak gertatu ziren. Eleberrigintzari gagozkiola, laburki esan dezagun, 1946az gero, alde batetik Irazustarekin halahola eleberririk errealista agertu zela eta Loidirekin polizian eleberria” (2001, 31). Oraingoz basamortuko ahots

bakartia izan arren, kontuan hartzekoa da baieztapen hori, nolanahi ere. Hirugarren aldia adostasuna handiagoa da: “1957 muga-urtea, berriz, nahiko onartua dago. Urte horretan agertu zen Txillardegiren *Leturiaren egunkari izkutua*, Euskal eleberrigintzan gai berri-modernoak sartu zituen” (2001, 31). Laugarren aldia ere antzeko zerbait esan behar da: “Berdintsu esan daiteke 1969 urteaz. Urte horretan lehenbiziko aldiz Saizarbitoriaren eskuz, aspalditik Europa-Ameriketara erabiltzen ziren teknikak Euskal Herriko eleberrigintzan txertatuak izan ziren. Beste puntu bat ere agerikoa da. 1969tik aurrerako eleberrigintzan aldi eta idazle oso ezberdin daudela. Egia da. Guk ordea, praktikotasunari begira, oraingoz zehaztu gabe utzi dugu eta aldi horretara heltzen garenean, ikuspegi zehatzago emango” (2001, 31-32).

Gotzonen histori lan honetan, beraz, ez da agertzen belaunaldiaren kontzepturik, ez ezer antzekorik. Aldien sailkapenean, azken biak jadanik beste hainbatek aipatuak eta erabiliak dira.

5. Azkenaldion, Iban ZALDUAK, *Obatatiko tranbia* (2002) saioan, 1990eko hamarkadako euskal literaturaz hitz egiten du orokorrean eta, modu zehatzago batez, atal berezietan, euskal poesiaz, euskal nobelaz, emakumeen literaturaz; azken atalean, kritikari buruzko ohar batzuk ere egiten ditu.

Gustukoen zaizkion liburuak bakarrrik aipatzen baiditu ere, badu ekarpen honek bere alderdi estimagarria, gure artean oso nekez ikusten den horietakoa delako, hain zuzen, eta da, irakurri eta ezagutzen dituen gustuko liburuez soilik mintzatzen dela. Honetan, bederen, zintzoa da, egun aski zabaldurik dagoen joera baita, ez obrak bere baitan, baizik, batik bat, haien kalitatea egileen apriorizko bermean finkatzea eta, bestalde, egile hautatuen katalogoan sartzeko direnen obrak oro sistemaz baztertzea, kasu gehienetan irakurri ere egin gabe.

Kritika-mota honek, ordea, oinarrian bertan huts egiten du, zeren iritziak eman, balorazioak egin, ezagutzen denaz bakarrik eman eta egin baitaitezke. Hortik harakoa, aurreitzi zola labaingarriaren gainean ibiltzea da.

Bildumak

Bildumen atal bibliografikoan badira hainbat argitalpen eginak, hala nola Santi Onaindiaren *Mila euskal olerki eder* bilduma (1954), Pierre Lafitteren *Eskualdunen Loretegia* (1972), Karmelo Etxenagusiaren *Euskal idazleen lorategia* (1969), eta gehiago, bereziki, irakaskuntzarako eginak. Hauetan ere, gehienetan bederen, euskal idazleen aurkezpena mendez mende egina dator, testu hautatuaren aitzinean egile bakoitzaren aurkezpen bibliografiko txiki bat dakartelarik. Zehazki Lafitte eta Onaindiarenean bai; Etxenagusiaren bilduman, aldiz, ez, ezta Serafin Basauri eta Joan San Martinek argitaratutako *Hegatsez* bildumaren (1791) xedea ere, gehienbat, euskaldun berrientzat eta euskal alfabetatze-lanetan diharduten taldeentzat materiala prestatzea baita, testu hautatuaren sarreran egileari buruzko aurkezpen laburño bat dakarten arren, periodizazio-konturik ez da agertzen.

1. Joan SAN MARTINEK poesi bilduma bat argitaratu zuen 1960ko hamarkada-bukaeran. Deigarriena bildumari ezartzen dion izenburua bera da: *Uhin berri* (1969), alegia, honekin aditzera emanez, urte horretan sortua dela poesian belaunaldi berri bat, garaiko giroari erantzuten diona. Honela dakar hitzaurre-hasieran: “Garai bakoitzari berea. Euskal poesiak badu uhin berria, gure literaturan bere toki berezia eskatzen duena eta ongi merezi duena. Uhin berri gogoan harturik egin dut eskuetan duzun bilduma. Jokera berrien ikus molderako beharrezkoa ginuen oraingo gazteen poemak liburu batean biltzea” (1969, 7).

Uhin berri hau mugatzeko orduan, berak dioenez, ez du hartu “neurri hestuegirik poesia mota aldetik”, baina bai beste honako hauek: “Hautamen hontan kontuan izan dut idazle bakoitzak duen entzutea, idatzi dituen poema liburu, jaso dituen poesi sari eta abar. Urtemugak zehatzak jarri ditut: 1964 ingurutik hasi eta gerorantz ezaguturazi diren poemak: 1930-aren ondorenetik mundura sortu ziren poetenak. Bereziki: 1964-eko gizaldi berritzat izendatzen hasi gerana da, gutxi gorabehera” (1969, 8).

Beraz, garbi dago, hemen 1964ko belaunaldiaz da kontua. Zergatik data hau? Beste kultur eta literatur gertaera batzuk ere ematen direlako data-inguru horretan, hala nola Baionako bilera batasunaren gainean, Arestiren *Harri eta Herri*-ren argitalpena, etab. Belaunaldi hau ezaugarritzen duena zer den? Honi erantzuteko garai hartako injustiziazko testuingurura jotzen du: “Gazteak aurrez aurre arkitu duan injustiziazko egoeradun gizarte moldakaitza, mundu harrigarria, mundu ustela, gizona menperatzen duena. Hortikakoa du egungo gazteriak bere egon ezina, kezka, griña, larri-aldia..., sinismenaren uste berak ere gogoia betetzen ez diotela. Gizondu orduko gauzak horrela arkitu dituzte, lehengoek jarririk, eta heurok aldatzeko ahalmenik gabe. Horregatik, erantzunez, beren protesta erakusten dute, egoera honen iraultza laket zaielarik” (1969, 9). San Martinentzat poesia “gainerako literaturaren gidari” da eta, euskal poesiaren kasuan, uhin berriko poesiak ezaugarri hauek ditu (1969, 10-11): bat, gazteriaren protesta-oihua da, iraultzarako deia; bi, poesia sasoi betean aurkitzen da, “inoiz izan baditu euskerak gizaldi berean poeta ugari eta onak”, horiek une hartan izan zituen, hots, 1960ko hamarkada-bukaeran, alegia, eta geroan ere bere oihartzuna utziko duen horietakoa da: “Uhin berriak dakarrena ezta laister pasatuko dan moda bat, norbaitek uste duen bezala, baizik litera-

turak bere eboluzioz dakarrena da. Geroari gaurkoaren balioa adieraziko diona” (1969, 11); hiru, hizkuntzak –kasu honetan poesiak– “gutxi balio du, oso gutxi, zer-bait esateko ez bada” (1969, 10), hots, funtzionaltasuna behar du.

2. Lur-ek argitara emandakoetan, zehazki *Euskal Elerti* 69 (1969) eta *Euskal Literatura* 72 (1972) bildumetan, generoka emanak datozkigu lanak, hala nola poesiak, ipuinak, antzertiak eta saio laburrak; egileen aurkezpena egiten da, lehen bilduman bederen, bai, baina periodizaziorik egin gabe, bilduma horien asmoa urtez urteko lan hautatuak argitaratzea baita. Ulertzekoa, beraz. Lehenengo bildumak (1969), ez hitzaurrea, baizik “hitz-atzea” zekarren, eta hor, 1950eko hamarkadaz geroztik baztertuta geratutako lan baliotsuenak –horietako hainbat sarituak izandakoak–, argitaratzen dira eta aurrerantzean ere, urtero-urtero, horrelako bildumak kaleratzeko asmoa agertzen du Kriselu sailak, Gabriel Arestiren ardurapean. Bilduma honetan saiakerak, nobela, antzerkia, poesia eta ipuina jasotzen dira. Argitaletxe-talde hau osatzen dutenek, beren “azken oharra” delakoan, manifestu antzeko hau egiten dute euskara batuaren alde, talde honen ezaugarrietako bat izango dena: “Lur/Kriselu/Hatsapenak euskeraren batasunaren zerbitzuan jartzen dira. Beren hautapen-kontseiluak, Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria eta Ibon Sarasolarekin osaturik dagoenak euskal gaiztoko dialekto mordoiloetan idatzitako lanak ukatuko dituela jakin-arazitzen du, eta bide batez euskeraren batasunik nahi ez duten euskaldunak euskeraren eta Euskalerrriaren etsiak direla deklaritzen du. Are gehiago negarreztatzen du batasun hori gonbatitzen dutenen portaera, bereziki Eizmendi'tar Iñaki “Basarri” jaunarena, zeinek, Euskaltzaindiak Arantzatzun hartutako erabakiak onartuko zituela publikoki manifestatu ondoren, bere hitzari ez

dion eusten. Seguru asko bere hitza eman zuelako batasun hura bere dialekto mordoiloa izanen zela ustean” (1969, 547). Erronka egina dago.

3. Urtero horrelako bilduma bat argitaratzeko asmoa agertu bazuten ere, hurrengo handik hiru urtera, 1972an, eman zuten argitara. Hemen Luis HARANBURU ALTUNAREN “Hitzaurre gisa” luzea da interesgarria, batez ere, euskal literaturaren historia –zaharra eta berria– ikuspegi marxistatik begiratuta egiten zuelako, berak hasieran bertan dioen bezala, *Euslal Elerti 69* bildumaren literatur irizpidea ontzat hartu eta hari segida emanez. Haren ikuspuntuaren nolakoa alde batera utzita, iruzkintzeko modukoak iruditzen zaizkigu han harrotzen diren hainbat puntu, bi zentzutan bederen bai. Lehenik, aurreko tradizioarekin erabat hautsiz, euskal literaturaren historian metodo marxista aplikatzen lehena edo lehenetakoa delako. Berak dioen bezala, bere garaiko belaunaldia da metodologia hori bereganatzen lehena: “Nire jenerazioko eskritoreek euskararen historia berezi batekin hausi eta eten dute. Baina hori halabeharrez gertatu da” (1972, 6). Ordurako R. Barthes-en “la littérature devient l’utopie du langage” hura –geroztik unibertsitate-gunean hainbeste aldarrikatu izan den literatur irizpidea, hain zuzen–, euskal letretan aplikatzen saiatzen da. Pasarte adierazgarriak ditu emanak, orduan askorentzat –agian gehientzat– eskandalagarriak, zeinetan agerian jartzen baitu euskal literatura hizkuntzalaritzaren morrontzan jarria dagoela: “Lehen esan dut, euskara berri bat frogatu nahiaz esforzitzen eta aintzinatzen garela. Jende askok parte hartzen du enpresa honetan. Agian jende gehiegik, baina hori besterik da. Guztitara ere euskararen lantzeak eta egokitzeak hizkuntzalari, ‘hizkuntzalogo’ eta eskritore askoren eginahalak hartzen ditu. Nolabait ere gure egungo literatur produkzioa hizkuntzaren berritze horri hipotekaturik dago. Gure

indarririk hoberenak izkuntzaren prestaketan enplegarazten ari gara. Agian hori ezin bestekoa da, eta halabeharrez eskritore asko euskararen borroka, istilu, bataila eta gerrillatan sarturik dabil. Horrela bilakatu da gure literatura euskararen utopian (...) Hizkuntzarekiko ardura linguistikoa izan da, azken urte hauetako gure literaturaren indar eragilea” (1972, 9). Bide hori gainditu eta berriak bilatu beharra proposatzen du, edukia eta forma landuz: “Agian gailendu beharrezkoa dugu hizkuntzarekiko ardura linguistikoa eta areago jo behar dugu Euskal literatura nola formaz hala gaiaz itzuliaz eta eraz aldatuaz” (1972, 9). Aurrean, eredu gisa, Arestiren *Harri eta herri* poesi liburua dauka, zeinek, gai eta forma berriak erabiltzean, iraultza bat baitakar euskal letretan.

Beraz, hemen, Luis Haranburuk, literaturari, orduarteko gehiegizko karga linguistikotik arintzeko, bere trataera espezifikoa ematea eskatzen du. Ez da harenean, autonomia edo antzeko kontzepturik agertzen; bai, ordea, forma eta gaia berritzearena. Eta honek eten ideologikoa burutzea inplikatzan du, zeinaren ondorioz literaturari burgesiaren mezu erreproduzitzailea izateari utzi eta mezu sortzailea izatea eskatzen baitzaio. Azken batean, literaturak kritikoa izan behar du: “Aurrekoak berproduzituriko mitoak (literarioa ere bai), pentsakera eta finean ideologia salatu eta kritikatu du. Literatura, krea-tzaile bada, beti izanen da kritikoa” (1972, 15-16). Beste pasarte batean, literatura, kritikoa eta salatarioa den alde-tik, ezin dela neutroa izan esango du: “Hizkera literarioa formal den alderditik molde jakin batzuetan finkatzen da. Molde formal hoiek literaturaren historian korapilatuz eta ugarit[uz?] doaz. Baina hizkera literario hori ez da neutro (hizkuntza neutrorik ez denaren legez). Hizkera literario horri itsetsi zaizkio gizaldien zehar hainbat eta hainbat eraskin ideologiko eta kultural berezi eta historiko” (1972, 17). Literaturaren alderdi etikoa ere

aipatzen du: “Literatura ezin dezakegu hobby baten mailean pausa. Literatura ez da arte eder bat. Madarikatuak horrela pentsa araztera eraman gaituztenak! Literatura lan mailean pausatu behar dugu. Produkzio historikoaren mailean. Zeren eta finean, literatura etika bat da” (1972, 19). Beraz, literatur produkzioak badu zerikusirik lan-munduarekin, hor gertatzen diren kontraesanekin, horko gizarte-gatazkekin. Baina etikotasun horren barruan, idazlea, kreatzaile den aldetik, “amoral” da, ez dago moral jakin bati lotua: “Ordea, eskritoreak badu etikarik, bere gizartean angaiturik eta lekuturik bizi denez. Noski, esan beharrik ez dago etika hori ez dela konfesionala, hitz honi komunzki ematen zaion zentzunean. Gehienez ere etika horren bereizgarria ideologikoa izanen da” (1972, 19). Azkenik, bere ikuspegi kritikoa agertu eta gero, berarentzat literatura zer den esatera ausartzen da: “Nik, euskal literaturaren definizio bat eman behar banu, esanen nuke: Euskal Literatura, Euskal Herriak dituan beharren adierazpena eta behar hoi en erantzun egoki bat dela” (1972, 19). Zalantzarik ez da, artikulua hau lekuko historiko aparta dela, arras egokia, Gabriel Aresti eta Lur-en inguruko idazle-taldean –horko sektore batean bederen–, literatur produkzioari buruz zegoen irizpide kritikoa berri emateko, zeinek, esana daukagunez, egiazko etena suposatzen baitzuen aurreko literaturarekiko.

Hitzaurre horretan bertan, Luis Haranburuk, euskal literaturari buruzko kritikan ikuspegi marxista azaltzearekin batera, gerra osteko belaunaldiaren arazoa ere horren argitan planteatzen du. Bera 1960-64ko belaunaldiaz ari da hiru edo lau pasartetan, zeinaren ezaugarri nagusia, orokorrean, gerra aurreko eta osteko belaunaldien arteko etena baita. Etenaren iraultza hori maila bat baino gehiagotan ematen da.

Lehenik, literatura ardura linguistikotik askatzean eta euskara literarioa herri-hizkuntzara hurbiltzean

zehazten da: “Egia da, euskara literarioa herriarengandik aldaratu dela. Egia da iraultza bat, kasik mekanikoa, gure hizkuntzaren arloan obratu dela... Baina hori ezin bes-tekoa da. Literatur hizkera aparte eta berezia da herriaren ahozko hizkuntzarengandik. Nire jenerazioko eskritoreek euskararen historia berezi batekin hautsi eta eten dute” (1972, 6).

Bigarrenik, forma eta eduki berrien erabilera azaltzen da: “Urte hauetan, 1960-64, gertatu den mugimenduan berriz forma eta gaiaren aldetik izan da. Hizkuntzarekiko eten formalista horren sinboloa ‘H’ dugu. Iraultza guztiak du bere sinbologia eta historikoki bederen ‘H’ agertzen zaiku sinbolo plastiko bezala” (1972, 11).

Hirugarrenik, idazle hauek literatura kreaizailearen jabe izatean datza berritasuna: “1960-64ko jenerazioak ‘Hizkuntza natural’ bat jaso zuan eredu bezala eta bereak ez ziren hizkuntza eta historia bat jasan beharrean aurkitu zen. Eta kreatu ahal izateko mitologia konkretu batekin hautsi behar izan zuen (...) Gure literaturan obra kreaizaile gutti dugunez, lehenaren reproduzizaile izan da batipat. Jenerazio batek besteari pasa dizkio pentsakera, fede eta usteak. Ideologia transmititu du batipat. Eta lehen esana dugu ideologia horrek zein traza zuen. Reprodukzioa izan bada gure literaturaren bereizgarria, kreaizioa da 1960-64 urteetan sorturiko mugimendu literarioaren karakteristika. Kreaizaile den aldetik, lehenaren instantzi kritikoa da. Eta horrela jokatu du gure egunetako literatur gazteak. Aurrekoak berproduzituriko mitoak (literarioa ere bai), pentsakera eta finean ideologia salatu eta kritikatu du. Literatura, kreaizaile bada, beti izanen da kritikoa. Jenerazio honen kritikoa izatea bi gisatara agertzen da: Kritikoa da formari dagokionez eta halaber gaiari dagokionez. Delako Euskara batua, deritzan mugimendua forma aldetik egin den gira-biraren adierazpena da. Baina areago literatur aldetik generoek

ere mugida bortitz bat ukan dute. Poesian Arestik eman zuen hasiera eta bere hildotik joan dira hainbat beste: Lasa, Lete, Sarasola eta Azurmendi hauetarik batzu dira. Nobelari gagozkiolarik berriz, Mirande, Saizarbitoria eta Lertxundi... besteen artean, funtsean eraz aldatu dute euskal nobelaren tradizioa. Tx. Agirre, Etxaide, Mogel eta besteak hastapen urrutikoak besterik ez dira” (1972, 15-16).

Laugarrenik, literatura kreaizailearen bidez lorturiko ideologi pluralismoan zehazten da, hizkuntzak, aparatu ideologikoa den aldetik, gizarte-klase antagonikoen arteko borroka islatzen baitu eta haren mezuak ezin baitu izan neutroa: “Gure egungo literatura kreaizaileak (urria, dena esateko) pluralismo bat konstatzen (sic) du ideologia mailean. Gizartea ez da bat. Herria ez da bat. Klaseen arteko etena eta borroka gure egungo literatur berriaren konstatazio nagusia dugu. Dualismo bat bezala egituratzen den kontradikzio hau soziopolitiko da eta literatur mailean forma eta itxura antagonikoak hartzen ditu. Antagonismo hori klaseena da funtsean. 1960 aurreko gure literaturak batasun ideologiko bat duela esatean, ez dut adierazi nahi literatura haren estrukturak dualismorik ez duenik. Aitzitik adierazi nahi dut, dualismo guztien gaintik batasuna dela nagusi” (1972, 12). Beste pasarte batean gauza bera dakar, garai hartan hain modan zegoen borroka ideologikoari leku berezia emango diona: “Gauza bitxia da nola gerra ondorengoei zuhurki gorde izan zaizkigun gerra aurreko euskaldunen diferentzia ideologikoak (funtsean, oraingoak). Ordea, gure heterodoxia ez da oraingoa, baita guztirara ere, 1960 urteaz gerozko literaturak nabarmendu du, batipat, ‘euskal’ ideologia bat bakarraren ilusioa eta amets interesatua” (1972, 13). Bi ideologiaren arteko gatazka islatzen da hor eta horien arteko etena gauzatzen: “Bi ideologia nagusi oposatu dira hemen, eta noski oposamen honen

azken arrazoinak extra-literarioak dira, politikoak eta ekonomikoak hain zuzen. Herria deritzan multzo moldekaitz eta goibel hori ez da lehengoa, bere kontzientzia maila iratzarri eta zabaldu da. 1960-64 urteek ez dute suposatzen soilik, elite baten zalaparta ('Kulturalista'). Euskal Herri osoak eman du zenbait pauso nagusi. Eta honen lekuko da literatur matxinada" (1972-16). Beraz, eta laburtuz, belaunaldi honen ezaugarriak zehaztasunez finkatuak datozkigu pasarte horietan: berritasuna literatur hizkuntzan, berritasuna literatur sorkuntzan, berritasuna ideologian –hemen, "euskal ideologiaren" gainetik, aniztasuna aldarrikatuz–, berritasuna klasismoan –hemen herri osoari protagonismoa aitortuz–.

Lur-eko bildumak ildo horri jarraitu nahi izan zion, saiakera mailan bezala literaturan, baina ez zuen segidarik izan. Belaunaldien zorroan izenak aurkitzen baitira, 1972ko bilduma honetan datozen egileak, hauek dira: Aresti, Atxaga, Mikel Azurmendi, Haranburu, Kintana, Lertxundi, Sarasola, Urretabizkaia eta Zelaieta. Aurreko bilduman, Joan San Martin, Xalbador Garmendia, J. M. Zumalabe eta Patri Urkizu ere aurkitzen ziren. Hauek guztiak belaunaldi berekoak zirela esatea, zuzena ote da?. Orduan, zer esan behar da 1960-64ko belaunaldiaz? Horietako zenbatek onartuko zituzten bere garaian Luis Haranbururen 1972ko hitzaurre hartako azterketa eta honi darizkion ondorioak?

Galdera horiei edozein erantzun ematen zaielarik ere, ezin ukatuko da egiazko "literatur matxinada" dela hor egileak predikatzen duena. Literaturgintzako sektore batetik, noski, hots: Lur-etik. Gehienik ere nor baten iritzia besterik ez dela jasotzen hor? Baliteke. Nahiz aplikazioetan ez doan hain urruti, Orixeri buruzko interpretazioan salbu, neurri batean edo bestean Ibon Sarasolaren saioan ez ote da ikuspegi kritiko horren oihartzunik entzuten? Geroztik Lasgasbasterrek ez al du kausitu

Ibonen historia, metodo marxistaren barruan, hain zuzen, mekanizistegia? Euskal literaturaren historia osoari azterbide hori aplikatu izan balio, zer iskanbila!. Mogen ideologiaz zerbait idazten hasi orduko gainean izan zituen euskal zohardiko izarren kondanak.

Hogeita hamar urtetik gorako urte-tarteak ematen duen ikusmira hotzagoa alde izanda –baina, aldi berean, orduko lekukotasunari zerion berotasun eta freskotasunaren kaltetan–, Luis Haranbururen artikulu horren ingurumari, zehaztasun batzuk emateari argigarri deritzogu, 1964ko belaunaldiaren izaeran areago sakontzeko. Artikulu horretan, hasteko, ezker abertzaleko sektore kulturalistaren kontrako aldarrikapenean, hain zuzen, marxista ez-nazionalisten ideologia errebindikatzeko da, ideologi aniztasunaren izenean.

Orduko internazionalistak ez ziren aitortzen nazionalistak, ezta ere estatalistak; Geroak, hainbaten kasuan, hala zirela erakutsi du: estatu jakin bati atxekiriko nazionalistak, alegia. Zalantzarik ez da mota bateko zein besteko ideologiak –ez baita ideologi hazirik ez daraman teoria zientifikorik–, sobera zedarritzen zuela kulturgingintzaren esparrua, askotan, baieztapen salomonikoen azpian, ezjakintasun subiranoa ezkututzen baitzen, edo, ez gutxitan, zientziaren izenean euskarri teoriko zindorik gabe baieztapenak egiten baitziren, batez ere teoria zientifikoriek –deitu horrela orduko estrukturalismoa, marxismoa, tekno-funtzionalismoa, etab.–, ikuspegi orohartzailaren edukiarekin jantzita azaltzen zirenean. Postmodernismoak geroztik egin du bere bide desmitifikatzailea, zenbait puntutan zerteroa.

Honetan guztian kritikatu beharrekoa ez da hainbeste teoria marxistak azterbide gisa izan dezakeen baliagarritasuna, beste teorien antzera, neomarxismoak ere bere zuzenketak eginak baititu. Egun gainditua dago ekonomian oinarritutako azpiegiturari atxikiriko ikuspegi

determinista eta, ondorioz, garai bateko gainegiturari zegozkion esparruei autonomia aitortzen zaie, horien artean, eta modu berezi batez, kulturari. Kritikatzekoa, beraz, orduan bezala orain, bat, gizarte-aldaketan eragiten duten faktore desberdinei ematen zaien garrantziaren handiagoan edo txikiagoan legoke edota, bestela esanda, monokausalismoaren ala multikausalismoaren aurrez aurre hartzen den jarreran; bi, azterbidetzat edozein teoria hartzen delarik ere, zailtasunak aplikazio konkretuak egiterakoan sortzen dira; eta hiru, teoria orohartzailerak krisian dauden une honetan, metodo estatistikoek bidez lortutako tipologia unibertsalak sortzeko joera nagusitu da eta, ondorioz, zientifizismoz eta objektibotasunez hornitutako datu kuantitatiboen azpian, sarritan, ezein euskarri teorikorik gabeko diskurtso-eraikuntza saltzen da. Euskal literaturaren historiari buruzko argitalpenetan eta, oro har, edozein kultur produkturi buruzko lan sektorialetan horrelako hutsunerik aski bada, baita azken ordukoetan ere. Horietan “soziala” adjektiboa sarritan erabiltzen da, baina metodo soziologikoa aintzat hartu gabe, hots, testua bera eta testuaren sortzailea bere testuinguru hurbilean kokatu gabe. Zer balio dezake autore bati eskaintzen zaion lan monografiko batean, metodoaren eskabidez baino gehiago halamoduzko prozedura akademikoaren konplimenduz, lanaren hasieran datorren kapitulu biografikoak?

Errepaso bibliografiko hau burutzean atera dugun ondorioa da, garai hartako gatazka ideologikoak –berriro esanda, maila handiagoan edo txikiagoan, nabarmenagoan ala ezkutuagoan–, erreproduzitzen datozela, batez ere nazio-arazoari buruzko ikuspuntuan eta honi erakunde politikoen mailan ematen zaion erantzun praktikokan. Ez hor bakarrik, baita euskal kulturari buruzko jarreraren ere, euskaraz eta erdaraz dihardutenak, ideologia politikoen gainetik, beren jarduera praktikokan zatituta

aurkitzen baitira. Egun erreprodukzioaren teoriaren kontrako joera orokortua badago ere, ikusia dago kultur fenomenoak, beste guztien antzera, produzitu adina erreproduzitzen direla gizarte-egituren sarean.

Periodizazioaren arazoarekin jarraituz, baina modu zehatzago batez belaunaldiaren kontzeptuari helduz, indikatzaile hutsa izateko beste xederik ez duen zenbait belaunaldiren –edo halakotzat hartuak izan direnen–, zerrenda aurkeztera pasatuko gara segidan. Noski, belaunaldi horien datazioa aldatzea badagoela, urte-data batzuk sartuz eta beste batzuk kenduz ere bai.

IV. Zenbatgarren belaunaldia?

Ikusi berriak gara lodia dela Espainiako literaturan belaunaldien zerrenda. Euskal letretan zenbatekoa ote? Espainiako kritika literarioan hain barneratua dagoen belaunaldien kultura horrek izan ote du eraginik euskal letren kritikariengan, eta izan badu, zein neurritan? Seguru asko batek baino gehiagok eginak izanen ditu galdera horiek.

Miatu ditugun iturrietan han eta hemen aipatuak asko baitira, zenbatgarren belaunaldiren aurrean aurkitzen garen eta halakotzat hartuak izateko zein arrazoitan oinarritzen diren da galdera. Ordena kronologiaren arabera sailkatuko ditugu belaunaldiak, bakoitzaren ezauzgarriak emanaz. Noski, beste zerrenda bat aurkeztu ezinik ez da. Bere behin-behinekotasunean, lehen ekinaldiko hurbilketa-saio bat besterik ez da hau.

1800ko belaunaldia

Luis Villasanteren literaturaren historian oso gutxitan agertzen bada ere belaunaldiaren kontzeptua, aita Manuel Larramendiz jardutean, halakotzat dauka bere aldia, 1800-1850 epealdia hartzen duena (1961, 197).

Hamalau bat idazle dira belaunaldi hori osatzen dutenak, ia gehienak elizgizonak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak (1961, 116). Santi Onaindia ere (1972, I, 190) iritzi berekoa da, XVIII. mendea haren belaunaldiari dagokiona dela eta haren argiak XIX. mendea arte itzaltzeke jarraitzen duela esaten baitu, kultur eragile gisa halakotzat hartu beharrekoa. Joseba Intxaustirentzat, orobat, euskaraz “deus gutxi idatzi” arren, Larramendi izan da “kontzientzia berriaren gidaria” eta bere ingurua aldatuko duena, “jendea euskalgintzara erakarriz, eta orduko langilei eta ondoko belaunaldiei ere segurtasun kolektibo eginago bat emanez” (1986, 375). Beste liburu honetan ere, haren belaunaldiarena dator: “Euskararen alde egin eta idatzi zituenak molde eta balio ezberdinetakoak dira; baina, batzuk zein bestek, haren belaunaldiarentzat eta gero etorri zirenentzat zinez eragileak suertatu izan dira” (1990, 92). Batez ere, ondorengoengan izandako eragina da aipatzekoa berarengan: “... izan bedi zilegi hark bere inguruan sortu zuen aldakuntzaz garaiko batzuek zer sentitu zuten jakiteko, besterik ezean. Larramendik, arrakasta bere bizialdian ikusi ahal izan zuen: argitalpenen bidez eta, bakoitza bere gisan, euskalgintzara hurbildu zitzaizkion josulagun eta besterekin” (1985, 376).

Nola Luis Villasantek hala Joseba Intxaustik antzeko zentzuan darabilte belaunaldiaren kontzeptua Larramendiz jardutean, ezaugarrien artean, horren mota askotako idazlanak, eragile-izaera, inguruan zeukan itzala eta jarraitzaileengan izandako eragina aipatzen baitituzte.

1876ko belaunaldia

Eusko Pizkundearen zikloa osatzen duen euskaltzale eta idazleek osatuko lukete belaunaldi hori. Joseba Intxaustik honela egiten du horren mugaketa kronologikoa: “Azken Karlistadaren (1876) eta Gerra Zibilaren

(1936) artean garatutako euskal mugimendu sozio-kulturalari deitzen zaio Eusko Pizkundea: hirurogei urteko historia da” (1990, 118). Lehen esan bezala, bi aro nagusitan banatua dator. Lehen pausoak 1876-1900 epealdian ematen dira, orduan agertzen baita euskararen aldeko kultur mugimendu foralista, “geroz eta argiagoa” (1985, 384) dena, euskal probintzietan kultur ekintzak bideratuz, hala nola Euskal Jaiak eta Lore-Jokoak, eta kultur elkarteak eta aldizkariak sortuz, hala nola *Revista Euskara* eta *Euskal-Erria*, geroago Eusko-Ikaskuntza, Euskaltzaindia, RIEV. Bigarren aroa, gerra aurrekoa deitzen dion horretan kokatzen du –1930ekoan, alegia–, eta hemen, kultur mailako ekintzen artean, Bertso-Lehiaketak, Olerti-Egunak eta Euskararen Egunak dira aipatu beharrekoak. Bestalde, 1930eko belaunaldien artean aipatu ohi diren poeta gorenaren alboan, ez gorago ez beherago, herzi literatur sortzaileak ez direnen lumak agertzen dira Joseba Intxaustirenean, hala nola aita Estefaniaren literatur kritikariarena, Justo Maria Mokoroaren saiolariarena, Aitzol saiolari eta kultur eragilearena. Baina Eusko Pizkundean zehar, azpi-aroak ematen dira.

Laburtuz, eta esandakoetatik ondorio batzuk atereaz, esan dezagun, bat, batzuek 1936koa belaunaldi baten hasieratzat jotzen dutena, beste batzuek, Joseba Intxaustiren kasuan bezala, kultur mugimendu baten azken aro bezala agertzen dela; bi, aro horietako bakoi-tzak badituela bere ezaugarriak eta gidariak; hiru, sailkapen kronologiko honetan, ikuspegi politikoa nagusitzen dela, postforalismoarekin hasi eta gerra zibilarekin bukatzen dena. Horiek horrela izanda, nola ulertu behar dira 1876 eta 1930eko belaunaldiak, epealdi berekoak ala apartekoak bezala?

Orixeren literaturaren historian bigarren “zikloa edo biribilkia” Larramendik osatzen duen bezala, hirugarrenean Sabino Aranak darama aitzindaritzza. Koldo Mitxe-

lenaren ustez, orobat, berak laugarren aroan sailkatzen duen Eusko Pizkundearena ondoen ordezkatzeko dutenak, Sabino Arana eta R. M. Azkue dira, baina, batez ere, lehenengoa, mugimendu hori berarekin hasi zelako eta ez Aitzolekin, *Euskaltzaleak* elkartearen bidetik. Santi Onaindiak, berriz, bi talde bereizten ditu, batetik, Arana, Azkue eta Kanpion eta, bestetik Unamuno, Baroja eta Maeztu, guztien gainera Sabino Aranaren eragina gailentzen delarik: “Sabino Arana Goiri dugu beste alde-
tik euskerea gaizkatu ziguna. Politika izan zan bere arazo apartekoa; bere erria bizirik atera nai izan zuen” (1974, III, 11). Joan Mari Torrealdairantzat (1997, 101) ere, abertzaletasunaren gorakadan ez ezik, euskaltzaletasunean ere, Sabino Aranaren eragina erabakigarria gertatu da: “Sekulako garrantzia du Sabino Arana Goirik, politikan noski, baina kulturaren ere bai. Sabino Arana Goiri (1865-1903) euskaldunberria da; eta euskaraz idatzi du, euskarari buruz eta gramatikaz... Erreferentzigune alboraezina da Sabino Arana”. Ondorioetan, agian, bera baino urrutiago goaz gu, zere, “Sabino Arana eta bere eragina Euskal Pizkundean” saioan (2004) diogun bezala, Abandokoaren itzal kulturalak luzaro irauten baitu, gerra ostean ere bai, eta ez bakarrik aranazale puristen artean, baita sektore horretatik harago ere: “Modu batera edo bestera, Sabino Arana, mende bat pasa eta gero ere, oso bizirik dago. Eta hala dago, batik bat, beste testuinguru batean aurkitzen bagara ere, oraindik ere berak harrotutako gaien inguruan gabiltzalako itzuli-mitzuli eta funtsezko arazo horien muina ulertu eta aterabidea bilatzeko kriseilua eskuetan utzita joan zelako” (Iztueta, 2004, 109).

Joan Mari Torrealdaik, 1876ko belaunaldiarena dakarrenean, kontzeptu honen bidez data horretan euskal foruak abolitzean sortu zen mugimendu politiko-kulturala, euskaltzalea –funtsean, foruzaletasunean oinarritzen dena–, adierazi nahi du, gertakarien mailan Espainiako

98ko belaunaldiarekin nolabaiteko lotura ezarritz: “98ko belaunaldi espainiarrari egiten dio honek erreferentzia, Unamuno, Maeztu, Ortega y Gasset, Madariaga eta konpainiaren belaunaldiari. Espainia handiaren (Inperialaren?) defentsa da hauen lana. Lehendik arriskutan ikusten zuten Estatuaren batasunari, 1898an erantsi behar zaio Espainiak Ekialdeko eta Ameriketako hainbat kolonia galtzen dituela. Sekulako zirrara sortzen du horrek. 1876an eite beretsuko krisia bizi du euskaltzaleak. Honi ‘betidaniko’ helduleku politiko eta kulturalak huts egiten diote foruak abolitzean. Foruzaletasuna ez da hiltzen horratik. Alderantziz, joera foruzalea eta autonomizalea areagotu egiten dira, eta, bide beretik, honi euskarriak eman nahian edo, Euskal Herriaren historia, kultura, hizkuntza berreskuratu behar intelektual eta politikoa sentitzen dute. Langintza honetan nabarmentzen den intelligentziak ezaugarri bat baino gehiago du: laikoak dira, hiriburuetan bizi dira, kulturaz jantziak dira, elkarteak, plataformak eta aldizkariak sorten dituzte, eta, aspaldiko tradizioari lotuz, erdaraz gehienbat defendatzen dute Euskal Herria eta euskara. Nafarroa da lehena. 1977an ‘Asociación Euskara de Pamplona’ sortzen dute eta hurrengo urtean bere organoa, *Revista Euskara*. Kanpion, Hermilio Oloriz, Juan Iturralde eta beste asko biltzen ditu plataforma honek; Gasteizen, 1878an, *Revista de las Provincias Euskaras* sortzen dute, eta hor J. Apraiz, Federico Baraibar, Ricardo Becerro de Bengoa eta Fermin Hernández aurkitzen dira; Bilbon, Aristides Artiñano, Juan E. Delmas, Antonio Trueba; Donostian, Jose Manteola, *Euskal-Erria* aldizkaria (1880-1918) zuzentzen” (1997, 100-101). Beste pasarte batean (1997, 100), belaunaldi honen emaitzak aipatzean, literatur sorkuntzaz harago, beste sailetan egindako ekarpenak ere aintzat hartzen ditu, adibidez, gogoeta pedagogikoan eta ikastolen eraketan emandako urratsak. Beti ere Eusko Pizkun-

dearen epealdi-barruan, gerra aurre hurbila alde batera utzita, Idoia Estornesek (1983, 4) lehen aro foralitari “el renacer cultural vasco (1876-1900)” deitzen dio.

Aurrerapauso kualitatiboa eman, ordea, hurrengo aroan emango da, Eusko Ikaskuntzaren sorrerarekin 1918an, elkarte hau izango baita kulturaren esparruan jakintza-sail desberdinak landuko dituen: natur zientziak eta zientzia zehatzak, giza eta gizarte-zientziak, arte plastikoak, euskarazko literatura, musika eta dantza, euskararen aldeko mugimenduak, Baraibar eta FAPE (Federación de Acción Popular Euskerista), irakaskuntza, euskal unibertsitatearen aldarrikapena, eta abar. Eginkizun honetan parte hartzen dutenen multzoak, belaunaldia deitu ala ez, ezaugarri hauek ditu batera: bat, bertan ideologia desberdinetako euskaltzaleak elkartzen direla, nola nazionalistak hala karlistak edo liberalak; bi, Euskal Herriari buruzko gaiak dituztela ikergai: hiru, ikergai horiek lantzeko gehienbat erdara erabiltzen dela. Hizkuntzari buruzko alderdi hau euskal historiografian ez da agertzen, agian, garrantzirik ematen ez zaiolako edota, beharbada seguruago euskal kulturari buruzko ikuspegia eleaniztasunean oinarritzen delako. Bigarren aroko kultur mugimendu honek baditu bere protagonistak jakintza-sail honetan: Julian Elorza, Angel Apraiz, Arturo Kanpion, Julio Urquixo, Pierre Broussain, Gregorio Mugika, Leonzio Urabayen, Eduardo Landeta, aita Donostia, J. M. Barandiaran, Telesforo Aranzadi, E. Eguren, Luis Eleizalde, Karmelo Etxegarai, eta abar.

Gerra aurreko idazleez jardutean, Jokin Zaitegik, *Euzko-Gogo*a-n egindako artikulua segida gisa makinaz idatzitako argitaragabeko lan batean¹, zeinaren berri

¹ “Gai onezaz idatzia dut, labur bederen, *Euzko-Gogo*a-ren lenengo banakoan, ‘Etxetxo’ gezur-izenez. Zabalago adierazi nai nuke gai

geroxeago emanen baitugu, 1930etik aurrera Aitzolen kultur proiektuan sartzen ez diren idazleak kokatzen ditu, aranazaleak ez direnen eta direnen arteko bereizketara eginez. Lehen taldean ondoko hauek izendatzen ditu: Azkue, Txomin Agirre, Olabide, Lopez-Mendizabal, Eguskitza, Emeterio Arrese, Altube, Zamarripa, Elzo, Sagartzazu, Arruti, Elizondo, Alzaga, Garitaonaindia, Intzagarai, Larreko, Manezaundi eta Garbizu; bigarreanean, aldiz, besteok: Elizalde, Kirikiño, Arriandiaga, Zabala-Arana, Urrutia, Jemein, Altuna, Bingen Aizkibel eta Bilboko Euskaltzale-Bazkunakoak. Azken eskola honetaz luze mintzatzen baikara Sabino Aranari buruzko gure lanean (2004, 75-104), ez goaz xehetasunetan sartzea. Belaunaldi honen finkapenean erabiltzen duen irizpidea, funtsean, adinean oinarrিতua da, 1930ean 66tik 51 urtebitarteko adina zutenek osatzen baitute hura. Zaharretetik gazteenera, batezbeste, 15 urteko aldea ematen da.

1930eko belaunaldia

“Aitzol’en gizaldia” deitzen dio “Etxetxo” izenordez izenpetzen duen Jokin Zaitetik 1930-36 epealdiari *Euzko-Gogo*a-ko lehen zenbakian datorren artikulu-izenburu batean. Aipatu berria dugun eskuizkribu horretan, Aitzolen izena errebindikatzen du belaunaldi horretako gidaritzat. Bera ez zen poeta izan, hala dio, baina bai euskaltzalea eta jeltzalea.

Zein poeta diren belaunaldi hau osatzen dutenak ere esaten du artikuluan. Hasteko, Eusko-Olerti-Egunetan sarituak izandakoak aurkitzen dira, hala nola Lauaxeta,

ori”. Lan hau Euskaltzaindiko Azkue bibliotekan aurkitzen da, kode honekin: ABA-JZA-Aitzol. Guztira 9 orri ditu, lerro-tarte handiz joa.

Lizardi, Loramendi, Patxi Etxeberria, Zaitegi, Jauregi, Otamendi, eta horiekin batera, noski, Orixe, Tapia-Pe-rurena, Jakakortajarena, Loidi, Erkiaga, Gaztelu, Santi Onaindia, Enbeita, Zugasti, Arozena, Labaien, Pagadizabal, Urkidi, Ametzaga, Barrenso-ro, Arrizubieta. Zerrenda honi, argitaragabeko lan horretan, beste izen hauek ere eransten dizkio: Lekuona anaiak, Iraizoz, Eizagirre, Txomin Irigoien, Martin Oiartzabal, Markiegi anaiak, Larrakoetxea anaiak (Bedita eta Polikarpo), Bernardo Maria Garro (Otxolua), Ibargutxi, Gabirel Manterola, Arruza, Jon Oñatibia, Jesus Insausti (Uzturre), L. Guridi, Nemesio Etxaniz, Telesforo Monzon, Goenaga, Ibinagabeitia, Aurre-Apraiz, Plazido Mujika, Gabriel Jauregi, Bizente Batiz (Xalokin), Atutxa, Zubimendi. Talde berean sartzen ditu J. A. Antonio Agirre, J. M. Leizaola, Lasa anaiak, Artetxe, Gurrutxaga, Irujo, Alberto Onaindia, Thalamas-Labandibar eta, baina hauek gehienbat gaztelaniaz idatzi dutenak izaki, euskal idazleen goiko zerrenda horretatik at uzten ditu.

Baina harentzat poeta garaienak, belaunaldi hau guztien gaineratik ordezkatzen dutenak, hiru baino ez dira izango, hots: “adibidez, Lizardi, Lauaxeta edo Orixe añako olerkaririk nekez arkituko dituzu aspaldiko urtetan” (Zaitegi, 1950, 7).

Aitzolen belaunaldikoak, bere garaikoak, zein ez diren ere esaten du: “Okerreanean ezpanago, Monzon, Ibinagabeitia, Aurre-Apraiz gure belaunaldiko dira, ta Mitxelena, Kerexeta, Olabeaga, Loidi, Urrestarazu gure ondorengo. Eztira gure taldeko ta belaunaldiko Krutwig, Villasante, Mirande, Etxaidetar Ion, Txilardegi, Arestita. Ori berroxixe adierazten dute, zearka ba’da ere, oietako batzuk, batez ere Txilardegi’k”. Segidan honen esaldi bat transkribatzen du, dioenaren lekuko gisa: “Euskeraren aldetik, eta Euskalerra alde ontan, berrogei ta amar urte ontan izkribatu dan geien geiena, txarra da, oso txarra,

euskararentzako kaltegarria obe. Gure sasi-teoria oietan finkaturik, ondatu egin dugu alde ontako euskera; eta argitara diran liburu eta idazki geienak, munstrokeriak dira, eta (auxe bai farragarria!) erdera utsa”.

Zaitetik, lan horretan, hiru belaunaldi bereizten ditu: Aitzolen aurrekoa, Aitzolen garaikoa (1930-37) eta, azkenik, Aitzolen ondokoak. Lehen eta hirugarren kasuan data finkorik ezarri gabe; Aitzolen gizaldiaren epealdia, bai, zehazki mugatzen du. Zergatik hala deitzen dion arrazoitzen ahalegintzen da *Euzko-Gogoa*-ko artikulua horretan eta hau argitzea da interesatzen zaiguna. Ezau-garriak zenbakituz joango gara segidan.

1) Poeta garaien eta bikainenak dira eta orduko ekintza kolektiboetan –besteak beste, antolatzen diren poesi lehiaketetan–, parte hartzen dute: “Orain arte euskerak izan ditun olerkari garaienak eta bikañenak Aitzol’en baranoan loratu ziran, nonbait. Alegia, 1930 g. urtetik 1936 g. urterarte. Zazpi urteok, benetan, arrigarriak izan zenitun euskal-olerkarien onerako. Nik uste, zazpi urteok betirako goragarri izango dirala Eusko-Olertiaren edestian. Ori dala-ta, nolabait sailkatu ta izendatu bear-eta, aldi ori ‘Aitzol’ en gizaldia’ izendatu deza-kegu. Aitzol izan baigenun guziok eragille ta zirikatzaile, nolarebait” (1950, 5).

2) Arestian esan bezala, Aitzol da belaunaldi honen gidaria, kultur ekintzen eragile eta antolatzailer den aldetik; literatur gaietan maisu, ordea, Orixe: “Elerti-gaietan ‘Orixe’ ren euskal-lanak ezagunak genitun. Berau genun gure otsemalle ta irakasle nolarebait” (1950, 5).

3) Urte-data bertukoak dira guztiak, “1890 garren urtea ezkeru yayoak”, alegia (1950, 5).

4) Antzeko prestakuntza intelektuala dutenak dira: “Guziok gizon ikasiak dituzu. Nondik naiko idaztiak irakurtzeko itoak giñan geientsuenak. Batez ere olerki-idaztiak. Parantze, Germani, Ingalaterra ta Itali’ko olerkarien

idaztiak irauli genitun. Españi'koak ez orrenbeste” (1950, 5).

5) Beren artean harremanak badituzte, gutun-bidez edota bestela: “Guziok elkaturik giñan eskutitzez, behintzat. Hamaika idazki eder eskuratu nitun Aitzol, Lizardi, Orixe, Lauaxeta ta Etxeberria'k neroni idatziak, behintzat. Idaztiok, maitez bildurik ditut oraindik. Aitzol'ek sorturiko *Yakintza* aldizkari ederraren bidez ere elkaturik giñan. Aldizkari ortan idazten bai-genun geientsuenok. Bertan dituzu gure olerki ederrenetarikoak” (1950, 5).

6) Helburua ere ongi finkatua dute, zeina baita euskara poesi bidez edertzea –modernizatzea gaurko hizkuntzan– Europara begira: “Orixe zan gure elburu: euskera orraztu, apaindu ta txukunean olerkiak eusko-gogoz egin. Beraz, gure auzi ta asmakizuna Euzkadi zan barne-muiñez: Euzkadi'ren gogoa asmatu ta azaldu. Ta gure erantzuna: Europe'k aizatutako Euzkadi” (1950, 5). Eusko Pizkundeko mugimendu soziopolitiko eta kulturala izango da idazle-talde horri gorputza emango diona.

7) Hitzen erabileran eta poesi estiloan, bereziki erri-maren trataeran, berritasuna dakarten sentipena dute: “Orain, berriz, Aitzol'en gizaldikoek olerkari zurrian egin zuten lana, osotara bederen, azalduko dizut. Len esan dudanez, itz asko oroldiz estalita, erdoiz yanda, lizunez beteta ta elbarriz yota, beste ainitz, idazti zarretan eta orandik sakabanatuta ta bakanduta zeuden. Beraz, alik eta itz berri gutxienik asmatuta, Azkue'ren iztegiko itz yatorrak bildu, ta, erabillaren erabilliz garbitu, soildu ta egutera ekarri zituten. Horrela, ordurarteko olerkietan erabiltzen zan itz-eli urritxoia ugaldtu zan. Itzak ugaldtu ondoren, itz-erorkera² ere asko ugaldtu ta aberastu zuten Aitzol'en gizaldikoek: gañera, itz-erorkerari garrantzi aundia eman

² *Egilearen oharra*: Itz-erorkera = Rima

zioten eta itz-erorkera zail, bakan eta oitu-ezen irrika ari ziran” (1950, 6). Beste honetan ere errimari ematen dioten garrantziaz ari da: “Aitzol’en gizaldiko olerkariak ekarri duten itz-neurtuaren berpiztea goragarritzat dut. Oiei esker, zeruan izarrak baño itz gehiago ditugu” (1950, 7).

Guztira, zazpi ezaugarri dira hor dauzkagunak, Petersen-ek 1930ean aipatzen zituen baldintza haiek betetzen dituztenak. Bigarren paragrafoan “non-naiko elertiedestietan olerkari ta idazleak sailka bildu oi direla” esaten baitu, galdera da ea ezagutzen ote zuenetz egile horren iturria. Erantzuna, gehiagoko zehaztasunik gabe, zaila da, garai haietan ohitura aski zabaldua baitzen idazleak taldetan sailkatzea. Dena den, Thibaudet-en historia ere 1936an agitaratua da. Agian, ezagunak zituzkeen.

Badirudi, beraz, Jokin Zaitegi berak zuzentzen duen *Euzko-Gogo*a aldizkaria, belaunaldi horren oinordeko sentitzen dela, artikulua horretan espiritu hori jasotzen baita. Geroztik, Santi Onaindiak ere, Jokin Zaitegiren iritziari jarraiki, XX. mendeko bigarren hamarkada-bukaeratik gerra zibila hasi arteko epealdiaren zutabetzat Aitzolen aroa edo belaunaldia ezartzen du³, bere burua ere hor ikusten duelarik, eta ikuspegi hori sendotu besterik ez da egiten. Belaunaldi hori bera izango da gerra ostean, etenik gabe, gerra aurrekoari segida eman-go diona. Horrela, Jokin Zaitegi zein Santi Onaindiaren baitan, 1930eko belaunaldiaren lekukotasuna finkatuta geratzen da. Eta ez arrazoirik gabe, zeren 1920ko hamar-

³ “Auxe dugu Aitzol’en belaunaldia. Gudu aurreko zazpi bat urtean, berak batez ere, sustatu, bizkor-azi ta aurrera eraman zigun orduko gora-naiezko mogimendu guztia, *El Día*, *Euzkadi* egunerokoak eta *Yakintza* aldizkariaren bitartez. Aren inguruan babestu giñan ainbat eta ainbat idazle ta euskaltzale. Merezi du, beraz, tolosarrak dalako aroaren erregetza” (1974, IV, 13 or.).

kadan zehar eta, batez ere, 1930etik aurrera, ordurarteko hizkuntz ereduei buruzko ezadostasunari literatur estilistikoa ere erantsiko baitzaio eta euskal idazleen arteko desberdintasunak areagotu egingo baitira, *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)* liburuan (2002) aztertzen dugun bezala, eztabaida esparru linguistikotik estetikara pasatuz, edo biak nahasiz. *Testu hautatuak euskal estetikaz bildumari* (2002) egindako hitzaurrean azaltzen dugun bezala, hiru eredu garbiki bereizten dira: Aitzol, Lauaxeta eta Orixerena.

Luis Mari Mujikaren (1979, 321-381) ustez, euskal literatura landuaren historia guztian 1930eko literatur belaunaldi hau da kalitatez aberatsena, Eusko Pizkundearen gailurrean, 1936an, goia jotzen duena. Poesian lau izen nabarmentzen dira, Loramendi, Lauaxeta, Lizardi eta Orixe, eta hauek dauzka “krezionismo estetikoaren” aitzindaritzat. Karlos Otegik (1985, 434-437), bere aldetik, gerra aurrekoa deitzen zaion belaunaldi horren barruan kokatzen du 1939an hasi eta 1957an ixten den epealdiko literatura, “aberriaren iraupenerako ahaleginen” gauzatzen dena.

Gotzon Garatek (2001, 31), nobelagintzari dago-kionez, 1946tik 1957. urtea bitarteko epealdiari sail berria osatzeko berezkotasunik nahikoa ikusten dio, Juan Antonio Irazustaren *Juañixio* eleberri errealistarekin (1946) eta Jose Antonio Loidiren *Hamabost egun Urgain'en* (1955) polizia eleberriarekin. Ibon Sarasolak (1970, 70-72), 1936ko idazleei “kontinuitatearen jeneraziokoak” deitzen die, eta haien poesia menderatutako belaunaldi bati dagokiona da. Berrikitan Iñaki Aldekoak (2004) “la generación poética de la República” deitzen dio garai honetako poeta-taldeari eta honentzat ere, Zaitegirentzat bezala, Aitzol da gidaria, “el artífice de un período fundamental de la poesía vasca” (2004, 131).

Lau historialari horiek belaunaldiaren kategoria ematen diote, bada, gerra aurreko idazle-talde jakin bati, bereziki poesia lantzen duenari. Horri 1930ekoa, 1936koa, edo 1939koa deitzea, berdin da, urte jakin baten mugaketan erabateko adostasuna ez egoteak ez baitu oinarrizko errealitatea aldatzen. Arazoa etenarena da. Egiazki ematen al da? Ibon Sarasolaren ustez, ez; besteek ez bide dute aipatzen puntu hori. Eta etena ematen bada, hori zertan zehazten den ez dakigu, ezta zein belaunaldik zein idazle-talde ordezkatzeko duen ere. Gerraren arrazoia ezin da oraindik aipatu, geroztiko gertakaria baita, segidan azalduko dugun bezala. Horregatik dakargu aparte hurrengo belaunaldia.

1936ko belaunaldia

Joan Mari Torrealdai da, nolabait esateko, belaunaldi honen existentzia sagaratzeko duena, nahiz eta ez dagoen ziur gerra zibilak eten fisikoarekin batera ideologikoa ere ekarri zuenetz. Ez du horregatik zalantzan jartzen, ordea, gerrarekin batera belaunaldi berri bati ematen zaiola hasiera, frankismoarena aro bitan banatuta baitakar, lehena 1936tik 1956ra doana, eta bigarrena 1956tik 1975era, oinarriztat, Marcel Girard-en (1968) antzera eta irudira, hogei urteko ziklo kulturalaren hipotesia hartuz. Honela zehaztuak datoz 1936ko belaunaldi honen ezaugarriak eta horretan parte hartzen duten idazleak, zuzenean transkribatzen ditugunak:

“1936ko belaunaldiaren aurrekoak, 1936koak alegia, badu ordezkariarik adin-piramidean. Belaunaldi honen aukera gutxi eta eskasak izan ditu bere idazlangintza garaiz aurrera eraman ahal izateko. Gerra bizi-bizian ezaugu eta jasan dute, pertsonalki eta/edo familian. Francoren altxamentuak txikizioa ekarri zuen Euskal Herrira.

Babes-bila diasporara jo zuen abertzale eta euskaltzaleen multzo batek eta beste batek bertan aurkitu zuen izkurtalekua. Kanpokoetatik ordezkari gutxi gelditzen zaigu (1997an, noski). Martin Ugalde dugu ezagunena eta eredugarriena. Barruan gelditu zirenak, ezinak, gartzelak, bildurrak gaindituz, emeki-emeki hasi ziren lanean erregimenak uzten zituen zirrikituz baliatuz. Zaharrenetik gazteena bada multzo bat: Jose Basterretxea, Anastasio Arrinda, Balendin Aurre-Apr aiz, Basarri, Kaminazpi, Agustin Zubikarai, Mariano Izeta, Jose Antonio Loidi, Jaime Kerexeta, Luis Villasante, Iratzeder, Federiko Krutwig, Piarres Xarritton, Martin Ugalde, Juan San Martin, Gurutz Ansola, Xabier Gereño, Bittor Kapanaga, Jon Etxaide, Antonio Zavala, Bitoriano Gandiaga, Txillardegí. Belaunaldi honetako batzuk egiazko gidariak izan ziren 50eko eta 60ko hamarkadetan, hala nola Koldo Mitxelena, Txillardegí, Gabriel Aresti, F. Krutwig, Piarres Xarritton. Adinez belaunaldi honetakoak izan arren, idazteari oso berandu ekin dionik ere bada belaunaldi honetan. Nabarmenenak dira, horien artean, Auspoaren bidetik plazaratu diren batzuk, kasurako, Ataño, Pablo Zubiarrain, Manuel Lasarte” (1997, 398-399).

Laburtuz, gerra aurrean jaio edo idazten orduan hasitako belaunaldi honi bere nortasun-ezaugarriak ematen dizkion elementuak, hauek dira: idazteko aukera gutxi, gerraren zuzeneko bizipena, erbestearen pairamena, barruko zapalkuntzaren erasana, taldearen heterogeneitatea, gidaritza anitza.

Azken batean, urte-data desberdinak dauzkagu aurrean gerra aurreko belaunaldiaz jardutean. Batzuek 1930eko belaunaldiaz diharduten bitartean, azken egile honek 1936koari eusten dio, ezinbestez eutsi ere, zeren, hala ez egitekotan, ezingo bailuke 1956 eta 1976ko belaunaldiez hitz egin, nola eta ez dion uko egiten 20 urteko zikloari. Zikloari urte-data jakina ezarriz gero, hori

jarraitu beste biderik ez da geratzen. Urte-data at utzita, berriro lehengo galdera bera dago erantzuteke: belaunaldi berri baten aurrean aurkitzen al gara? J. M. Torrealdaik erantzun finkorik ez du ematen, baina hala balitz bezala jokatzeko du.

Jokin Zaitetik, bere eskuizkribu horretan espreski dakarrenez, Aitzolen ondoko belaunaldikotzat jotzen ditu idazle hauek: Salvatore Mitxelena, Jaime Kerexeta, Olabeaga, J. A. Loidi, Andoni Urrestarazu batetik, eta bestetik, F. Krutwig, Luis Villasante, Jon Mirande, Jon Etxaide, Txillardegik eta Aresti. Hauetako batzuk XX. mende hasierakoak badira, Olabeaga eta Urrestarazu bezala, gerra ostean idazten hasten direlako kokatzen ditu aparteko belaunaldi batean. Zeinetan? Zer dute batera lehen zerrenda eta azkenekoan izendatuek?

1950eko balaunaldia

Gerra ostean erbestean zein barruan kulturgintzan diharduen belaunaldiari dagokiona da, Joan Kortazarrek (2000, 118-130) halaxe deitua, batik bat, erreferentzia nagusitzat *Euzko-Gogoa* eta *Egan* aldizkarietan parte hartzen duten idazleak hartuta. Lehena erbestean argitaratua izanak eta bigarrena, berriz, barruan, frankismoko lehen hamarkada hartan bere berezitasunak ezarriko dizkio lankide kolektibo horietako bakoitzari. *Euzko-Gogoa*-k betetzen duen zubi-lana aipatzen ez da bakarria, aldizkari horren ezaugarri bera nabarmentzen baitu Martin Ugaldek (1985, 453) ere, esatean aldizkari honi zor zaiola 1950eko berrikuntza erbestean.

Barruan, Donostiako *Egan*-en kasuan, hasieran be-deren, oso gune trinkoa biltzen da Irigarai, Arrue eta Mitxelenak osatutako zuzendaritzaren inguruan eta, Etxaide eta Erkiagarekin batera, gune horren baitan oso

lankidetzaz egonkorra lortuko da. Zuzendaritzak 1950ean argitaratzen duen 'Asmo berri' manifestuak taldearen aurkezpena egiteko balio dezake, orduan erabakitzen baitu aldizkaria euskara hutsean argitaratzea eta, orobat, orduan finkatzen baititu bere jokabidearen oinarriak. Jon Kortazarrek (2000, 129-130) hasierako talde-gune honi deitzen dio, hain zuzen, "50eko literatura-taldea". Nolanahi ere, egile honen ustez, ezin daiteke orokorrean *Egan*-en literatur belaunaldiaz hitz egin, besteak beste, aldizkari horretan bi literatura-talde aurkitzen direlako, batean zaharragoak (Etxaide, Erkiaga eta), euskal literatura tradizionala lantzen dutenak, eta bestean gazteagoak (Txillardegi, Aresti, Lasa eta), handik gutxira, poesia sozialaren edo existentzialismoaren bidetik tradizio hori antzaldatu eta literatura berrian eta modernoan oin hartuko dutenak. Jon Kortazarrek 1950eko literatur taldea edo belaunaldia modu autonomo batez izendatzeko azaltzen dituen arrazoen artean, oinarritzkoena bi aldizkari horiei aitortzen dien talde edo gunearen zentzua da, honek taldekideen kidesasuna islatzen duen heinean. Modernotasunaren kategoria *Egan*-eko talde gazteari bakarrik egotzen dio, baina ez *Euzko-Gogoa*-ri.

Nolanahi ere –eta puntu hau azpimarratu nahi dugu hemen–, kasu bietan, *Euzko-Gogoa*-ren zein *Egan*-en literatur jokaera eta pentsamoldea adierazteko, kritikari biek belaunaldiaren kontzeptua darabilte, nahiz Jon Kortazarrek, literaturaren eboluzioa azaltzerakoan, esan bezala, estetikari, etikoari eta politikari atxikirik doazen beste kontzeptu hauek darabiltzan: korrante estetikoak, mugimenduak, jarrerak, taldeak, eta horrelakoak.

Beste behin, hemen ere galderak pilatu egiten zaizkigu: lehena da, ea 1950eko belaunaldi bakar baten aurrean aurkitzen garen, ala, onartuz gero aldizkari horiek gizarte-testuinguru politiko eta geografiko arras desberdinean sortuak eta garatuak izan direla, horietako

bakoitzari bere belaunaldi berezia ote dagokion, ez bakarrik lankidetzaren aldetik, baita kolektiboari ezarritako xede eta pentsakeraren aldetik ere; eta bi, zein neurritan izan daitezkeen aldizkariak, idazle-talde zabal homogeneo baten pentsakera ordezkatzan duten heinean, belaunaldi baten nortasun-muga. Baiezkoan, irizpide bera zertan aplikaturik ez legoke adierazgarriak izan diren beste zenbait pentsamendu-aldizkarirekin, adibidez *Jakin* eta *Zabal*-ekin. Guk nolabaiteko paralelismoa ezarria dugu *Erbeste*ko euskal pentsamendua liburuan (2001), non zehaztasunez azaltzen baitira *Euzko-Gogoa* eta *Zabal*-en arteko kidetasunak eta desberdintasunak.

1956ko belaunaldia

Egile bat baino gehiago dira urte-data honetakoa halakotzat daukatenak eta, ziurrenik, bera da onarpenik zabalena bereganatzen duenetako bat. Bakoitzaren azalpena banan-banan ematera goaz.

Hasteko, Joseba Intxaustirentzat 1956. urtea “urte mugarri bat” da: “Erlatiboki beti ere, baina ordurarteko gerraondo urterik oparoena gertatu zen hura, euskal kulturarentzat. 1956. Liburu, aldizkari eta bilkura sonatuak elkarren gain hasten dira biltzen. Euskal Herri barnean eta erbestean. Lehendik bizirik zeudenek gorakada nabarmena dute, eta, luma berriei leku emateko, argitalpen berriak jaiotzen dira. Gerraurrekoak berriro ere irakurle goaren eskuetara eraman nahi dira” (1981, 35). Segidan, banan-banan, kultur gertakari nagusiak aipatzera pasatzen da, hala nola Euskaltzaindiaren Biltzarra Arantzazun (1956), Euskal Batzar Orokorra Parisen (1956), eta Koldo Mitxelena-ren literatur kritika.

Joan Mari Torrealdaire (1997, 129) ere “1956 urtea bereziki markatzekoa” iruditzen zaio. Eta honek ere,

Joseba Intxaustiren bide beretik, urte-inguru horretan gertatutako hainbat kultur eta literatur daturen aipamena egiten du, horien artean Parisko eta Arantzazuko Bartzarren ospakizuna, *Jakin* eta *Euskera* aldizkarien sorrera, lauak urte horretan bertan jazoak, eta, literaturan, hurbilekoetan Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) nobelaren argitalpena, eta abar. Herrigintza da belaunaldi honetako idazleak batzen dituen lokarria (1997, 133). ETArek sorrera (1959), ordea, ez da aipatzen, pentsamendu politikoaren biraketan hamarkada honetako gizarte-gertakaririk garrantzitsuena den arren. Nolanahi ere, adin-piramidean oinarrituta, 1956ko belaunaldiaren baitan bi labealdi edo hazaldi bereizten ditu. Zerrendan, besteak beste, eta zaharrenean artean, Jose Mari Satrustegi, Mikel Atxaga, J. A. Martija, Xalbador Garmendia, Jose Mari Aranalde, eta, gazteagoetan, Joseba Intxausti, Mikel Lasa, Joxe Azurmendi, Gexan Lantziri, Paulo Iztueta, Xabier Amuriza, Manex Pagola, J. A. Irigarai, J. M. Torrealdei, Jokin Apalategi aurkitzen dira. Idazleok, bi hazaldikoak izan arren, prestakuntzaren aldetik, apaizgaitegietan hazi eta hezitakoak izatea dute batera. Herrigintzaz gain, antzeko prestakuntza intelektuala –funtsean klerikala– izatea litzateke bigarren ezaugarria. Baina bada heterogeneitateari leku ematen dion elementurik ere, eta da, jatorri klerikaleko idazleen alboan, badirela laikoak ere, jatorriz hiri-girokoak direnak, eta hauen artean ere, nahas-mahas, bi hazaldiko idazleak aurkitzen direla, zaharrenean artean Txillardegi, Koldo Mitxelena, Aresti, Mirande eta beste hainbat, eta gazteagoen artean, berriz, Xabier Lete, Ibon Sarasola, Ramon Saizarbitoria, Luis Mari Bandres, Joseba Tobar, Balere Bakaikoa, eta gehiago (1997, 397-398).

Frankismoak hala behartuta, idazle hauen jarduna militantea da eta, kasu askotan, lege-babesik gabe arituko dira lanean eta gizarte-arazo guztiez arduratuko, kul-

turaz eta literaturaz bezala politikaz eta hezkuntzaz, herri-
gintzaren alde eta militantismoaren amorez.

Nolanahi ere, 1956ko belaunaldi honen kultur ezau-
garri nagusietako bat, liburugintzarena da. Aipatzekoa da
Rikardo Arregik eta honen taldekoek bideratzen duten
Lur argitaletxea, zeinaren xedeak baitira, besteak beste,
kulturaz eta zientziaz dibulgaziozko oinarrizko liburuak
argitaratzea saiakeren sailean, jatorrizkoak zein itzuliak
edo moldatuak. Euskal kulturaren aldeko apustu honek
bide berri bat urratzea suposatzen du, gerra aurreko kul-
turgintza populistarekin hautsiz. Belaunaldi berri honen
emaitzak berantiarak dira, gehienak dibulgaziozko libu-
ruak eta moldaerazkoak, gutxiago ikerketazkoak. Garai
honetan oraindik, literaturaren sailean, olerkia da gene-
rorik landuena (1997, 153). Orokorrean, liburugintza-
mota hau, saioa zein poesia, gutxiengo batek bakarrik
irakurtzen du.

Bere azalpenean J. M. Torrealdairen eskemari jarrai-
tzen dion Agurtzane Ortizek (2004, 202-203) dakarre-
nez, gerra aurreko eta ondorengoekin zubi-lana egiten
dutenak aipatzen dira, besteen artean, Hegoaldean Patxi
Altuna, Txillardegik, Gabriel Aresti, Biktoriano Gandia-
ga, Joan Mari Lekuona, Joseba Intxausti, eta Iparraldean,
Txomin Peillen, Jean Louis Davant, Ramontxo Kan-
blong eta Manex Erdozaintzi. Belaunaldi hau osatzen
duten gehienak eliz ikasketak egindakoak dira, edo bede-
ren, prestakuntza gehienbat humanistan hezitakoak.

Belaunaldi honetako ordezkarietat jotzen den Txi-
llardegik (1984, 27-56) dakarrenez, belaunaldi-trukake-
ta 1952-56 epealdian ematen da, baina belaunaldia be-
rriaren gizarteratzea 1956-68 epealdian gauzatzen, ez le-
henago, orduan argitaratzen baitira beraren nobela eta
Arestiren poesia eta, orobat, orduan jausten, euskara ba-
tuaren aldeko uhinak aurrera egin ahala, Zaitegi eta Ori-
xeren eredu linguistikoak zein ideologikoak. Koldo

Mitxelena, Aingeru Irigarai eta Antonio Arruek zuzendutako *Egan* aldizkaria da “belaun berriaren mezu” ekartzen duena (1984, 30), baina horren gizarteratzea, esan bezala, geroago egin zen, *Jakin*-eko zuzendaritzak, Euskaltzaindiaren arauetara jarriz gero, hizkuntz ereduari buruzko jarreraz aldatzen duenean eta ildo horri jarraitzen dion idazle-talde berria gorpuzten doanean. Idazle berri hauen taldean, jadanik ezagunak ziren Krutwig eta Gandiagaz gain, Txillardegi bera, Aresti, Peillen, Joxe Azurmendi, Davant, Mikel Lasa, Saizarbitoria, Lete eta Rikardo Arregi bakarrik aipatzen ditu, ez gehiago (1984, 53). Berrikuntzaren seinale dira, orobat, euskararen aldeko beste gizarte-mugimendu batzuk, hala nola Ikastolen mugimendua, Euskalduntze-alfabetatzearena, Kantu berriarena eta, batik bat, pentsamenduaren mailan zein literaturan obratzen den aldaketa-prozesu bizkor eta erabatekoa: “Eta dena aldatu zen euskal literaturan, gaiaren eta moldearen aldetik batera. Nobela, olerkia, antzerkia, errotik aldatu ziren. Etsistentzialismoa eta sozialismoa agertu ziren gure literaturan; eta saiakerak loraldi harri-garri bat ezagutu zuen. Liburu sail osoak sortu ziren...” (1984, 53). Hau guztia 1960ko hamarkada-bukaerako borroka abertzalearekin edota “garbikiago esanda, ETA-k zeraman borrokarekin” lotzen du (1984, 57-58).

Txillardegiren azalpen honetan, beraz, belaunaldiarena gehienbat ikuspegi soziolinguistikotik begiratuta egina dagoenez gero, kultur eta literatur gertakariak gizarte-testuinguru zabalago batean kokatzen dira, hots, soziopolitikoan. Azken batean, ETAREN dinamika da euskal gizartearen prozesua baldintzatzen duena. Hone-la, ETA, mugimendu politiko hutsa baino zerbait gehiago da, bere eragina gizarte-sare guztietara hedatzen duen gizarte-fenomeno bat izatera iristen baita. Zuzen ala oker, dena ETAREN borrokari begira juzkatzen da. Normala ere bada Txillardegik horrela pentsatzea, erakundearen

sortzaileetako bat izaki. Beste askok ere, ez bakarrik ezker abertzalekoek, horrela kontsideratu izan dugu erakunde armatuaren dimentsio soziala.

Karlos Otegik, ez 1956koa, baizik 1957ko belaunaldia aipatzen du, zeina 1975eraino luzatzen baita. Belaunaldi honek “gizonaren eta herriaren aldeko ekintza”n ezartzen du bere xedea eta bere izaera inkonformista erakusten du literaturan. Berrizalea da eta anitza bere adierazpenetan (1985, 437). Belaunaldi honetako idazleak hiru arotan azpisaillkatzen ditu, bakoitza bere ezaugarriekin eta ordezkariekin.

Lehen aroko idazleak, belaunaldi honi sorrera ematen diotenak, hain zuzen, 1957-1964 epealdikoak dira, existentzialismoaren ildotik abiatzen direnak: narratiban, batik bat, Txillardegi *Letuariaren egunkari ezkutua*-rekin (1957) eta *Peru Leartzako*-arekin (1960); poesian, Gandiagaren *Elorri*-rekin (1962), Luis Mari Mujikaren *Bide giroak* (1963) eta *Urdin eta Burni*-rekin (1965), Krutwigekek eta Mirandek irekitako korrontean sar daitezken Otsalar, Mikel Lasa eta Joxe Azurmendi, eta Gabriel Arestiren “Maldan behera” (1960) poemarekin; saiakeran, halakotzat ematen duen Koldo Mitxelenaren “Asaba zaharraren baratza” (1960) artikulurekin, eta abar.

Bigarrena 1964-1969 epealdiari dagokiona da, “gizartearekiko protestarekin” identifikatzen duena, zeinaren ezaugarri nagusiak —orduan egiazki aurrerakoiak—, autonomia pertsonala, sozialismoa eta pedagogia askatzailearen aldeko aldarrikapenean eta, bidenabar, gizarte zuzenago baten aldeko konpromiso soziopolitikoan zehazten baitira (1985, 438). Literaturgintzan Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* (1964) poema-liburua izango da belaunaldi-etenaren aztarnak argien bistaraziko dituenak (1985, 438). Azken puntu honetan kritikari hau bat dator Joan San Martinek *Uhin berri* bildumako hitzaurrean Bilboko poetaz dioenarekin.

Hirugarrena, berriz, 1969-1975 epealdiari dagokion da, zeinetan, berriro literaturaren sailean, “egitura formal lantzen” baita, narratiban Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*-arekin (1969), Andu Lertxundiren *Ajea du urturik*-ekin (1971), Luis Haranbururen *Itsasoak ez du esperantzarik*-ekin, Xabier Amurizaren *Hil ala bizi*-rekin eta Mikel Zarateren *Haurgintza minetan*-ekin, azken hiruok 1973an argitaratuak; poesian, Xabier Lete, Xabier Azurmendi, Joseba Zulaika, Mikel Arregi, Mikel Azurmendi, Arantxa Urretabizkaia, Martin Iturbe, Hartzabal, Luis Mari Mujika, Juan Mari Lekuonaren liburuak agertzen dira, “gai sozio-existenzialari” lotuak (1985, 440); antzerkian, idazle berriak plazaratzen dira, Iparraldean Daniel Landart, Hegoaldean Luis Haranburu; saiakeran, Begiarmenen *Sei idazle plazara* (1974), Eusebio Osaren *Pedagogia eta gizartea* (1972) eta Xabier Mendigurenen *Europako ezker berria* (1972) liburuak zaizkio aro hone-tako argitalpen adierazgarrienak.

Baina 1956 edo 1957ko belaunaldi hau, belaunaldi bakartzat hartu behar al da? Txillardegirentzat belaunaldi bakarra da, 1956tik 1968ra bitartean “hazkunde isilean abiatzen dena” (1984, 23); hamabi urteko epealdia baino ez du hartzen, bitan banatua datorrena. Karlos Otegiren sailkapen kronologikoan, aldiz, hemezortzi urteko epealdia osatzen da eta hori, aldi berean, hiru azpi-arotan zatitzen da, horietako bakoitzak bere berezitasunak dituelarik eta, neurri batean, baita bere ordezkariak ere.

Horko idazleak oro belaunaldi batekoak bailiran hartu behar al dira? Karlos Otegi ez bide du galdera hau egiten, baina badirudi baietz, 1957ko kasuan bakarrik esaten baitu, espreski esan ere, urte-inguru horretan sortu dela “belaunaldi gazte bat” (1985, 437). Nobela-gintzari dagokionez, iritzi hori bera berrestera dator Gotzon Garate ere, esatean “1957 muga-urtea, berriz, nahiko onartua” dagoela, urte horretan agertu zelako

Txillardegiren *Leturiaren egunkari izkutua*, “euskal eleberrigintzan gai berri-modernoak sartu zituen” (2001, 31). Jon Kortazarrek (2000, 11) ere 1956. urtean ezartzen du gerra aurreko eta osteko belaunaldien arteko muga, literaturaren berrikuntzari buruzkoa. Beraz, hor, ideologikoki bi belaunaldi bezala kontrajartzen dira: gerra aurrekoa, modernismoaren bila abiatzen dena, eta ondorengoa, baina hau errotiko abertzaletasunari lotzen zaiona.

Lehen *Euzko-Gogoa* eta *Egan* aldizkariez jardutean, 1950eko belaunaldia izan dugu aiputan. Baina badira 1956ko belaunaldiaz ari diren beste autore batzuk ere. Jon Juaristi (1987), *Euzko-Gogoa* desagertu eta gero, *Egan* aldizkariaren inguruan elkartzen den idazle-talde jakin batez ari da, zeina, besteak beste, F. Krutwig, A. Irigoien, G. Aresti, J. San Martin, J. L. Alvarez Enparantza, Txomin Peillen eta Mirandek osatzen baitute. Noski, badute elkarren artean desberdintasunik aski adinean zein ideologia eta estetikan, baina badituzte ezauzgarri bateragarriak ere, nortasun kolektibo batez hitz egin ahal izateko modua eskaintzen dutenak. Horietako askorentzat euskara ez da ama-hizkuntza; beste batzuk agnostikoak dira; ideologia politiko desberdinetakoak izan arren, nazionalista berritzaileak dira; orobat, kultura zabalekoak izan arren, horietako batzuk autodidaktak dira. Hauek guztiek euskal literatura bere morrontza politiko, erlijioso edo folklorikotik askatu eta gaurkotzea dute kezka nagusia eta, horretarako, Europako literatur korronte modernoak etxeratzen dituzte. Euskara kultur hizkuntza izatea lortu nahi da. J. M. Larreak (1989, 12-13), 1956ko belaunaldiaz emandako hitzaldi batean, talde berean sartzen ditu honako autore hauek, guztien buru Orixe dela: “Urte hauetan gerratea, zuzenki bederen, ezagutu ez zuten zenbaiten idazlantxoak plazaratzen dira: Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia –biak Josu-Lagundian ibiliak-. C. F. Krutwig, Jon Mirande, Sal-

batore Mitxelena. Hauek ditugu gerraosteko ‘erresistentzia kulturalen’ (nolabait deitzeko) arizaten direnetariko batzuk. Garrantzizkoenak ene iduriko. Badira beste batzuk ere, jakiña!, eginkizun apalagoetara lerratuak: Ander Arzeluz ‘Luzear’, I. Fagoaga, Nemesio Etxaniz, Andoni Urrestarazu ‘Umandi’, Jon Etxaide eta ororen maisu agertzen dena: Nikolas Ormaetxea ‘Orixe’”. Idazle-talde hau ez da batere homogeneoa ez jatorriz ez lanbidez, baina batera dute “Euskara eta Euskal Herriaren aldeko joera” (1989, 15).

Testuan garbi adierazia ez badator ere, badirudi, kanpokoen eta barnekoen arteko oposizioa dela medio, barrukoak nagusitzen direla, *Egan* eta *Jakin* aldizkariak zuzentzen dituztenak, alegia, eta hauek izango dira 1956ko belaunaldi berria osatuko dutenak. Bultzagileen artean, han eta hemen barreiatuta, Krutwig, Txillardegi eta Mitxelena agertzen dira. Eta Joseba Intxausti, “Illobira bultzaka” artikulua (1959) egilea. Azpimarratzekoa da autoreak *Jakin*-i aitorten dion garrantziaren handia, daukan kultur proiektuaren zein hizkuntz ereduaren aldetik begirata, bide-urratzaile gertatzen dena: “Urtebete igaro aurretik, Frantziskotarrak kritikatzeko erredua (*Euzko Gogoia*) muga-problema eta diru-arazoak zirela desagertzen zen. Gerraosteko euskaltzaletasun abertzalea Hegoaldean egosten zen, berriro, nahiz eta Zaitetik ereindako ideiek, edo batzuk behintzat, Euskal Ikastetxe Nagusirako textugintza, hiztegegintza prestatzea, Euskal-Idazleen Etxea egitea eta zabalkunde mailako agerkari bat izatea, kasurako, hogeitun urte pasata *Jakin* talde berak burutuak izan dira. *Jakin* taldean badukegu, halere, lehen haustura aitortua euskal nazionalismoan, izan ere, aurreko hausturek, Sabin Aranarenak, lekuko, itxuraz bederen, tradizioari atxekiak azaltzen baitziren” (1989, 14). Etenaren adierazletzat ematen da pasarte honetakoa ere: “Gaien aldetik, kultura klasikoa (Helade eta

Erromakoa) saihesten da, kristautasun ‘aurrelari’ baten fagoretan (*Jakin*-en, frantziskotar gazteen aldizkarian, batez ere, ikus daitezkeena). EAJ ez da, jadanik, erreferentzia politiko bakarra. Eta garrantzizkoena, kazeten antolamendu aldetik, Hego Euskal Herrian ez dituzte onartzen lehengo buruzagitzak (Orixeren euskara aldetik, Zaitegirena kazeta kultural baten projekturako)” (1989, 16).

Handik bi urtera, baina lan hau ezagutu gabe, antzeko ondorioetara iritsi ginen *Orixe eta bere garaia* laneko XVI. eta XVII. ataletan (1991, 943-1020). Ez dakigu *Jakin*-ek zein neurritan bete izan dituen Jokin Zaitegiren kultur proiektuak oro, testu horietan esaten den bezala; zalantzarik gabe, maila handi batean, bai, bereziki UZEI bere erraietako haurra dela kontuan hartzen bada. Hori esanda, orduan idatzia errepikatuz, gogoraziko dugu, Koldo Mitxelena eta Txillardegirekin batera, Joseba Intxausti izan dela gerra osteko belaunaldi berriaren protagonista historikoa. Hiru horiek dira Orixe eta bere eskolari behin betiko akabera emango diotenak, baina ez 1956an, 1960eko urte-mugan baizik, orduan hasten baitira indartzen –ez gutxi ETArek eraginez–, herri-mugimendu soziopolitiko eta kulturalak eta honen barruan komentu eta apaizgaitegiak idazle gazteak, beren aldizkari erlijiosoetan idazten dutenak. Eta nola *Jakin* aldizkariak horiek guztiak ordezkatzeko erpianean, ez da mirakulua protagonismoa ere berak eramatea.

Laburtuz, 1956ko belaunaldiak, arrazoi desberdinentzat bada ere, badu hala deitua izateko aski ezaugarri goian aipatu ditugun autore horientzat. Halere –hau ere esan dezagun–, anarkia ia erabatekoa da, belaunaldiak osatzeko irizpideetan ez baita inolako adostasunik ematen. J. M. Larrea era J. Juaristiren eskemak zerikusi gutxi du J. M. Torrealdaik darabilen hipotesiarekin.

Eta besteak, zer? Zer esan dezakegu, adibidez, 1960 edo 1964ko belaunaldiez, asko baitira horrela izendatzen

dituztenak? Badaezpada, bakarka azalduko dugu urte-data horiei buruzkoa, biak izan baitira erabiliak, eta ez beti zentzu berean.

1960ko belaunaldia

Gerra aurreko belaunaldiari urte-data jakina emate-rakoan, batzuek 1930ekoa deitu izan diote, beste batzuek, aldiz, 1936koa. Antzeko zerbait gertatzen da gerra osteko 1960 eta 1964arekin, baina ez erabat. Lehenengoak 1960ko hamarkada-hasieran pentsamendu-mailan eta euskal kulturgintzan nabarmentzen hasten diren al-daketak hartzen ditu kontuan, horiek batez ere; bigarre-nak, aldiz, soilki edo gehienbat literaturan ditu bere oinarriak. Azken hau da euskal historiografian gehien agertzen dena, ez gutxi Joan San Martinek Arestiren poe-mari egiten dion harreraren ondorioz. Guk biak jartzera jo dugu, bakoitzak baititu bere arrazoiak hala deitua izateko.

Nolanahi ere, 1964ko belaunaldiaz jardutean ikusi ahal izango den bezala, modernitatearen zantzuak litera-tur adierazpidean aurkitzen dira eta, ideologi mailan, existentzialismoan eta sozialismoan. Guk geure aldetik, garai hartan *Zabal*-en halabeharrez “Meakaberri” izenor-dez izenpetutako “Egungo kulturaren hildotik” izeneko lanean (1973, 53) dakargunez, sekularizazio-fenome-noaren indartzea aipatzen genuen, bereziki belaunaldi honetako sektore laikoan islatzen dena: “1960-1965 aldera, beste kultur mugida bat sortzen da. Uhin gaztea-go honen bultzada extrakomentuala da, edota hein handi batetan seminarioak husten hasten direnetarikoa. Herri-arazoez gehiago politizatuago agertzen da, han-hemengo ideologiez jantziago. Multzo honek, euskal kulturgintza gehienbat literatura erlijiosoan ematen dela ikusirik, bere gain hartu nahiko du epe honetako kulturgintzaren

gidaritza ideologikua. Kultur teokratikoaren kontrako bozak entzuten dira. Euskal kultura, halabeharrez, desteologizatzen hasten da. Kultur aparatoak, ordea, klerikoen eskuetan geldituko dira oraino”.

Beraz, existentzialismo eta sozialismoaren ildotik, ideologia sekularizatzailearen fenomeno aipatu beharrekoa da garai honetako ezaugarri garrantzitsuenen artean, Karlos Otegik ere garai honetako ezaugarri nagusitzat daukana. Lehen sintomak, batik bat, *Zeruko Argia*-ko “Gazte naiz” zutabearen idazten dutenen artean agertzen dira, non gazteen, gazteagoen eta ez hain gazteen ahots askea entzun baitzitekeen, taburik gabekoa, lerro laburretan baina idazkera sarritan probokatzailez eta era sentsasionalistaz kargatueta emana, aire liberaleko ideia aurrerakoiak kaleratuz eta, ondorioz, ohikoa baino gizarte-oihartzun zabalagoa lortuz. Diogunaren froga gisa eman dezakegu astekariaren jokabide ideologikoa kontrolatzen duen EAJk, Lasarte jaunaren bidez, “Gazte naiz” desagerrarazi egiten duela eta “Herriak eta Gizonak” saila, berriz, norabidez aldatu⁴. Zer dela eta, horrelako zentsura? Lehen kasuan ez bairik gabeko erabakia hartu zuen zuzen-

⁴ “El cerco parecía global cuando fuera de la organización, y en concreto para tratar de la publicación semanal en euskara *Zeruko Argia*, el PNV reunía a un pequeño grupo de personas. El resultado fue significativo: la sección de los jóvenes ‘Gazte naiz’, entre cuyos redactores se encontraban Joxemi Zumalabe, Ramon Saizarbitoria, Ricardo Arregi y Mikel Forkada, sería suprimida, mientras que la sección ‘Herriak eta Gizonak’ quedaba sujeta a cambio de línea. Jose María Lasarte (PNV) dio a conocer que bajo el seudónimo de Goienetxe se escondía la figura de Txillardegui, añadiendo que, si bien sus artículos eran admisibles, no podía tolerarse que un miembro conocido de ETA colaborase en las páginas de *Zeruko Argia*. Las críticas desde Bruselas se harían constantes (...) Cuando de nuevo Txillardegui retoma el pulso para redactar un nuevo informe (‘autocrítica de la situación’, 8 de febrero de 1966) lo hace aportando sugerencias” (*Documentos Y*, II, 1979, 43-44).

daritzak, ez preseski sail horretan agertzen diren ideien-gatik, “Goienetxe” izenpean Txillardegi ETAkidearen luma ezkututzen omen delako baizik; bigarren sailari dagokionez, ez da hain neurri zorrotza hartzera iristen, beharbada, horko lankide ohikoa, Rikarko Arregi, konfidantzakoa dutelako.

Esanez gatozen eta gero oraindik gehiago zehaztuko dugun bezala, 1964ko belaunaldiaren ordezkari nagusitzat, literaturan, Arestiren poemagintza eta, pentsamenduaren iraultzan, “Gazte naiz”ekoak aipatzen dira. Sail hau J. M Zumalabe, Ramon Saizarbitoria, Rikardo Arregi, Mikel Forkada bezalako hiritar jatorriko laiko-talde batek ordezkutzen du eta, euskaltzaleen artean halako abarrotsa ateratzen badu, baliteke gizarte-giro arras klerizatu hartan pentsamendu erlijiosoan —arteana aski itxia— nagusitzen delako izatea, ez hainbeste pentsakeraren aldetik aparteko berritasunik dakartelako, zutabe labor haietan ez baitzen agertzen kontrakulturarako ataritzat har zitekeen ezoin elementu ideologikorik. Ekaitza denean zartatzen diren trumoi-hotsen artean zeru beltza argitzen duten tximistak bezala ziren, joan-etorri laburreko zartadak; hori bai, zirrargarriak.

Euskal historiografian asko aipatzen ez bada ere, esan behar da idazle laiko horiek osaturiko talde minoritarioaren beste aldean —esanez gatozen bezala, urte batzuk lehentxeago—, artean komentuak eta apaizgaitegi nagusiak beterik zeudenez, ikasle erlijioso euskaltzaleek idazle-multzo aski handia osatzen dutela eta hauek beren aldizkariak argitaratzen dituztela 1950-1969 epealdiaren barruan, zehazki hauek: Oliteko frantziskotarrek *Gure izarra* (1950-74), zaharrena eta mardulena 43 zenbaki eta 306 lankiderekin, Urretxuko pasiotarrek *Laiaketan* (1959-69) 28 zenbaki eta 54 lankiderekin, Areatzako sakramentinoek *Arnas* (1959-67) 16 zenbaki eta 53 lankiderekin, Oñatiko laterandarrek *Erein* (1960-66) 10 zenbaki eta 41 lanki-

derekin, Begoñako karmeldarrek *Gogoz* (1965-68) 7 zenbaki eta 41 lankiderekin. Guztira 10.642 orri dira aldizkari horietan idatziak eta 495 idazle horietan parte hartzen dutenak, hauetatik gehienak frantziskotarrak izaki % 61,81eko portzentajearekin (Iztueta, 1981a, 58).

Arantzazuko *Jakin*-ek, egia da, idazle-multzo horretatik hainbat bereganatuko ditu lankide gisa, baina geroztik euskal kulturgintzako sail desberdinetan eta erakunde-aparatuan norbait izatera iritsi diren gehienak ez datoz aldizkari horretan ordezkatuak. Horregatik, komentu-aldizkari horiek, nahiz eta hedadura txikikoak izan beren artean trukatzeko xedearekin eginak direlako, zalantzarik gabe guztien lankidetzaz bilatu eta biltzen duen *Jakin* aldizkariak baino eragin-esparru zabalagoa hartzen dute, orduko saioekin gehienak euskal letretan alfabetatuak aterako baitira, garai hartan bakarra zen metodoari esker, zeina baitzen irakurriz idazten ikastea. Kultur ekarpen hau da, hain zuzen, garai honetaz diharduen euskal historiografiak ahazten duen kapitulua eta belaunaldiez jardutean aipatu ere egiten ez dena. "Gazte naiz" saileko orrialdetik aldizkari hauetara dagoen aldea, ikuspegi klerikaletik laikora dagoena da, ideologi mailan egiazki handia, baina pentsamendu-mailan ez hainbestekoa, belaunaldi hori bera izango baita gero, bereziki 1960ko hamarkada-bukaeratik aurrera, komentuak eta erlijioso-ikasketxeak husten doazenean, euskal gizartearen desklerifikazio-prozesuan zuzenean parte hartuko duena eta euskal pentsamendua, ordurarteko humanismo, existentzialismo eta sozialismotik harago, marxismoraino eramango duena. Belaunaldi honetakoek zerikusi zuzena izango dute Burgosko epaiarekin eta honen ondoko kultur mugimenduekin, zeinetan protagonismoa ezker abertzaleak hartzen baitu.

Maila politikoan 1970eko belaunaldia deituak harreman estu-estua du 1960eko hamarkada-hasieran

ETArekin hasten den herri-mugimendu berriarekin eta, elizaren mailan, apaizgai euskaltzaleen artean arnasten den kultur giroarekin eta mugimendu apostolikoek gizarte-ekintzarako agertzen duten konpromiso-jarreararekin. Gizarte-faktore hauek, nola soziopolitikoak hala erlijioso eta kulturalak, gizarte-aldaketan eragin bortitza izan dutenak dira, guztiak sekularizazioaren ildo bertsutik doazenak. Beraz, kasu honetan, 1960ko belaunaldia eta 1970ekoa, hala deitzeakoak badira, biak eskutik doazenak dirateke. Halaxe 1956koa eta 1964koa ere.

1964ko belaunaldia

Joan San Martinek, *Uhin berri* poema-bilduman (1969) poeten hautaketa egiteko orduan, urte-mugak arras zehaztuta ematen ditu bere hitzaurrean. Hor, bereziki, 1964koa dauka belaunaldi-berritzat. Zalantzarik ez da, bada, 1964ko belaunaldiko poetak direla 1969ko uhin berri hori osatzen dutenak, beren emaitzak 1969. urte-bitartean ematen dituztenak. Beraz, garbi dago, hemen 1964ko belaunaldiaz da kontua. Zergatik urtedata hau? Beste kultur eta literatur gertaera batzuk ere data-inguru horretan ematen direlako, hala nola Baionako bilera batasunaren gainean eta, literaturaren sailean, batez ere, Arestiren *Harri eta Herri*-ren argitalpena. Belaunaldi hau ezaugarritzen duena, lehen esana daukagunez, gizarte-injustiziaren kontrako protesta-oihua da, iraultzarako deia, mezu gisa dakartena. Egia da, arestian ikusia dugunez, Karlos Otegi ere aipatua du *Uhin Berri* bildumarena 1964-1969 epealdiaren barruan. Nobelagintzan 1956ko berrikuntza dakarrena Txillardegiren bezala, 1964koan Aresti da poesian. Ibon Sarasolarentzat, 1964ko belaunaldia gerra aurreko giroa ezagutu ez zuen haurren belaunaldiari dagokiona da, bere hazia ereiten 1954an

hasten dena eta literatur uzta 1964an jasotzen duena: “Aldakuntzaren lehen periodoan, bihia landatu besterik ez da egiten. Bihi honen lehen fruituak, literaturari dagokionez, ez dira 1964 arte kanporatzen” (1970, 82). Azken urtedata honetatik aurrera hasten da euskal literatura berriztatzen, euskara kultur hizkuntza bihurtuz eta euskaldun-
goa nekazal eta erlijiozko pentsamoldetik askatu eta ikuspegi berriak sortuz eta, literatur moldeari dagokionez, aurreko eskolekin hautsiz nola poesian hala beste generoetan. Aldaketa hau eragiten dutenak, besteak beste, Aresti eta Txillardeggi, Otsalar, Xalbador Garmendia, Xabier Lete, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, eta beste batzuk dira. Sarasolak espreski halakotzat daukana 1964ko belaunaldia da, ez 1956koa, ez bederen zentzu betean.

Luis Haranburu aski luze mintzatzen da 1960-64ko belaunaldiaz *Euskal literatura 72* bildumari egindako hitzaurrean, horrela bi data horiek marra batez lotuta. Lehen esanak laburtuz, hiru dira haren ezaugarriak: bat, etena ekartzen duela, bereziki literatura ardura linguitikotik askatuz eta, ondorioz, literaturari bere autonomia aitortuz; bi, belaunaldi berri honek literatura sortzaile egiten duela eta aniztasun ideologikoa lantzen, honela euskal ideologia bat bakarraren ilusioa agerian jarriz; hiru, literatura sortzaile hau tradizioa erreproduzitzen duen literatura ideologizatuari kontrajartzen zaiona dela, kritikoa, alegia (1972, 6-16).

Luis Haranburuk aurkezten duen 1972ko bilduma honetan datozen egileak, hauek dira: Aresti, Atxaga, Mikel Azurmendi, Haranburu, Kintana, Lertxundi, Sarasola, Urretabizkaia eta Zelaieta. Aurreko bilduman, *Euskal elekti 69* izenekoan, Joan San Martin, Xalbador Garmendia, J. M. Zumalabe eta Patri Urkizu ere aurkitzen ziren. Hauek guztiak belaunaldi berekoak direla esatea, zuzena ote da? Atxaga horkoa al da? Orduan, zer esan behar da 1960 edo/eta 1964ko belaunaldiez? Oraino bada beste galdera

bat ere egin beharrekoa: “elite baten zalaparta *kulturalistaz*” egiten baita salaketa, euskarak izan ote du inoiz elitismorik eta une historiko hartan euskal kulturgintzako zein sektoretan aurkitzen ote zen hori?

Geroztiko testuetan ere, 1964ko belaunaldia errebindikatzen segitzen da. Josu Landak (1983), esate baterako, 1950eko harmakadan abian hasten den etena urte-data horretan burutzen dela dio, poesi mailan bederen, Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* poema-liburuarekin eta Lur argiraletxearekin.

Beraz, eta gure kasura etorriz, Josu Landak 1964ko urte-data honi aitortzen dio “belaunaldiaren” kontzeptua, poesiaren sailean bederen. Belaunaldi hori da gerra osteko euskal literaturaren historian etena dakarren lehena. Belaunaldi honek badu bere buruzagi aitortua: Aresti poeta.

Jesus Maria Lasagabasterrek, gerra osteko euskal literaturaren historia zentzu orokorrean hartuta, belaunaldietena modernotasunari atxikirik dakar. Bere tesia da, euskal literatura modernitatean sartu, XX. bigarren menderdian sartzen dela, 1950-70 urte-bitartean, ez lehenago, eta honen ezaugarri nagusia da orduan erakundetzen dela literatura gizarte-bizitzaren barruan kultur jarduera autonomo bezala, bere xede, funtzionamendu eta legeak dituen jarduera gisa, alegia. Beraz, zentzu hertsian, orduan ematen da etena, ondoko hiru maila haue-tan eman ere, hots: etena, adierazpen hertsiki literarioan nola poetikoan hala narratiboan; etena landutako gaie-tan; etena, azkenik, literaturari buruzko ikuspegiari eta bere egitekoan, beti ere eginkizun hori berreskurapen nazional eta kultural baten barruan ulertuta (1985, 427). Eten honen adierazleak, narratiban, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969) dira, eta poesian Arestiren *Harri eta Herri* (1964). Garai honetako idazleak gerra zibila egin ez zutenak edo haren oroitzapen bizirik ez

zutenak dira, bai, baina gerra osteko egoera historikoa, soziopolitikoa eta kulturala oso hurbiletik bizi izan dutenak, eta, hain zuzen, Euskal Herri zapalduaren errealitate horixe islatzen ahaleginduko dira beren idazle-konpromisoa literatur eginkizunaren barruan kokatuz (1985, 429). “Heterodoxoen” literatur belaunaldia deitzen dio, halakotzat zehazki 1960ko hamarkadan garatua hartuz (1985, 429), zeinaren ezaugarri nagusia mundu-ikuspegi eta alternatiba politiko berriak izatean baitatza.

J. M. Lasagabaster ez bide da belaunaldiaren kontzeptua erabiltzearen aldekoa agertzen, geroztiko beste lan batzuetan ikus daitekeenez, kontzeptu horrekiko jarrera kritikoa baitauka. Nolanahi ere, urte-data zehatzik jarri gabe, literatur mailako etenaren epealditzat 1960ko hamarkada ezartzen du, baina modernitatearen aitzindaritzat Txillardegiren lehen eleberria ezarriz. Beraz, ez dakigu erabateko etena baina, berrikuntzaren zantzuak lehenago ematen dira eleberrian poesian baino, nahiz azken genero hau garai hartan landuagoa den. Gogora dezagun, bidenabar, Gotzon Garatek eleberrigintzaren laugarren aldia 1969an ezartzen duela, Saizarbitoarekin hasten dena, hain zuzen (2001, 31-32).

1970eko belaunaldia

Belaunaldi honi Burgoskoa ere deitu izan zaio, batez ere, ETARi eta honen inguruneari loturiko giro soziopolitiko eta kulturalean⁵. Belaunaldi honetan ordezkatuak

⁵ “Los escasos miembros de ETA activos en esa época, nacidos en su mayoría entre 1940 y 1950 (la generación del juicio de Burgos, para simplificar) ignoraban la naturaleza del mecanismo que habían puesto en marcha, y desde luego no previeron las consecuencias que de su iniciativa podrían derivarse en el futuro. La mayoría

seguru asko gehiago dute kulturaetik politiko hutsetik baino. Hamarkada honen hasieran sartzen dira bete-betean lehen 1960ko belaunaldian kokatu ditugun idazle gazteak, komentualak deitzen zaienak, eta beren jatorria horko prestakuntzan dutenak izango dira, neurri zehazgabean baina ez txikian, ETArengatik inguruko kultur dinamikan sartuko direnak eta kultur gintza iraultzaren begitik ikusten hasiko direnak. Talde honetan jatorri desberdinetako hainbat idazle aurkitzen dira, gehienak, adin-kideak izan arren, ez “Gazte naiz”koen ez *Jakin*-larien lankidetzako zerrendetan ez datozenak, eta hori alde *Zeruko Argia*-ko zutabe hartan idazten zuten hainbatek ordurako beren aukera ideologiko eta politikoak aski finkatuta zeuzkatelako, eta alde 1970eko hamarkada-hasierako idazle gazte sekulartuari *Jakin*-en norabideak, bere zabaltasunean ere, hertsiegiak gertatzen zitzaizkiolako pentsamendu iraultzaileari. Hitz potoloak ziren orduan kulturaren zelaia zeharkatzen zutenak: marxismoa berdin zientzia, iraultza ala hil. Hamarkada honen ezauzgarria, iraultzarekin batera, sekularizazioarena izan zela esango genuke.

Burgosko belaunaldia deitu ala beste modu batera, 1970eko urte-muga honen inguruan, zalantzarik gabe, epe berri bati ekiten zaio, maila askotan etena dakarrena, ez bakarrik soziopolitikoan, baita kulturean, ideologikoan eta erlijiosoan ere.

Jose Migel Barandiaranek (1972, 411-423) dakarrenez, euskal gizartea XX. mende-hasieratik ezagutuz datorren aldaketa sakonak 1971n bistaritzen dira egun argitan. Gizarte-aldaketa hau, orduko askorentzat sekulako

de aquellos militantes vivía el activismo desde una conciencia de agudo aislamiento social, de constituir una minoría marginal incluso del nacionalismo, que a su vez era todavía minoritario en la sociedad vasca” (Patxo Unzueta).

aztoramena ekarriko duena, gizarte-maila guztietan ematen da, baina bereziki maila kulturalean, eta gizarte-sektore guztiak ukitzen ditu, gazteak adina helduak eta zaharrak. Ataungo bere sorterrian ikusten dituen fenomeno batzuk aipatzen ditu Jose Migel Barandiaranek. Zein? Besteak beste, herri-ohituretan familiako loturak ahultzen hasiak direla; eliz bizitzan bokazio erlijiosoek nabarmenki behera egiten dutela, berdin praktika erlijiosoek; maila ekonomikoan, gero eta sarrera gehiago duela emakumeak lantegietan, auzo-lana gutxitzen doala; maila kulturalean, gaztelania gero eta gehiago sartzen ari dela. Beraz, 1971. urte-inguruan ezartzen du euskal gizartea gizarte-egitura moderno baten gurpilean garatuz doaneko. Hau guztia iraultza teknologiko eta industrialaren eraginez gertatzen da. Euskal ohitura zaharrek erabat hautsi ala ez, gure esku geratzen da (1972, VI, 147).

Euskal Herrian garai honetan ematen den sekularizazio-prozesuaren abiada azkarra bezain zakarra da, euskal elizaren baitan ezaugarri bereziak hartzen dituena. "Gogor" izeneko apaiz-sektore batek, izenak berak adierazten duen bezala, gogorki salatzen du eliza jerarkikoaren frankismoarekiko lotura. Zentzu honetan, apaiz gazte horiek, eliza pobre, aske, dinamiko eta bertako baten aldeko aldarrikapena egitean Derioko ekintzan (1968), apaiz solidarioen mugimenduak egiten dituen planteamentutik harago doaz, hor oinarrizko arazoa desklerifikazioarena baita; hemengo apaiz mugimenduaren baitan, ordea, elementu orokor horrez gain, soziopolitiko eta kulturalak ere inplikaturik aurkitzen dira. Ezaugarri bereizgarri horiek aztertzen ditugu, hain zuzen, doktoretesi gisa 1975ean burututako *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco: 1940-1975* (1981) lanean. Hor azaltzen da eliz barruko zein kanpoko faktoreek sekularizazioaren baitan izandako eragina orduko euskal tesuinguruan.

Horregatik, belaunaldien finkapena literaturaren ikuspegi hutsetik edo gehienbat hortik begiratuta egiten denean, 1957koan bezala 1964koan, murriztapenen jo-koan erortzeko arriskua dago, kulturaren esparrua zabala baita, izan, baita kulturzaleen eragin-esparrua ere.

Bistan da, 1964ko belaunaldiaren izateko arrazoia, gehien-gehlenbat literatur mailako berrikuntzan nabarmentzen da, zehazki Arestiren poesian eta, beste maila batean, "Gazte naiz"koen laikotasunean. Baina literatur maila horretan adina eta, agian gehiago, gizarte-alda- ketaren emaitzak hamarkada horretan herri-mugimen- duan oinarrituta sortu eta indartzen diren kultur erakun- deetan agertzen dira eta horien ekintzaren norainokoa gehienbat Ikastolek, Euskalduntzeko eta Alfabatze-ko el- karteek, argialetxeek, aldizkari berriek erakusten duten dinamikan islatzen da. Zentzu honetan, kulturgintzaren besoak herri-sektore zabalak ukitzen baditu ere bere adierazpen ideologiko anitzaren barruan, eragin berezi- berezia izango du ETAREN inguruan 1960ko hamarka- dan –batez ere, azken aldiko txanpan–, indartzen den herri-mugimendu abertzaleak, zeinaren oinarria poli- tikoak izanik ere, euskal kulturaren sailean ezezik, eliz mugimendu apostolikoetan ere –hala nola Herri Gazte- din, edo JOCen–, bere erroak sakon botata baitaizka. Horregatik, literaturan urte-mugarri gisa 1969koa ager- tzen bada, beste urte-muga batzuk ere badira halakotzat hartu beharrekoak esparru kulturalean zein soziopoliti- koan. Hala litzateke, hasteko, Burgosko epaiarekin 1970ean irekitzen den epealdi berria. Horregatik, garai hartako ETAKideei eta hauen ingurukoei –zehazkiago esanda, 1940-1950 urte-bitartean jaiotakoei–, militante gehienak ordukoak baitziren, Burgosko epaiko belau- naldikoak deitu izan zaie politikaren sailean. Gertakari historiko horrek, nazioarteko politikan nahiz barrukoan izan zuen oihartzun handiaz gain, euskal arazoaren izaera

nazionala eta soziala planteatzeko moduan zehazten da, batik bat, nazionalismo iraultzailearen izenpean, bi maila horiek batean urtuz.

Nolanahi ere, epai sonatu horren ingurukoak irakurketa bat baino gehiago eskaintzen baditu ere, une horretatik aurrera ezker joerako politikagintzan zein kulturagintzan agertuz datozen jokabide eta ikuspegietan jarrera-aldaketa sakona ezagutuko da. Maila kulturalean, testuinguru horri zor die bere sorrera Hendaiaiko “Mugalde” inprimategiak, geroago *Zabal* eta *Hitza* aldizkariak. Horietako bakoitzak bere historia espezifikoa du, hemen ez, baizik lan monografiko batean azaltzeko egoikiagoa dena. Aurrera dezagun, halare, zergatik deritzogun garrantzitsua 1973ko urteari. *Zabal* aldizkariaren lehen zenbakian badira euskal kulturara zerbait berri ekarri nahiaren seinale izan nahi duten zenbait pasarte. Ondoko honetan, adibidez, orduko giro kulturalaren deskribapena egiten dugu: “Egun 1973-an, eta bereziki 1969 urteaz gero, mugimendu pizkorra bezain ausarta nabari da euskal pizkundearen alde. Epe honetan talde kulturalak sortuko dira. Kultur giro bakotzak bere aparatotxoak ukanen du. Erabiliko den bibliografia batipat atzerrikoa da. Talde berezien joerak gero eta zehatzago definituko dira. Euskal arazoa, oraingoan nazioartekotu egiten da. Herritasunaren elementu determinatzaileak pentsakera mota nagusieneko kredotara mugatzen dira. Egun ere hontan gara” (Meakaberri, 1973, 53-54).

Egin behar den lehen oharra da, gure orduko lan hartan, ez garaela ari belaunaldiaz, ez 1960-65ekoan, ez 1973koan, denbora guztian “kultur mugimenduaz” baizik. Bestalde, 1973ko kultur mugimendu honen hiru ezaugarriak ere zehaztuak datoz. Lehena, Euskal Herria jasanez datorren asimilazionismoaren kontrako jarrerari eustean datza: “Gure Herriaren aurpegia, oro har, deusestatua eta ukatua delako hain zuzen ere, maila orotako

zapalkuntza honen hildo beretik bir-eraiki nahi dugu Euskadiren jabegoa. Beraz, frantsez hala espainol asimilazionismoaren kontra ari diren euskal kultur ahalegin guztiak ontzat hartzen ditugu, gure Herriaren egoera honetan. Areago: beharrezkotzat (...) Honeraino asimilazionismoaren ukapena egin dugu, ondo dakigularik, ordea, asimilazionisma horrek ba dituela egun moduak eta moduak, eta baita modak ere” (1973, 54).

Bigarrena, legalitate espainolaren mugak gainditu nahi direla: “Odoletan bustitzen den lumak ba dakike produkziogintzaren alderdi legala eta ez-legalaren arteko zenbait bereizketa egiten. Zapaltzaileen makinari ofizialki atxikirik dagoen kulturgintzak ba ditu bere neurriak, eta neurriok sarritan aski murrizak dira borrokan ari den Herri bati ahalik eta erantzunik osoena eman ahal izateko. Honekin ez dugu esan nahi panfleto politikuekin bakarrik kultur iraultza egina legokeenik. Kultur mota hori ere beharrezkoa bada, ez da, halare, aski. Bestalde, berriz, ofizial aparatoan baizik muntatzen ez den kulturgintzak ez duela etorkizunik uste dugu. Zeren, mementozko egoera soziologikua gogoan hartuaz gero, uste dugu objetibuki baldintzatua ageri dela izpiritu ikertzaileen askatasun kritikua, eta hau ez propaganda politikua delakoaren mailan bakarrik, baita saiakera eta bilakaera ihardunetan ere. Zentzu honetan zer pentsatua ematen digu euskal produkziogintza ia osoaren lekua Euskal Herrian kausitzen dela konstatatzeak” (1973, 55). Eta hori esatean, noski, legalitatearen babesean “profesionaltasuna” aldakarrizten ari direnak salatzen dira: “Hemen ez dugu nehor akusatzen euskararen edo euskal kulturaren profesionalismotik aberastu delako. Euskara ez da oraino komertziala bilakatu, nahiz-eta batzuek komertzializatu nahi izan badute ere. Gu, beste profesionalisma mota batetaz mintzo gara. Nolabait esateko hau adierazi nahi dugu hitz horrekin: alegia egungo kultur

aparato gehienak, ia denak, harpidedunen iturri ekonomikuetatik bizi direla. Ondo baino gaizkiago seguraski, bainan, azken finean, profesionalisma hortatik bizi dira. Ez goaz produkzio gintza legalaren kontra, ez. Uste dugu alderdi hau ere beharrezkoa dela eta, posible den neurrian, azken mailaraino eramane behar dela. Maila horretan bakarrik gelditzen den profesionalisma hori ukatzen dugu hemen, kontsideramendu legal eta ekonomikuak saltatzen ez dituen kulturgintzaren hegi estatiku hori hain zuzen ere. Zeren, bitartean, beste kultur ahalegin batzuek nun zer esanik ez dute. Hau ere egia da. Horregatik, zentzu honetan, gure eskabidea eta kultur ikuspegia aitzinago doaz. Hara nola: baldin Frantziako eta Espaniako estatu ankerrek gure kultura iraultzaileari sostengu ekonomikoaren ordezt mendekuntzaren prezioa eskaintzen ba diote, baldin, bestalde, egungo pizkunde kulturalak Euskadiren etorkizun askean badu asperen eta sinismen, bidezkoa dirudi, ondorio bezala, legalitatetik uxatuek leku kultural bat izan dezaten, hauen boza ere Herriak entzun dezan” (1973, 55). Beraz, hemen, kulturgintza Hegoaldeko legalitatean babesturik monopolizatzen dutenen kontra erreakzio gisa sortzen den mugimendua da.

Hirugarrena, hainbeste nabarmentzen den ideologi gatazka nahasi hartan, Euskal Herriari dagozkion norako garbi batzuk markatzen ahalegintzea da. Ur lohietan bezala, horrelako egoera ilunetan, izarririk gabeko ideologoak dira eztabaida probokatzen dutenak eta protagonismoa daramatenak eta honela, 1969az geroztik, euskal kultura “gusto guzietako azoka” bilakatzen da. Giro ideologizatu honen lekukotasuna ematera dator pasarte honetakoa: “Hain zuzen ere, 1969 urteaz gero batipat, mugimendu politikuak azkartzen etorri dira, tirabirak sortzen, ideologiak markatzen beren trazak. Literaturagintza neurri handi batetan politikazko tentsio honetan

umotu da. Literaturazko zenbait pasarteri manifesto edo ageri nabarmen baten usaina darie. Zergatik? Euskal Herria bera, oro har, auzitan jartzen delako. Hementxe hasten dira gure Herri honekiko penak eta tristurak. Berriki esana izan da, alegia Euskal Herri Bat izanen dela, bainan jadanik hasiak direla gure Herriarekiko ikuspegi desberdinak kontrajartzen. Pasarte honen egia-tik ez dabilta hain urruti sistima-eskolen defenditzaileak. Ikusi eta irakurri besterik ez dago liburuetako eta aldizkarietako literatura poxin bat: marxisma, etnia, estrukturalismoa, setsua, pedagogia askatzailea, eta beste. Polemika giroa da nagusi, tesi konfesional bat beste tesi konfesional bati kontrajartzen zaio eta une berean alkarrekiko akonfesionalak eta kritikoak deklaratu dira: hark honi heterodoxoa deituko dio eta honek hari horthodoxoa. Luma gehienetan satiraren pozoin gaiztoz kargatzen da, gutitan seriozki arrazoituz, sarriagotan eztabaida pertsonifikatuz” (1973, 56). Ideologo-kasta desmitologitzaile berri honekin haustea proposatzen da: “Ordu da kritika osagarri bati ekiteko. Ideologo ahaideen kapitalismoarekin hautsi behar da, hau bait dugu mitorik berriena. Mito berri honen lurrunetan ikonoklasta berriak aldaretu ditugu” (1973, 57).

Hara hor garai honetako kultur ezaugarri nagusiak, orduko geure begiekin ikusita, Hegoaldeko kultur mugimenduaren egoera nahiko zintzo islatu nahi dutenak. Une honetan egunkariak bezala argitaletxeek beren xedeak eta ikuspegiak aski ondo mugatuak dauzkate eta taldeka funtzionatzen dute. *Zabal-ek*, bere agerpenean, bide berri bat irekitzeko asmoz jotzen du kalera, aro berri bati hasiera emateko ustearekin, *Erbesteko euskal pentsamendua* (2001, 149-226) lanean azalduta daukagun bezala. Ahalegin horretatik abiatuta gauzatuko dira geroa euskal kulturaren industrian hain garrantzitsuak izatera iritsiko diren eta, sortzaileen asmoei erantzunez,

Euskal Herri osoa –Hegoa zein Iparra– besarkatuko duten *Zabal* liburudenda eta *Elkar* elkarteak.

1976ko belaunaldia

Joan Mari Torrealdai (1997, 159), bere 20 urteko zikloaren hipotesiarekin jokatu, 1956ko belaunaldia ordezkatzera datorren 1976koa dauka ondorengo belaunaldizat, zeina frankismoaren ostean irekitzen den juan-karlismoarekin hasten den ziklo berriari dagokiona baita. Funtsean, bada, irizpide politikoa darabil, 1936koan bezala. Aldaketa politikoak ziklo berri baten hasiera dakarrela aditzera ematen duten ezaugarrien artean, besteak beste, hauek leudeke: alderdi politikoen egunkariak eta aldizkariak; euskararen normalizaziorako erakundeak (UZEI, EIE, AEK, HABE, EHU, EITB) edota haren sustapenerako gizarte-mugimenduak (EKB, EHE) eta horien aldizkariak; irakaskuntzako testuliburu eta ikas-materialen eta literatur produkzioaren etengabeko gorakada; baina, batez ere, industria kulturalaren eta multimedien protagonismoa merkatu-sarean. Azken zentzu honetan, daturik adierazgarrienak izan daitezke, “Bilintx” mengadendaren eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren sorrerak, hurrenez hurren, 1990eko abenduaren 6an eta 1994ko uztailaren 5ean bideratuak.

Belaunaldi honi Atxagarena deitu izan zaio. Aski handia da, bigarren atalean ikus daitekeen bezala, haren adinkideak direnen zerrenda. Literaturgintzari aitortzen dion autonomian eta sail honek hartzen duen protagonismoan datza belaunaldi honen ezaugarri nagusia. Kultur gertakari hau bere testuinguruan ulertu ahal izateko, esan behar da, testuliburuekin batera, literatura ere –berreziki ikastetexee tara zuzendua den haur-literatura eta naratiba–, merkatu-kalkuluen jokoan sartzen da. Jadanik

1960ko hamarkada-bukaeran euskal kulturgintzako sektore batek aldarrikatzen zuen profesionaltasunak bilatu du bere merkatu egokia, errentagarrien zaion hura. Hainbestekoa da literaturaren eta testuliburuaren gorakada, ezen saio-liburuak epe luzeko krisia ezagutzen baitu, ez preseski saiolaririk ez dagoelako edo defizitarioak direlako, esan izan den bezala, argitaletxei besteak bezain errentagarriak ez zitzaizkielako baizik. Argitaratuak izan diren gutxi horiek, gainera, ez hedabideen ez kritikarien arretarik ez bide dute jaso.

Baina J. M. Torrealdaik dakarren 1976ko belaunaldi horrena, urte-mugari dagokionez, geroztik argitaratutako lanetan onartua al da? Ikusiko da ezetz. Batek 1974ko data ezarriko du, besteak 1975ekoa. Guztiek dabilte belaunaldiaren kontzeptua, baina ziklo-konturik ezertarako aipatu gabe. Idazle jakin baten lanak edo idazletalde batek dakarren literatur berrikuntza soilean oinarrituta sailkatzen dituzte horrela literatur aroak. Adostasuna, bada, ez da erabatekoa izango, nahiz guk, azalpena erraztearren, 1976koa dakargun. Dena den, denak ere bukazera doan aro politikotik oso hurbil dabilta.

Josu Landaren lanean, frankismo-bukaeran, 1974an hain zuzen, agertzen da gerra ondoko bigarren belaunaldia, krisi sakon baten ondotik sortzen dena. Urte-data hori da mugarría (1983, 67). Arestiren heriotzak eta Lur argitaletxearen desagertzea uzten duten hutsunea betetzera dator belaunaldi hau, lehen esan bezala, bi taldetan bananduta dagoena, bata Bilbon eta bestea Donostian, bakoitza bere ezaugarriekin, bere aukera ideologikoekin zein linguistikoekin, baina, hori bai, literaturaren autonomiari dagokioenez, gutien gainetik adostasuna agertuz.

Karlos Otaegik, handik bost urtera egindako saioan (1985, 442), 1975ean irekitzen den aroari, esan bezala, “adierazpide autonomoaren” aroa deitzen dio eta ildo horren abiapuntuan B. Atxagak eta K. Izagirrek 1975ean

sorturiko *Panpina ustela* ale literario marjinala ezartzen du. Poesiari trataera autonomoa ematen diotenen artean honako hauek aipatzen ditu: J. Sarrionandia, J. Caze-nave, A. Azkue, J. I. Lasa, J. L. Otamendi, A. Lasa, T. Irastortza, M. Ertzilla, eta abar. Beste zenbait joera poeti-koren artean, nahas-mahas, izendatuak datoz J. A. Irigai-rai, I. Zabaleta, A. Irigoien, P. Urkizu, I. Borda, Erdo-zaintzi, K. Sabtisteban, P. Iztueta, M. Zarate, X. Amu-riza, J. A. Arrieta eta gehiago (1985, 444-445).

Ohar gisa esan dezagun, aro desberdinetan gertatzen diren literatur berrikuntzaz jarduteko orduan, Josu Lan-da eta J. M. Torreal dai belaunaldiaren kontzeptuaz balia-tzen direla, 1976ko honetan bezala; Otegik, aldiz, litera-tur taldeak eta horrelakoak erabili nahiago ditu.

Arrazoizkoa ote da, literatur joera bereko edo bertsu-ko idazleen artean horrelako heretogeneitate-maila han-dia egonda, belaunaldiaz hitz egitea? Geroko belaunal-diaz antzeko zerbait esan beharko da, Kortazarrek (2000, 255-256) gogorarazten duen bezala, euskal idazleen ar-tean interes desberdinak agertzen baitira 1990-2000 epealdian zehar.

1984ko belaunaldia

Batzuek “galdua” eta “frakasatua” deitu izan diote. Azkenaldion “tropelekoa” ere bai. Denetarik. Zertarako eta, azken batean, halalotzat ez dela onartua izan aitortzeko.

Belaunaldi honen aldarrikapen esplizitua egiten ez badu ere, Xabier Mendiguren Elizegik 1980ko hamarka-da-hasieran literaturaren munduan aniztasunaren nahiz kalitatearen aldetik gertatzen diren aldaketek horretarako bide eman dezaketela pentsatzen du: “Nonbait jarri behar eta 83an ipin liteke jauzia, ipuingintzaren aldi klasikoaren hasiera. Iñigo Aranberrik ere 83a hartzen du

poesiarako aldaketa-urtetzat. Sarrionaindiaren *Narrazioak* atera zen eta beste liburu inportante batzuk ere bai (...) 83-85 aldi horretako ipuin-bilduma asko kalitate bikainekoak izan ziren, beste batzuk ez horrenbeste baina zalantzarik gabe esan liteke ipuina zela garai horretako literatur bizitzako izar eta protagonista (...) Aniztasuna eta kalitatea badauzkagu. Banaketa-bide berriak asma-tzea falta zaigu, irakurleak egile berriak estimatzea (Jokin Muñoz, Patxi Iturregi...), eta jendea konturatzea arteak ez duela luzerarekin zerikusirik” (1997, 330-331).

J. M. Torrealdaik (1997, 320-321), 1956ko belau-naldikoan bezala, 1976koan ere bi aldi bereizten ditu, azken hau 1980ko hamarkadaren erdialdeko egoeran narbarmentzen dena: “Bi aldi bereizterik balego, 1984-1985 urteetan jarriko nuke mugarri bat (...) 80ko hamarkadaren erdialdian abiatzen den gorakada hau ezin da izan inprobisatua. Belaunaldi berrian aurkitu behar zaizkio esplikazio-iturriak”. Autore honentzat, bada, belau-naldi izeneko hau 1986koaren luzapen gisa ulertu behar da eta, bere aurrekoak bezala, honek ere literaturaren autonomia errebindikatuz segitzen du. Hemendik dator “autonomiaren” belaunaldia izendatzearena, horretarako, berriro hemen ere, arrazoitzat Txillardegi eta Atxagaren arteko tirabira hura aipatzen delarik: “Epealdi honen hasiera-hasieratik belaunaldi berri bat plazaratzen dela esan genezake. Nola izendatu? Ez dakit. Baina agian ez legoke gaizki ‘Autonomiaren belaunaldia’. Autonomiaren horrek garaiari egingo lioke keinu, baina batez ere literaturgintza ulertzeko modua da azpimarratu nahi duena” (1997, 344).

Era berean, Gunilla Von Bismark (1984) izenordez izenpetzen duen *Susa*-ko idazle gazte baten artikulua bategan, errelebuaren kontua aipatzen da: “Liburu Urdineko argazki txukunetan agertzen ez ziren izkiriataile trake-tsez osatutako belaunaldi berri bat saiatzen ari dela

errelebua jasotzen (...) Belaunaldi berriak bi puntutan egin du aurrekoarekin topo, konpromisoan eta euskara batuan. Idazleak, idazle gisa, nola ulertu behar du bere lana aberriarekiko, herriarekiko, gizartearekiko? Autonomiaren defentsa integrazioaren defentsari kontrajarri izan zaio. Diferentziak ikusteko aski da, kasurako, Txillardegiren eta Bernardo Atxagaren arteko polemikara jotzea (...) Hizkuntzaren normalizazioa edo euskara batuarena da, beste konnotazio-gunea. 56ko belaunaldiak bere bere gaia du euskara estandar, batu edo modernoaren gaia. Eta buru-belarri langintza horretan sartua segitzen du epealdi honen hasieran. Belaunaldi berriak, berriz, euskara batuaren oinarriak jarrita aurkitu ditu, eta bidea eginagoa”. Pasarte honetan ikus daitekeenez, bada, 1984ko belaunaldi hau bere izateko arrazoia 1956ko belaunaldiari, ez 1976koari, kontrajarriz justifikatzen ahalegintzen da. Belaunaldien arteko txoke hori egina baitzeukan jadanik 1976ko belaunaldiak, asmo berarekin edo antzekoekin plazaratzen den 1984ko idazlemultzo batek ez du lortu ahal izanen belaunaldi autonomo gisa onartua izatea, nahiz geroztik titulu hori etengabe errebindikatuz etorri den.

Adin-piramidearen arabera sailkatutako zerrenda honetan datoz belaunaldi hau osatzen dutenen izenak: “Pablo Sastre, Mikel Hernandez, Itxaro Borda, Josu Landa, Tere Irastortza, Jon Mikel Arano, Ander Iturriotz, Xabier Etxaniz, Iñaki Aldekoa, Manu Lopez eta, adinaren eskaileren jaitziz, talde-aldetik umezurtzago ikusten dugu hurrengo labealdia: Javi Cillero, Joseba Etxarri, Karlos Linazasoro, Jon Arretxe, Luis Berrizbeitia, Joseba Gabilondo, Juan Luis Zabala, Pako Aristi, Inazio Mujika, Aitor Arana, Gerardo Markuleta, Xabier Mendiguren Elizegi, Arantxa Iturbe, Harkaitz Cano...” (Torreal-dai, 1997, 399). Zerrenda honetako hainbat idazle *Susa* aldizkarian lehen probak egiten hasitakoak dira, gehienak

euskal filologia ikasi zutenak; beste hainbatek, ordea, bide autonomoa egin dute. Ez dago esaterik, bada, idazle-talde homogoneoa osatzen dutenik ere. Bizibidearen aldetik ere ez, kazetaritzatik bizi direnen ondoan, banaka batzuk lumak dakarkiena baitute diru-iturri bakarra.

Jon Alonsok (2003), aspaldiko hautsak harrotuz, “tropela” hitza asmatu zuen Atxagaren belaunaldiaren eta egungo idazle gazteen arteko idazle-multzoa izendatzeko. Guztiak dira “tropelekoak”, hori bai, baina geroxeago Iban Zalduak (2003) zehaztuko duenez, tropelekoa izateko manera asko daude, 9 bederen bai. Halere, beren arteko aniztasun-zeinuaren barruan badute batera zerbait berezia, eta da ez direla errekonozituak beren literatur kalitatearen neurriera eta beren haserrea plazaratzeko lotsarik ez dutela izan. Modu askotara agertu izan dute prentsan beren min hori. Frustrazioa eta zauria dira belaunaldi honen ezaugarri nabariak, behin eta berriz belaunaldi honetakoek bere solasaldian agertu duten bezala. Frustrazioaz zer? galderari, Iban Zalduak (2003, 22), zenbait idazleren iritziak jasoz, agerian jartzen du badagoela, egon, agian ez erabateko frustrazioaren sentipena, baina bai halako erresumin-puntu bat:

“Beno, zer edo zer badago, ezta? Garai batean hainbat jenderen deklarazioak izan ziren, modu batean edo bestean halako sentimendu batekin lotu daitezkeenak, eta horren oihartzuna jasotzen zuen Alonsok bere artikuluan; nik halako zerbait antzeman nuen, garai hartan, zenbait idazleren deklarazioetan: Aingeru Epaltza, Xabier Mendiguren, Aitor Arana, Jokin Muñoz edo Karlos Linazasororenetan... Eta gaur egunera etorrita, Felipe Juaristiren adierazpenak ere hor daude: *Airezko emakumeak* bere azken eleberriari ez zaiola kasu nahikorik egin esan du; *Soinukolearen semea* liburuaren itzalean geratu ote den inpresioa aireatu du –orain, Euskadi Sariak eman eta gero, igoal *Bizia* lorena gehitu beharko dio Atxagare-

nari (...) Jakina, belaunaldi horretarako idazle guztiak, kasurako, frustratu batzuk direla esatea eta orokortzea ez da erreala ziur asko, baina badago erresumin puntu bat (...) Juan Luisek aipatu duenaren harian, batetik, esango nuke, 83ko edo tropeleko belaunaldia delako idazle gehienek, oro har, beren burua idazlea kontsideratzeko lotsa handiagoa izan dutela, aurreko nahiz bere ondoko belaunaldiko idazleek baino; Pako Aristik duela gutxi antzeko zerbait adierazi du, euskal idazleoz orokorrean hitz eginez, nik konpartitzen ez dudan harrokeria-puntu batekin baina– eta frustrazio-sentimenduan sakonduz, noski: idazle gaixook ez gaude nahikoa errokonozituta gizarte honetan, haren ustez... Bestetik, idazleoi idazleak bezala aitortuak eta errekonozituak izatea gustatzen zaigu, beste belaunaldien aldean behintzat, eta ez bada gertatzen, bada, zerbait arraroa antzematen da gure inguruan; izan ere, nire hipotesia da, agerian ez bazauden ere, espektatiba handiak zituztela ‘tropelekoek’, eta Atxagaren ‘belaunaldiak’ hor dirauela, kalitate eta sona handiko lanak egiten, eta –Olasagarrek aipatu zuen bezala– fakmak jauzi egin duela ‘tropelaren’ gainetik, Kirmenen belaunaldira, nolabait esateko. Gauza asko dira tartean, nolabait esateko”.

Zauriarena, berriz, honela azaltzen du Juan Luis Zabalak (2004, 22) pasarte honetan: “Solalsaldiaren sarrean aipatutako ‘zauri’ hitza esan gabe, arrangura moduko bat dagoela esango nuke. Tartean motibo asko egon daiteke beharbada. Batetik, errekonozimendu edo aitortza jaso dutenak gure aurreko idazle horiek dira. Nire belaunaldiak ez du jaso hori, eta ez dauka halaber gure hurrengo belaunaldi gazteak jaso zuen lilura, gaztearenganako lilura, eta hedabideen arreta... Bestetik, gure belaunaldiko idazleen literatura, oro har, ez da horren erraza izan, ez hain arina. Gurean sentitu da... nola esango nuke...”.

Belaunaldi frustratua, zauritua, galdua, tropelekoa. Halere, aintzat hartu beharrekoa? Belaunaldi honek ba ote du autonomotzat hartua izateko adina meriturik? Hau da *Argia*-ko solaskideek harrotutako beste gai bat. Halakotzat onartua izan zedin, *Susa*-koek, adibidez, Joxe Azurmendi eta Koldo Izagirrerengan aitaponteko berme-emaileak aurkitu zituzten beren literatur kalitatearen aldeko aupadan, baina, gertatzez, beren aurreko belau-naldiko idazle ospetsuen itzalak bigarren mailako sortzai-leak –tropelekoak, alegia–, izatera kondenatuko ditu eta halaxe jarraitzen dute, nahiz eta, Juan Luis Zabalak bere solasaldian dioen bezala, belaunaldi horretako lan batek baino gehiagok jasotzen dituzten Euskadi Sariak, hala nola Pello Lizarralde *Larrepetit*-ekin, Jokin Muñozen *Bizia lo*-arekin, eta aurretik baita Aingeru Epaltzak eta Felipe Juaristik ere. Belaunaldi honi zegokion maila ez aitortzearen arrazoia, Juan Luis Zabaleren (2004, 26) ustez, hedabideen eraginean ezarri behar da –hauek baitira, produktua bera zuzenean ezagutu gabe, literatur produktuez iritzi publikoa eraikitzen dutenak–, zer den kalitatezkoa eta zer ez erabakitzen dutenak. Kasurako, futboleak gertatzen den bezalatsu: “Futbola ikusi gabe, nolabait esanda, badakit nola jokutzen duten futbolariak. Hedabideen, kontsumitzaileen eta idazleen artean ere hori gertatzen ote den inpresioa daukat. Beste neurri batean nahi baduzue. Baina, oro har, idazleari buruz gehiago jakiten da hedabideek esandakoarengatik, irakurriarengandik baino. Eta gure belaunaldiak horre-lako zorte txar moduko bat izan ote duen nago. Hortik frustraziora pauso handia dago. Ez dugu inoiz uste izan –oso gaztetan ez bada izan– euskal idazle izatea Ez-dakit Nolako Parnasora iristeko modua zenik. Ez dugu idazten inongo parnasotan sartzeko, gustuko dugulako edo bar-ruak eskatzen digulako baizik. Zoritxarrez, hedabideen beharrak betetzeko idazleen ikuspegi azaleko bat eman

izan da maiz askotan”. Hedabideen garrantzia azpimarratzean, ez zaio arrazoirik falta. Obra bat ona ala txarra den baloratzeko orduan uste izan den baino gehiago baldintzatzen dute iritzi publikoa prentsako artikuluek, Ur Apalategik (2001) idatzia daukanez, horietako batzuk “argitaletxeak idatziak diruditenak” direla esan baitaiteke.

Juan Luis Zabalak hedabideetan ezartzen zuen bezala kritika literarioaren irizpide baloratzailerak, Jon Kortazarrek literatur obra onartua izatearen ala ez izatearen neurriak kritika unibertsitariotik harago tinkatzen ditu, gure kasuan, zehazki, irakaskuntzako merkatu-legeetan. Dena den, berriro Ur Apalategirena (2001) ekarriz, ez hedabideek bakarrik, literatur obra bat nolakoa den esatera mugatzen den kritika unibertsitarioak ere baditu bere idazle faboritoak: “Kritika unibertsitarioak, halere, izan du akatsik azken aldian. Idazle belaunaldi bat –70eko hamarkadan idazten hasten dena– baizik ez du mimatu (garrantzi historiko ukazina duelako eta, apika, kritikaren beraren agerpenarekin kointziditzen duelako), berriagoak edo zaharragoak aherentziz. Uste dut garaia heldu dela injustizia txiki hau konpontzeko”.

Arrakasta eta kalitatea gauza bera ote dira? Era berean, baina beste maila batean, errekonozimenduarena belaunaldiaren ezaugarri ezinbestekoa al da? Eten azeri deitzen zaio? Zertan datza 1976koaren eta 1984ko honen arteko etena? Galderak hortik doazela iruditzen zaigu.

1993ko belaunaldia

Joan Mari Torrealdairen eskeman, 1976ko belaunaldiari segida ematea tokatzen zaionak 1996koa izan beharko zuen. Bere ustez ez baita urte-data horretan oraindik belaunaldien arteko etena gertatu, lehengoak segitzen du indarrean: “Pentsatzekoa da gaur ere ez ote

dagoen hutsune berri bat. Literatur aldizkaritxoak falta dira berriz. Aldizkariak badira, inoizkorik ugarien. Baina denak informatiboak. 90eko belaunaldiak zeregin informatiboetara jo du. Irrati-telebistak direla, Egunkaria dela, prentsa lokala dela. Literatur belaunaldia galdua ote? Non dago erreibua orain? Lubaki Banda aipatu ohi da” (1997, 353).

Esan liteke, itxura batean, literaturan epe berri bat hasteko bokaziarekin sortu zela Lubaki Banda. Lehen manifestuan, bere aurkezpena egiterakoan, horrelako zerbait suma zitekeen: “Inoiz desiratu ez zenuten gaua gara; iluna eta arrunta, zuek lurperaturiko ilusioak berpiztea datorrena. Lubakietan lurperatu gintuzuen gure ametsekin, eta aspaldi zendu ginelakoan bizi izan zarete geroztik. Behin gehiago ordea, oker zeundeten. Eta itzuli gara: zuen krisi sakona gezur ederrez apainduriko krisia baino ez dela salatzeraz. Itzuli da hainbat urte lehenago hitz emaniko mendekua. Mendeku kulturala. Eta promesa honen erratzetan dator Lubaki banda: Idazle gazteak izan garela esateko, gauez lubakietan lan egiten dugunez nabaritzen ez den arren. Asko dira lehiaketetan sarituak, ehundaka zaurituak, milaka haien buruentzat soilki idazten dutenak, lehiaketen atzapar selektiboan urraduretatik babesturik. Zenbat idazle zapuztu ote dituzte sotanek eta ustezko intelektualek? Literaturak, espresabide den heinean, ezin onar dezake klasifikaziorik. Lehiaketen aurrean, liburuak, aldizkariak, fanzineak, poemak, ipuinak eta teatro saioak bultzatzeko premia daukagu”. Beste pasarte honetan, berriz, beren lekua eskatzen dute literatur idazleen komunitatean: “Idazten dugu, engoitik existitzen gara”.

Lubaki Banda-k Donostian egin zuen bere aurkezpena 1993ko abenduaren 30ean eta manifestua *Susa* aldizkarian agertu zen. Taldea, urte-data hartan, 17 eta 20 urte bitarteko idazleek osatzen zuten. Gaur horiek hogeita

hamar urtetik gora izango dituzte. Talde honek bere bidean hiru aldizkari atera, maketa bat eta berrogei erreztaldi egin ditu; bestalde, badira talde honetan “Urruzuno” beka eta sariak irabazi dituztenak ere. Baina galdera zintzilik dago: lortu ote du belaunaldi autonomo bezala onartua izatea? Eta baiezkoan, zein dira horren ezaugarriak? J. M. Torrealdai ezezkoan dago, errelebuak huts egin duela eta “euskar literaturaren plaza, gaur bertan, 1976ko belaunaldiarena dela” (1997, 399-401). Juan Luis Zabalaen (2004, 28) iritzia ere antzekoa da: “Lubaki Banda izan zen nolabaiteko marka bat ezarri zuena, ez dakit belaunaldi bati, baina markaren bat utzi zuen. Lubaki Banda, besteak beste, Urruzuno beka eta sariaren bidez plazaratu zen. Urruzuneko lehen partaideak Lubakikoak ziren. Gero Lubaki eta Lubakiren ondorengo arteko bereizketarik ez nuke egingo. Azken belaunaldiaren zikloa osatu gabe dago. Oraindik elementu gutxi dago belaunaldi hori osotasun batean ikusteko”. Harkaitz Canok (2004, 28) Lubaki-rena barrutik begiratuta nola ikusten zuten esatera mugatzen da, belaunaldiaren kontua alde batera utzita: “Lubaki Banda aipatu dugu. Bada gu banda izan baginen, eta ez talde, Pott ere banda izan zelako da. Pott-en erreferentzia oso garrantzizkoa izan zen guretzat. *Henry Bengoa Inventarium* eta Ruper Ordorika tarteko. Idazleak aipatu ohi dira, baina guretzako kantariak eta musikariak ere berebizikoak izan dira. Lubakiren garaian, batzuek *Sarriren* zaleago izango ziren eta beste batzuk *Atxagaren* zaleago, baina Ruper Ordorikak denok batzen gintuen... Ruper Ordorika izan ote zen gure Gongora? Akaso bai”. Beste pasarte honetan 1990eko hamarkadan plazaratutako idazleen profila deskribatzen du: “Kakotxen artean betiere, hizkuntza ‘normalizatuago’ bat jaso dugu. Ikastolako umeak gara. Hedabideen eraginarekin ere lotuko nuke. Lehen hedabideak ez ziren hainbeste, ezta hain ondo artikulatuak

ere. Idazleek beren zutabeak edo tribunak dituzte gaur egun. Gutako hainbatek gidoigile bezala lanerako aukera izan dugu, aukera bereziak izan ditugu, alegia. Ez dut uste gu aurrekoak baino zorrotzago garenik, edo lotsagabeago, eskura baliabide gehiago izan dugula baizik. Iban eta Juan Luisen kasuetan, adibidez, idaztearekin batera irakaskuntzan eta kazetaritzan ari dira. Garai batean, idazlearen hautua kazetaritzan edo irakaskuntzan zegoen askotan, ogibidea hautatzeko orduan. Guk aukera gehiago eduki dugu. Beste modu batez jardun dugu hedabideetan eta hedabideek ere arreta gehiago jarri dute gudan” (2004, 27).

Iban Zalduek (2004, 24), bere aldetik, gaztetasunaren errebindikazioa nabarmentzen du belaunaldi honen ezaugarri gisa: “Tropeleko’ belaunaldia argitaratzen hasi zenean irudipena daukat gazte izate horri ez zitzaiola horrenbesteko garrantzia ematen eta, edozein modutan, eta salbuespenak salbuespen, belaunaldi horretako idazleek ez diote eutsi beti-gazte irudi bati. Hurrengoan, Lubaki Bandatik abiatzen den horretan, ordea, uste dut gaztetasuna bera balio edo ezaugarri nagusienetako bat bezala erabili dela, ez dakit zein puntutaraino idazleen aldetik, baina bai, ziurrenik, komunikabideen, argitaletxeen eta kritikarien aldetik; bestalde, promoziorako dohain eta lan egiteko gogo handiagoak erakutsi dituztela esango nuke. Eta baita idazlea bera pertsonaia bezala garatzeko abilezia berezia ere (...) Oraintsu arte, Euskal Literaturaren Historia gorabeheratsuan, arrazoi ezberdinengatik, ohikoena belaunaldi-ordezkapena izan zela: belaunaldi berriak aurrekoa anulatu bezala egiten zuela. Eta ‘belaunaldi galduaren’ kasuan ez zela hori gertatu ondorioztatu nuen, esan bezala, espektatiba historiko hori izan zezakeen arren. Hirugarren belaunaldiak –Harkaitzena eta enparauenak–, ez du perspektiba hori izan, ordea, hobeto ezagutzen zuen joko-zelai berria, eta lasaiago joan da agian”.

J. L. Zabalak (2004, 27) “mimatua” deritzo Har-
kaitz Canoren belaunaldiari: “Ez da nik bakarrik esana:
nahiko mimatua ikusten dut. Gainera, neurri batean,
aurreko belaunaldiarekin elkarlanean edo elkarkidetzan.
Ez da haustura izan bien artean, jarraipen bat izan da.
Errespetuz eta gertutasunez lan egin dugu. Haustura iza-
tea ere zaila zen, hausteko ere ezer ez zegoen eta. Azken
batean, gure belaunaldiak, literaturan, ez du inoiz botere
ikaragarriarik izan”. Bere belaunaldiaren aldean, mima-
tuago, noski.

Belaunaldi honetakotzat jotzen da, halaber, Unai
Elorriaga, narratiban Sari Nazionala jasotzen duena
2002an; orobat, Kirmen Uribe poeta ere. Iban Zalduak,
arestian esan bezala, famak Atxagaren belaunalditik
Kirmenen belaunaldira egiten du jauzi, tropelekoek
zituzten espektatiba handien gainetik pasatuz. Hara zer-
gatik deitzen dion azken belaunaldiari, Kirmen Uriberen
belaunaldia.

Gaztetasuna, Euskadi Saria, Espainiako Sari Nazio-
nala, hedabideen mimoa jasotzea, hizkuntza estandariza-
tuaren jabe izatea, idazle profesionalaren aldeko hautua
egitea, eta horrelako ezaugarriak eta atributuak aski ote
dira, azken batean, belaunaldi berri baten sorreraz hitz
egiteko? Badirudi ezetz, baldin eta kontzeptu horren bidez
adierazi nahi bada azken honek bere aurrekoa ordezkatzeko
duela. Horregatik, 1990 edo 1993ko belaunaldiaz hitz
egiten bada ere, hemen egiten den bezala, zentzu hertsian
ez litzateke aintzat hartzekoa izango. Eta honen arrazoie-
tako bat da, aipu askotan agertu izan den bezala, gaur-
gaurkoz belaunaldi bat baino gehiago koexistitzen direla,
batzuk zaharrago bestek gazteago, eta belaunaldien
arteko kinka horretan oraindik indartsu eta osasuntsu
–kalitate oneko lanak eginez, alegia– segitzen duela
1976ko belaunaldiak eta zail gertatzen zaiela azken bi
hamarkada hauetako idazle gazteei haiei aurrera hartzea.

Honaino helduta, galdera bera datorkigu ezpaine-tara: elkarrizketa horretan aipatuak izan diren ezaugarri horiek baliozkotzat hartzekoak ote dira? Literaturaren autonomia aldarrikatu zenez geroztik zer berri gertatu da esparru literarioan? Zein literatur ekarpenek eragin du euskal gizartean zirrara sortzeraino? Eta literaturatik aparte, ez al da ekarpen baliosik egin? Baiezkoan, zein belaunalditakoek egin dute?

Galdezka segi genezake. Eta atal hau, hainbeste belaunaldiren aurkezpena egin eta gero, halaxe bukatzen dugu: gazdezka. Izan ere, gure xedea horixe izan da, iturrietan esplizituki aipatuak izan diren belaunaldiak jasotzea, beren urte-data zehatzekin. Baina ez dugu geure gain hartu belaunaldi horietako bakoitzak bere izateko arrazoa justifikatua daukan ala ez. Arazo honi erantzuten saiatzea baino lehenagokoa da, hain zuzen ere, belaunaldiaren kontzeptua bera egungo tradizio soziologikoan erabilgarria den ala ez erabakitzea. Baina honetaz hurrengo saio batean arituko gara.

Azken hitzak

Egia da, lehen atalean azaldu bezala, tradizio soziologikoan sostengu teoriko luze eta sendoa izan duela belaunaldiaren kontzeptuak eta, kronologiaren aldetik, eredu positibistatik etnografiarako desplazamendu moduko bat egon dela. Azkenaldion, kontzeptu hori ikerketa etnografikoetan erabiltzen da, baina zentzu genealogikoan hartuta.

Bere garaian eskola historiko-soziala arrakasta handia izandakoa da, batez ere Espainian, 1920-1930eko hamarkadetan eta frankismo-garaian, orduan argitaratzen baitira belaunaldiei buruzko obra gehienak, Ortega y Gasset-en eta honen inguruko zirkulukoek —batez ere, Julián Marías eta Laín Entralgo-ren (1945)— eraginez. Intelektual horien oihartzunak Hego Amerikan ere —berreziki Argentinan—, entzungo dira, lurralde haietan gaztelaniak eta metropoli-kulturak erreproduzitzen duten espainolismoaren ondorioz. Hispanoamerika esanda, mundu guztiak daki zein geografiaz ari garen. Era berean, badira, literatura espainolaren orde, gaztelaniaz egindako literaturaz hitz egitea egokiagozat jotzen dutenak, horien artean Mateo Gambarte bera (1996, 24). Honek garbi dauka hizkuntza dela literaturaren mugak zedarritzen

dituena. Harritzekoa bada ere, Euskal Herrian modan jartzen ari da, ez euskal literaturaz, baizik euskaldunen literaturaz –pluralean– hitz egitea, erdaraz egindakoa ere hor sartuz (Lasagabaster, 2002, 24-25). Ez badirudi ere, hizkuntzaren arazo honek zerikusi zuzena du belaunaldiarekin, gurea bezalako gizarte elebidun batean areago oraindik, Euskal Herriko idazleen artean mota bat baino gehiagotakoak aurkitzen baitira: nor euskal idazle soilki sentitzen da –gutxi, halere–, nor idazle eleaniztun –gehiago horrelakoak–, nor erdal idazle soilki –gehienak–. Arazoa egiazkoa da, arras sakona, eta honen hegoak, aspaldikoak eta lanbrotsuak izateaz gain, alderdi askotara zabaltzen dira eta, luzatzen utzi gabe, noizbait argitu beharrekoak.

Adierazgarria da benetan belaunaldiaren kontzeptuak euskal literaturaren historian izan duen erabilera. Gure azalpenean 12 arteko zerrenda osatu dugu: 1800ekoa, 1976koa, 1930ekoa, 1936koa, 1950ekoa, 1956koa, 1960koa, 1964koa, 1970ekoa, 1976koa, 1984koa, 1993koa. Faltako dira, apika, batzuk, baina daudenak iturrietan egiaztatuak daude. Ez dakigu hipotesiak egiten hasteko hau den gune egokia, baina galdera hau egin gabe ezin gara geratu: egoera honek ez ote du islatzen lehen aipatutako intelligentsia espainolak euskal historia-lari eta kritikariengan izandako eragina?

Belaunaldiaren paradigma, eredu teoriko eta metodologiko gisa, kasu gutxi batzuetan aplikatu izan bada ere literaturaren historian, egun gainditua dago gizarte-zientzietan eta ez da erabiltzen. Zergatik? Funtsean, ilusiozkoak diren bi premisa ontzat hartzen dituelako: bata da historiak badituela bere legeak erritmoen edo belaunaldien arabera funtzionatzen dutenak, eta bestea ideien mundua nagusitzen dela historiaren bilakaeran. Historian ematen dira erregulartasunak, baina horiek adierazteko egokiagoa da aldiaz mintzatzea eta ez belaunaldiaz.

Espiritualismoari, berriz, aspaldi ezarri zizkioten beren objezioak marxismoak eta positibismoak.

Belaunaldiaren kontzeptuak adierazi nahi zuen gizarte-errealitateak, ordea –izan dadila kultur edo literatur gertakari bat, ala bestelako zernahi–, hor dirau gizarte-fenomeno gisa, beste paradigma alternatibo batek zehaztasunez atzi dezan. “Taldearena” egokiagoa dela? Izan liteke. Baina orduan Escarpit-ek ematen duen definizio-tik harago, kontzeptu horrek har ditzakeen beste eduki batzuk ere kontuan izan beharko dira. Baina honek beste urrats batzuk ematea eskatzen du. Orain arte esandakoak arazoaren konplexutasunaz jabetzeko balio biezagula.

Bibliografía

1. Bibliografía orokorra belaunaldiez

- ASKOREN ARTEAN (1978): *Los poderosos de la literatura. Crítica literaria e industria cultural*, Universidad de Sevilla, Sevilla.
- ATTIAS-DONFUT, Claudie (1988): *Sociologie des générations. L'empreinte du temps*, PUF, Paris.
- AYUSO, M.V.; GARCÍA, C.; SOLANO, S. (1990): *Diccionario de términos literarios*, Akal, Madrid.
- BALANDIER, Georges (1974): *Antropo-logiques*, PUF, Paris.
- BARTHES, Robert. (1966): *Critique et vérité*, Paris.
- BOURDIEU, P.; PASSERON, J-C. (1970): *La Reproduction*, Les Editions de Minuit, Paris.
- BOURDIEU, Pierre (1982): *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*, Fayard, Paris.
- BOUSOÑO, Carlos (1981): "Nuestra posición frente a la teoría de las generaciones", in *Épocas literarias y evolución*, I, IX, Gredos, Madrid.
- BRAUDEL, F. (1969): *Ecrits sur l'histoire*, Champ-Flammarion, Paris.

- CANETTI, Elías (1977): *Masa y poder*, Muchnik, Barcelona.
- CHICHARRO CHAMARRO, Antonio (1985): “Gabriel Celaya y la generación del 27”, *Cuadernos del Mediodía: Suplemento de las artes, ciencia y cultura*, 8-02-1985, 16-17 or.
- COMTE, Auguste (1908): *Cours de philosophie positive*, IV, Schleicher, Paris; 1. arg. 1880.
- COURNOT, A.A. (1973): *Oeuvres complètes*, IV: *Considérations sur la marche des idées*, Ed. Virin, Paris; 1. arg., 1872.
- CRESPO, Angel (1990): “Imaginario colectivo”, *Suplemento Culturas de Diario 16*, 21-04-1990.
- DÍEZ DE REVENGA, F. J. (2004): *Las Vanguardias y la Generación del 27*, Síntesis, Madrid.
- DILTHEY, W. (1947): *Le monde de l'esprit*, I: *Histoire des sciences humaines*, Aubier-Montaigne, Paris.
- DROMEL, J. (1862): *La loi des révolutions, les générations, les nationalités, les dynasties, les religions*, Ed. Didier & Cie.
- DUMONT, F. (1964): “La sociologie et la critique de la littérature”, *Approches sociographiques*, I-II.
- DURKHEIM, Emile (1978): *De la division du travail social*, PUF, Paris, 10. arg.
- (1993): *Hezkuntza eta soziologia*, Klasikoak, Bilbao. P. Iztuetak itzulia; jatorrizkoa, *Education et sociologie*, PUF, Paris, 1973.
- EISENSTADT, S. M. (1971): *From Generation to Generation. A Groups and Social Structure*, Free Press, New York; 1. arg., 1956.
- ESCARPIT, Robert (1948): *Historia de la literatura francesa*, FCE, México.
- (1970): *Le littéraire et le social*, Flammarion, Paris.

- (1971): *Sociología de la literatura*, Oikós-Tau, Barcelona; jatorrizkoa, 1958.
- (1974): *Teoría general de la información y de la comunicación*, Icaria, Barcelona.
- ESCARPIT, Robert, et al. (1974): *Hacia una sociología del hecho literario*, Edicusa, Madrid.
- FEBVRE, Lucien (1928): "Générations", *Projets d'articles du vocabulaire historique*, Buletin du Centre International de Synthèse, 7, juin 1928, 37-43 or.
- FERRARI, Guiseppe (1874): *Teoria dei periodi politici*, Ed. Hoepli, Milan.
- GARCÍA MARTÍN, José Luis (1992): "Décadas, marginación y generaciones (Dos o tres obviedades sobre un falso problema)", *Insula*, 543, marzo.
- GIRARD, Marcel (1968): *Guide illustré de la littérature française moderne*, Seghers, Paris.
- GOLDMAN, L. (1950): "Matérialisme et histoire de la littérature", *Rev. De métaphisique et de morale*.
- GULLÓN, Ricardo (1971): *Direcciones del Modernismo*, Gredos, Madrid, 2. arg.
- JANSEN, Nerina (1977): *La teoría de las generaciones y el cambio social*, Espasa-Calpe, Madrid.
- KRIEGEL, Annie (1979): "Le concept politique de générations: Apogée et declin", *Commentaires*, 7.
- LABROUSSE (1932): *Esquisse du mouvement des prix et des revenus enb France au XVIII siècle*, Dalloz, Paris.
- LAÍN ENTRALGO, Pedro (1945): *Las generaciones en la historia*, Instituto de Estudios Políticos, Madrid.
- LAMBERT. T. A. (1972): "Generations and Change. Toward a Theory of Generations as a Force in Historical Process", *Youth and Society*, IV, september 1972, 1, 21-45 or.

- LÁZARO CARRETER, Fernando (1980): “Lenguaje y generaciones”, *Estudios de Lingüística*, Barcelona.
- LIDA, Raimundo (1983): “Períodos y generaciones en historia literaria”, *Letras Hispánicas*, 2. arg., PCE, México.
- LORENZ, O. (1891): *Leopold von Ranke, die Generationen lehre und der Geschichtsunterricht*, Berlin.
- LOWIE, R. H. (1936): *Traité de sociologie primitive*, Payot, Paris.
- MAINER, José Carlos (1990): “Cultura y vida nacional (1920-1939): Rafael Alberti”, *Cuadernos Hispanoamericanos*, 485-6, noviembre-diciembre.
- (1994): “La invención de la literatura española”, in J. M. Enguita y J. C. Mainer (eds.): *Literaturas regionales en España*, Institución “Fernando el Católico”, Zaragoza.
- MANNHEIM, K. (1951): *Freedom, Power and Democratic Planning*, Routledge and Kegan Paul, Londres.
- (1964): *Essays on the Sociology of Knowledge*, Routledge and Kegan Paul, Londres.
- (1972): “The problem of generations”, in *Essays on the Sociology of Culture*, Routledge and Kegan Paul, Londres, 276-322 or.; 1. arg., 1928.
- MARÍAS, Julián (1970): *El método histórico de las generaciones*, in *Obras Completas*, VI, Revista de Occidente, Madrid; 1. arg. 1967.
- (1975): *Literatura y generaciones*, Espasa-Calpe, Madrid.
- (1989): *Generaciones y costelaciones*, Alianza, Madrid.
- MATEO GAMBARTE, Eduardo (1996): *El concepto de generación literaria*, Síntesis, Madrid.
- MARTÍNEZ CACHERO, J. M. 1995), in Menéndez Pelaez, op. cit., 201-224 or., 444-446 or.

- MEAD, M.(1990): *Cultura y compromiso*, 2. arg., Gedisa, Barcelona; jatorrizkoa, *Culture and Commitment: A Study of the Generation Gap*, Bodley Head, New York, 1970.
- MEMMI, A. (1963): “Problèmes de la sociologie de la littérature”, *Traité de Sociologie*, Paris.
- MENÉNDEZ PELAEZ, Jesús [coord.] (1995): *Historia de la literatura española. III: Siglos XVIII, XIX y XX*, Everest, León.
- MENTRÉ, F. (1920): *Les générations sociales*, Ed. Bossard, Paris.
- MONNER DE SANS, José María (1970): *El problema de las generaciones*, Buenos Aires.
- MORENO, Victor (1995): *De bromas y de veras: la crítica literaria en los periódicos*, Pamiela, Pamplona.
- ORTEGA y GASSET, José (1964): “La deshumanización del arte”, in *Obras completas*, III, Revista de Occidente, Madrid, 5. arg.; 1. arg., 1925.
- (1982); *En torno a Galileo. Esquema de las crisis*, Alianza, Madrid; 1. arg. 1959.
- (1987): *El tema de nuestro tiempo*, 3. arg., Alianza, Madrid; 1. arg. 1981.
- (1989): *Generaciones y constelaciones*, Alianza, Madrid.
- (1993): *Ideas y creencias*, Alianza, Madrid.
- PETERSEN (1946): “Las generaciones literarias”, in PEYRE, H. (1948): *Les générations littéraires*, Paris.
- PORTUONDO, J. A. (1981): *La historia y las generaciones*, Letras Cubanas, La Habana.
- PUIGRÓOS, Adriana (1993): *Universidad, proyecto generacional y el imaginario pedagógico*, Paidós, Buenos Aires/Barcelona.

- RADCLIFFE-BROWN (1929): *Age organisation terminology*, Nan.
- RIERA, Carmen (1988): *La Escuela de Barcelona*, Anagrama, Barcelona.
- RÜMELIN, G. (1896): *Problèmes d'économie politique et de statistique*, Paris, 285-305 or.
- SALINAS, Pedro (1970): *Literatura española. Siglo XX*, Alianza, Madrid.
- SARTRE, J-P. (1948): *Qu'es-ce que la littérature?*, Gallimard, Paris; itzulpena, *¿Qué es la literatura?*, Losada, Buenos Aires, 1976.
- SCHUMPETER (1939): *Business Cycles, a Theoretical and Statistical Analysis of the Capitaliste Process*, II, McGraw Hill, New York.
- SIRINELLI, J-F. (1994): *Génération intellectuelle. Khâgneux et Normaliens dans l'entre-deux-guerres*, Quadrige/PUF, Paris.
- THIBAUDET, Albert (1936): *Histoire de la littérature française de 1789 á nos jours*, Stock.
- (1984): "Una generación literaria más amplia", in Francisco Rico (coord.): *Historia y Crítica de la Literatura Española*, 7, Crítica, Barcelona.
- TORRE, Guillermo de (1969): *Del 98 al Barroco*, Gredos, Madrid.
- TROTSKI, Leon (1971): *Sobre arte y cultura*, Alianza, Madrid.
- TUÑÓN de LARA, Manuel (1977): *Medio siglo de cultura española (1885-1936)*, Tecnos, Madrid.
- TUSÓN, Vicente; LÁZARO, Fernando (1989): *Literatura del siglo XX*, Grupo Anaya, Barcelona.
- YNDURAIN, Domingo (2002): *Historia de la literatura española*, UNED, Madrid.

WEBER, Max (1972): *Ensayos de Sociología contemporánea*, Ediciones Martínez Roca, Barcelona.

2. Belaunaldiez euskal letretan

ALDEKOA, Iñaki (2004): *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia.

ALONSO, Jon (2003): “Tropela”, *Argia*, 2003-05-4.

AMEZAGA, Elías (1988): *Los vascos y la generación del 98*, Bilbao Kizkaia Kutxa, Bilbao.

APALATEGI IDIRIN, Ur (1998): “Atxaga post-obabarra edo literatura autonomoaren heteronomizazioa”, *Uztaro*, 27, UEU, Bilbo, 63-82 or.

(2000) *La naissance de l'écrivain basque. Evolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga*, L'Harmattan, Paris.

(2001): “Euskal kritika literarioa gaur egun”, *Argia*, 2001-11-4, 35 or.

APALATEGI, Jokin (1979): *Los vascos de la nación al estado*, Elkar, Donostia.

ARRIETA LANDETA, Ander (1998): *La desconstrucción de la verdad grupal: sociología generacional de una heterodoxia abertzale*, Servicio Editorial de la UNP, Pamplona.

ASKOREN ARTEAN (1969): *Euskal elerti* 69, Lur, Donostia.

(1972): *Euskal literatura* 72, Lur, Donostia.

(1986): *Oilarraren promesa. Azterketa semiologikoa*, Hots argitarapenak, Legazpi.

ASURMENDI, Mikel (2004): “Literatur belaunaldiak” (Elkarrizketa Iban Zaldua, Juan Luis Zabala eta Harkaitz Canorekin), *Argia*, 1.968, 2004-11-28, 22-24 or.

- BARANDIARAN, Jose Migel (1972): *Obras Completas*, VI, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 411-423 or.
- BISMARCK, Gunilla Von (1984): “Idazle gaztetxoa eta bere eredu pertsonal-literarioak”, J. M. Torrealdaik aipatua in *Euskal kultura gaur*, op. cit., 344-345 or.
- ESTORNES LASA, Bernardo (1986): “Cultura”, *Enciclopedia General Vasca*, VIII, Auñamendi, Donostia, 351-287 or.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia (1983): *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- ETXENAGUSIA, Karmelo (1969). *Euskal idazleen lora-tegia*, Izarra Irakorla, Donostia.
- GARATE, Gotzon (1989): “Jon Andoni Irazusta eta Euskalerriko eleberrri errealista”, in Askoren Artean: *Gerraosteko literatura*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 19-34 or.
- (2001; 1983-1985-1987): *Euskal eleberrien historia*, Gero, Bilbao.
- (2005a): “Literatura kritika”, *Argia*, 1.983 zk., 2005-03-13, 22 or.
- (2205b): “Euskaraz ongi idaztea zer den”, *Karmel*, 249, urtarrila-martxoa, 3-12 or.
- GARTZIA, Pruden (1904a): “Elkarrizketa Pruden Gartziarekin”, *Argia*, 1.956 zk., 2004-09-5, 51-53 or.
- (1904b): *La España metafísica*, Euskaltzaindia, Iker-16, Bilbao.
- GORROÑO, Iñaki (1985): “Una generación de experiencia cooperativa”, in Joseba Itxausti (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmu. Realidad y proyecto*, op. cit., 114-117 or.

- GUTIERREZ RETOLAZA, Iratxe (2000): *90eko hamarkadako narratiba berria: literatur kritika*, Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbao.
- (2002): *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- HARANBURU ALTUNA, Luis (1972a): “Hitzaurre gisa”, in Askoren Artean: *Euskal literatura*, Lur, Donostia, 5-20 or.
- (1972b): “Ikastola, geroaren habe”, *Gure Ikastola*, Jakin sorta-6, 167-184 or.
- HERNANDEZ ABAITUA, Mikel (1989): “Bernardo Atxaga, literatur sari nazionala”, *Jakin*, 53, uztaila-abuztua, 173-179 or.
- IBARZABAL, Eugenio (1977): *Koldo Mitxelena*, Erein, Donostia.
- INTXAUSTI, Joseba (1981): “JAKINen historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara”, *Jakin*, 21, EFA, 19-48 or.
- (1985): “Hizkuntzaren kontzientzia eta eskea, historian”, in Joseba Itxausti (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmu. Realidad y proyecto*, EFA/Jakin, Oñati-Arantzazu, 361-386 or.
- (1990): *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- IZTUETA, Paulo (1981a): “Eliz ikastetxeetako aldizkariak”, *Jakin*, 21, EFA, 49-71 or.
- (1981b): *Sociología del fenómeno contestatario vasco: 1940-1975*, Elkar, Donostia.
- (1991): *Orixe eta bere garaia*, Etor-Eusko Jaurlaritza, Donostia.
- (1995): “Joxe Austin Arrietaren literatur lanak”, *Jakin*, 86, Donostia, 41-63 or.
- (1996): *Intelligentsia kimatuaren orbelak*, Kutxa fundazioa, Donostia.

- (2001): *Erbesteko euskal pentsamendua*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- (2002): *Kritika literarioaren lehen saiokak (1926-36)*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- (2004): “Sabino Arana eta bere eragina euskal pizkundean”, in *Sabino Arana Goiri: euskara eta kultura*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 35-116 or.
- IZTUETA, Paulo [prest.] (2002): *Testu hautatuak euskal estetikatikaz. Aitzol, Lauaxeta, Orixe*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- IZTUETA, Paulo “Meakaberri” (1973): “Egungo kulturaren hildotik”, *Zabal*, 1, Baiona, 53-57 or.
- JOLY, Lionel (2005): Elkarrizketa Lionel Joly-rekin (M. A. Elustondo), *Argia*, 1.982 zk., 2005-03-6, 52-53 or.
- JUARISTI, Jon (1987): *Literatura vasca*, Taurus, Madrid.
- KORTADI OLANO, Edorta (1985): “XX. mendeko pintura eta eskultura”, in Joseba Intxausti (zuz.), *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto*, op. cit., 343-353 or.
- KORTAZAR, JON (1990): *Literatura vasca: Siglo XX*, Etor, Donostia.
- (1997): *Euskal literaturaren historia txikia*, Erein, Donostia.
- (2000): *Euskal literatura XX. mendean*, Prames-Las Tres Sorores, Zaragoza; itzultzailea, Axun Aierbe Mendizabal.
- LAFITTE, Pierre (1931): *Eskualdunen loretegia*, Lasserre, Baiona.
- LANDA, Josu (1983): *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK, Donostia.
- LARREA, J. M. (1989): “1956-ko belaunaldia”, Askoren Artean: *Gerraosteko literatura*, Labayru, Bilbao, 9-16 or.

- LASAGABASTER, Jesus Maria (1981): “Euskal-nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak”, in *La literaturas de los vascos*, op. cit., 73-98 or.
- (1982): “Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna”, *Jakin*, 22, Donostia, 137-154 or.
- (1983): “La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica”, *Mundaiz*, 26, 34-52; *La literaturas de los vascos*, op. cit., 229-252 or.
- (1984): “La literatura vasca entre 1700 y 1986”, in *Noveno Congreso de Estudios Vascos. Antecedentes próximos de la Sociedad Vasca actual. Siglos XVIII y XIX*, Eusko Ikaskuntza, 251-277 or.; *La literaturas de los vascos*, op. cit., 29-72 or.
- (1985): “Literatura y vida literaria”, in Joseba Intxausti (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitismo. Realidad y proyecto*, op. cit., 427-433 or.
- (1986): “Introducción a la narrativa vasca actual”, in Lasagabaster, J. M. (ed.): *Antología de la narrativa vasca actual*, Editions del Mall, Barcelona; *La literaturas de los vascos*, op. cit., 98-122 or.
- (1990): “Euskal literaturaren azterketa 1960-1990”, *Jakin*, 61, 53-63 or.; *La literaturas de los vascos*, op. cit., 253-268 or.
- (2002): *Las literaturas de los vascos*, Universidad de Deusto, San Sebastián. Aipamenak azken iturri honetatik.
- LERTXUNDI, Anjel (1997): “Munduaz pentsatu mundua pentsatzeko”, in J. M. Torrealdai: *Euskal kultura gaur*, op. cit., 300-3019
- LUBAKI BANDA (1993): “Lubaki Banda. Lehen manifestua: Atzazalez urratzen dugu bidea”, *Susa*, 1, Donostia; J. M. Torrealdai (1997), *Euskal kultura gaur*, 354-355.

- MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier (1997): “Aniztasuna eta kalitatea”, in J. M. Torreal dai: *Euskal kultura gaur*, op. cit., 330-331 or.
- MITXELENA, Koldo (1951): “Euskal literaturaren etorkizuna”, *Egan*, 3, 17-21 or.; *Euskal idazlan guztiak IV, Literaturaren inguruan I*, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte a, Zarautz, 21-27 or. Aipuak hemendik.
- (1956): “*Euzko-Gogoa eta Euskera*”, *Egan*, 5-6, Donostia, 157-163 or.; *Euskal idazlan guztiak VIII, Artikuluak eta beste I*, op. cit., 125-132 or.
- (1959): “*Itun zar eta berria*. Olabide'tar Erraimun, S.J. (1869-1942), *Egan*, 1-4, 85 or.; *Euskal idazlan guztiak II, Liburuak I*, op. cit., 111-122 or.
- (1960): “Asaba zaarren baratza”, *Egan*, 1960. 3-6, Donostia, 121-134 or.; *Euskal idazlan guztiak IV, Literaturaren inguruan I*, op. cit., 29-47 or.
- (1961): “Orixerene heriotzean”, *Egan*, 4-6, 1961, 157-163 or.; *Euskal idazlan guztiak V, Literaturaren inguruan II*, op. cit., 117-124 or.
- (1965): “Atariko a”, *Orixe Omenaldi*, Euskaltzaindia, Donostia, 1965, 5-9 or.; *Euskal idazlan guztiak V, Literaturaren inguruan II*, op. cit., 29-47 or.
- (1981a) “Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak”, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo, 259-278 or.; *Euskal idazlan guztiak IV, Literaturaren inguruan I*, op. cit., 49-72 or.
- (1981b): “Euskal literaturaren kondairazko oinarriak”, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo, 73-279-292 or.; *Euskal idazlan guztiak IV, Literaturaren inguruan I*, op. cit., 73-279-292 or.

- (1982): “Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia”, *Muga*, 19, Año III, 21-12-1981, Donostia, 5-19 or.
- (1988a): *Historia de la literatura vasca*, 2. arg., Erein, Donostia; 1. arg., 1960.
- (1988b): *Euskal idazlan guztiak IV: Literaturaren inguruan I*, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz.
- (1988c): *Euskal idazlan guztiak V: Literaturaren inguruan II*, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz.
- MUJIKÁ, Luis Mari (1979): *Historia de la literatura euskerika*, L. Haranburu, Donostia.
- OLAZIREGI, M. J. (1998): *Euskal gazteen irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa*, Bergarako Udala.
- “Un siglo de novela en euskera”, in P. Urkizu (dir.): (2000): *Historia de la literatura vasca*, UNED, 504-588 or.
- ONAINDIA, Santi (1954): *Milla euskal-olerki eder*, Karmeldar idaztiak, Larrea-Amorebieta.
- (1972-1990): *Euskal literatura*, I-VI, Etor, Donostia.
- ORIXE (1927): *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra*, Euskal Esnalea, Donostia; Paulo Iztuetak paratuta berrargitaratua: *Euskal literaturaren historia laburra*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2002. Aipua hemendik.
- ORLANDO, Francesco (1973): *Per una teoria freudiana della letteratura*, Einandi, Torino.
- ORTIZ, Agurtzane (2004): *Manex erdozaintzi-Etxart. Bizitzaren eta literaturaren konpromezua (1934-1984)*, Doktore-tesia, Baionan, 2004-05-26.
- OTEGI, Karlos (1985): “Euskal sorketa literarioa (1939-1984)”, in Joseba Itxausti (zuz.): *Euskal Herria*.

- Errealitate eta egitismo. Realidad y proyecto*, EFA/Jakin, Oñati-Arantzazu, 434-448 or.
- PLATON (1993): *Politeia*, Klasikoak, Bilbao; itzultzailea, Juan Jose Pujana Arza.
- RODRIGUEZ BORNAETXEA, Fito (2005): *Saikeran saiatzeko gida*, EIZE, Donostia. Argitaragabea.
- RUIZ OLABUENAGA, J. I. (1996): *Vida cotidiana y nuevas generaciones*, Universidad de Deusto, Bilbao.
- RUIZ OLABUENAGA, J. I.; SABATER, Carmen (1991): *Narcohábito de segunda generación (el caso vasco)*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria.
- SAN MARTIN, Juan (1969): *Uhin berri*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.
- SAN MARTIN, Juan; BASAURI, Serafin (1971): *Hegatsez*, Itxaropena, Zarautz.
- SARASOLA, Ibon (1970): *Euskal literaturaren historia*, Lur, Donostia.
- SCHAEFFER, J-M. (2001): “La conduite esthétique”, in Yves Michaud (dir.), op. cit., 781-791 or.
- SUDUPE, Pako (2001): “Belaunaldi tirabirak 50eko hamarkadan”, *Egan*, LIV, Lasarte-Oria, 19-38 or.
- TOLEDO. Ana (1989): *Domingo Agirre. Euskal nobelaren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia.
- TORREALDAI, Joan Mari (1977a): *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*, Jakin, Oñati-Arantzazu.
- (1977b): “Euskal liburugintza 1976an”, *Jakin*, 1, 124-129 or.
- (1995): “Euskal liburugintza 1994”, *Jakin*, 90, irailurria, Donostia, 69-87 or.

- (1997a): “Euskal liburugintza 1995”, *Jakin*, 98, urtarri-la-otsaila, Donostia, 77-95 or.
- (1997b): *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*, *Jakin*, Donostia.
- (2002): “Euskal liburugintza”, *Jakin*, 140, urtarrila-otsaila, Donostia, 11-35 or.
- TXILLARDEGI (1974): *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981*, Elkar-AEK, Donostia.
- UGALDE, Martin (1974): “Literatura-motak mugatu nahian asmo batzuk”, *Euskera*, XIX, Bilbao, 295-302 or.
- (1985). “Herriaren eta erbestearen arteko elkarrizketa”, in Joseba Itxausti (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmu. Realidad y proyecto*, EFA/Jakin, Oiñati-Arantzazu, 449-463 or.
- URKIZU, P. (1970): *Literatura ta kritika*, Lur, Donostia.
- (2000) [dir.]: *Historia de la literatura vasca*, UNED.
- VILLASANTE, Luis (1961): *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbao.
- ZAITEGI, Jokin “Etxetxo” (1950): “Aitzol’en Gizaldia”, *Euzko-Gogoa*, 1, Guatemala, 5-7 or.
- ZALDUA, Iban (2002): *Obatatiko tranbia. Zenbait gogoeta azken aldiko euskal literatuaz (1989-2001)*, Albedania, Irun.
- (2003): “Tropalekoa izateko 9 manera”, *Gara*, 2003-12-26.
- ZARATE, Mikel (1977): *Euskal literatura. Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak*, Leopoldo Zugaza, Bilbo.

KRITIKA LITERARIOA

bilduma

1. Jon Kortazar: *Diglosia eta euskal literatura*, 2002
2. Iratxe Gutierrez: *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza*, 2002
3. Orixe: *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002
4. Paulo Iztueta: *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Testu hautatuak euskal estetikaz*, 2002
6. Manu Lopez Gaseni: *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*, 2005
7. Ur Apalategi (arg.): *Belaunaldi literarioak auzitan*, 2005
8. Iban Zaldúa: *Animalia disekatuak*, 2005
9. Jon Kortazar: *Joseba Sarrionandiaren ipuingintza. Zuhaitz erramesa*, 2005
10. Paulo Iztueta Armendariz: *Euskal idazleen belau-naldiez*, 2005